

Joanes Arrossagaray
(1949 - 1998)

Bihotz barneko solasak

Aitzin solasa: Mayi Arrossagaray
Prestatzailea: Antonio Zavala

Auspoa Liburutegia

303

ARROSSAGARAY, Joanes

Bihotz barneko solasak / Joanes Arrossagaray ; aitzin solasa, Mayi Arrossagaray ; prestatzailea, Antonio Zavala. – [S.l.] : Auspoa ; Donostia-San Sebastián : Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura Zuzendaritza Nagusia, 2007.

251 or. : argk. ; 20 cm. – (Auspoa Liburutegia ; 303)

Aurkibidea

LG SS 401-2007. – ISBN 978-84-7907-546-0

I. Arrossagaray, Mayi, pr. II. Zavala, Antonio, ed. lit. III. Gipuzkoa. Dirección General de Cultura, ed. IV. Título. V. Serie.

821.361-1"19"

© *edizio honena*: AUSPOA Argitaletxea
Gipuzkoako Foru Aldundia

1.000 aleko tirada

ISBN: 978-84-7907-546

Legezko Gordailua: S.S. 401/07

Fotokonposizioa eta inprimaketa: Itxaropena S.A., Zarautz

Joanes Arrossagaray
(1949 - 1998)

Bihotz barneko solasak

Aitzin solasa: Mayi Arrossagaray
Prestatzailea: Antonio Zavala



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Kultura Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Cultura

Donostia-San Sebastián, 2007

**Joanes Arrossagaray,
ene espos lagun zena**

Gure familia

Joanes zena sortu zen 1949ko maiatzaren 24ean, Aintzilen. Aita zuen etxekoa, Domingo; eta ama, berriz, Jatsu-Aintziko alaba, Mariana. Aita hil zen 86garren urtean, 1996ko Maiatzaren 6an. Ama hil zen 2004ko Azaroaren 6an, 91 urtetan.

Beraz, orai mintzatuko niz gure familiaz. Ukan ginituen lau haur: bi seme eta bi alaba. Lehena, Bernadette, orai 25 urtetan dena, hori sortua da 1981ko Maiatzaren 14ean. Bigarrena, Peio, orai 23 urtean dena, hori aldiz sortua da 1983ko Buruilarren 7an. Hirugarrena ere mutikoa, Michel, orai 21garren urtean dena, hori berriz sortu zen 1985ko Urriaren 18an. Eta laugarrena, Elixabet, 20garren urtean dena, sortua da 1986ko Azaroaren 17an.

Aita hil zitzaiozelarik, oraino gazteak ziren. Gehienak 17 urte; bigarrenak, 15 urte; hirugarrenak, 13 urte; eta gaztenak, 12 urte.

Etxeaz ere mintzatuko niz. Herritik kilometra batean, biziki leku pollitean emana da. Etxalde ttipi bat da, Benta-berria deitzen dena.

Herria

Herriaz ere nahi nuzke bi hitz erran. Aintzile herri ttipia, bainan leku ederra eta airoa; eta badira biziki etxalde ederrak. Hemen ere jendea bizi da hazkuntzatik. Eliza ere biziki pollita da. Ez da haundia, bainan untsa arrañatia.

Nik hemen ezagutu ditut apezak: Philippe Partarrieu, Arruta-Sariketakoa, adin haundiarekin hila dena. Eta bertze bat ere ezagutu dut Dominique Sallaberry, Donoztiritarra. Donazarreko ertor Donechek ere egin izan du zonbait urtez Aintzileko zerbitzua. Bainan Maurice Arhetz dugu hemengo ertora. Donazarretik erabiltzen du Aintzile eta Ibiakoitz arratsetan emaiten du meza Ahatsako ertorak, Betti Paris Eiheralartarrak.

Mintzatuko niz orai aipatuz bestak. Bainan badu hamar urte ez dugula bestarik izan. Biziki besta pollitak egiten ziren, eta orai egiten du halako huts bat bestarik ez giteak.

Joanes zena

Joanes zena ibilia zen eskolan Aintzilen; bainan orai ez da gehiago eskolarik herri huntan. Aspaldi zerratia da, ez zela-kotz haurrik aski. Katiximan ere Aintzilen ibilia zen, Partarriue apez zenarekin; eta kominiatua 1961ko Uztailaren 9an, Aintzileko elizan.

Goizik hasia zen etxetan lanean, 14 urtetako. Zortzi sasoin egin ditu, betarraba sasoinak Nortean, Meaux herrian; eta uda bat Lurdan, ostatu batean, untzi ikuzten, 1971ko urtean, Martxotik eta Urriaren ondarreraino. Ari izan da ere lanean Bizanos herrian, Suisan; eta Bretanian.

Pertsutan ere hasi zen 16 urtetan. Lehen pertsua bota zion jaun apezpikuari, Aintzileko konfirmazione batez. Eta gero, 18 urtetan, joan zen Bidarraira, Erramundeia ostatura. Bila jinik Emile Larre apezta eta aita Santos Beloki frantxiskanoa, orduan hasi zen pertsutan. Aunitz lagundu du Mixel Itzaina Aldudarrak, Itsasun bizi denak.

Orai mintzatuko niz nola egin ginituen elgarren ezagutzak. Bankan ginuen elgar ezagutu; eta esposatu ginen 1977ko Maiatzaren 14ean, Aldudeko elizan, eta gero ezteiak egin ginituen, eguna eta gaua, Azkaraten, Iputchainea ostatuan.

Baginen orotara 186 lagun. Pertsulari lagunak ere denak han zituen; eta Martikorena kantari ezaguna ere bai, sortzez Baigorriarra, Otsobiko nagusia.

Xapelgoetan ere zonbait urtez parte hartu izan du.

Gazterik hil zen, 1998ko Agorrilaren 24ean, 49 urtetan, Izpurako eritegian, bularretako odol guri baten ondorioz. Lehenik urak kendu zazkoten bularretarik. Gero egon zen Kanbon pausa etxe batean. Handik etxean sartu eta hogoi egunen buruko hil zen.

Lagunak ere bazituen, bai pertsutan ala laneko tokitan. Beti lagunez inguratua zen. Adixkide ainitz zokotan zuen gizona zen.

Herrian ere egona zen 12 urtez Kontseiluko, 1977tik eta 1989raino.

Joanes zenak bazituen lau sasoin ere eginak mahats biltzen Bordeleko eskualdean. Erraiten zuen biziki leku ederrak zirela. Aise gehiago gustatzen zen, betarraba sasoineko lekuan baino. Han ere irabazten zuen untsa; bainan jendartekoa etzitzaion halaxe gustatzen, zeren arrunt jende murrirtza zela Meaux herrian.

Pertsulari lagunak

Orai nahi nuzke erran zombait hitz haren pertsulari lagunetaz. Kantatu izan zuen behin Baigorri Bankako Ximun Zubikoa zenarekin. Hori zen biziki pertsulari pollita eta jostakina. Sortzez nafartarra zen, Sunbilla herrikoa.

Joanesek kantatu izan du ere frangotan Bankako Bersinanto Felix Iriarte zenarekin. Hori ere pertsulari ona zen, biziki irri egin arazlea. Baztango Irurita herrian sortua zen, eta gazterik jina mutil Aldude Koskarartera, eta gero Bankara esposatua.

Beraz, beste pertsulari guziekin ere kantatu izan du, bai Iparraldean eta Hegoaldean. Zombait urtez kantatu du ere Mattin eta Xalbador zirenekin. Zombait aldiz kantatu izan du Jean-Baptiste Hirigaray Arrosatarrarekin ere. Bainan hori ez zen luzaz arizan pertsutan, eta hila da 1999ko Urtarrilean.

Pertsuak

Orai liburu bat aterako da Joanesen pertsuekin. Baditu emanak, Lurdan sasoina egin zuelarik, zombait pertsu.

Bai eta ere Lazkao-txiki pertsulari zena hil zelarik. Hori ere biziki pertsulari pollita zen eta jostakina, duela zombait urte hila dena. Lazkao-txiki deitzen zuten Lazkao herrikoa

zelakotz eta ttipia; bainan bere izen deiturak zituen Koxe Migel Iztueta.

Pertsuak eman zituen ere ene senar zenak Mattin eta Xal-bador hil zirelarik.

Gertatu zirelarik urrezko ezteiak Ezterenzubi herrian, Jake-seneko senar emazte xaharrenak, egin arazi zazkoten pertsu batzu xede hortara. Horiek ziren Gerard Ihidoy kantari ezagunaren aitatxi amatxiak, adin haundiarekin zenduak direnak.

Beste urrezko eztei batzuek ere egin arazi zazkoten. Horiek ziren Ortzaizen Kapittainaineko senar-emazte xaharrak.

Pertsuak egin izan ditu apendizitarendako operatu zutelarik.

Bai eta traktur ixtripuz hil zirelarik bi mutiko gazte, bat Lasan eta bestea Martial Etcheverry, Ahatsa-Uharteko semea. Hau 1995ko Uztailean.

Pertsutan aipatzen du ere Martikorena Baigorriar kantari ezaguna. Eman zituen pertsuak artzaineri; eta liburuan dira ezarriak lau pertsu, jaun apezpikuari emanak Aintzileko konfirmazione egunean. Horiek zituen bere lehenbiziko pertsuak.

Pertsutan aipatzen du Magali Zubillaga, Aldudar neskato kantaria. Horri ere zombait pertsu baditu emanak; eta Itxaro Borda Amizkutar nextato bati ere. Hori da sortzez Oraartarra, Oihanarteko alaba.

Lau haur ukan ginituelarik, ezarri zituen atsegin haundirekin zombait pertsu.

Aintzile herriari ere baditu emanak, eta herriko bozkak zirelarik, zeren atera baitziren halako ixtorio batzu jende artean eta bigarren lixta ez zen arras osoa.

Biziki pertsu pollitak baditu emanak urtzoa eta gizonaren pasaia.

Bai eta ere kausituko dituzue liburuan pertsu batzu, xakurra eta gatua. Biziki polliki emanak dira, konparatuz zombait jenderi. Xakurra eta gatua ere ez baitira soberarik akomeatzen elgarrekin, eta zombait jende ere ez, maleruski.

Amen bestako ere bazituen emanak, biziki ederrak eta hunkigarriak. Behin pertsu horiek izanak ditu Bernadette alaba gehienak kantaturik Irulegiko Irratitik.

Ihauteria batzuez ere kanta arazi zazkoten pertsu batzu San Pantzarri.

Bost urtez kantatu izan du Baigorriko etxe sartzearen karietara.

Nafarroari ere baditu zonbait pertsu emanak.

Artzainen Galbarioa, hori aipatzen du liburuan, beste sendimenduzko pertsu batzu.

Etxe leiho zerratua eta haur bat, amak ukatua. Horiek ere biziki pertsu hunkigarriak dira.

Bidarraiko basurdea; horri ere baditu pertsu batzu emanak, Arbeletxe jaun apez zenak eman araziak.

Ossau-Irati gasnaz zonbait pertsu, eta laborantzaren gazten segidaz ere bai. Horiek puxka bat hunkitzen ditu zonbait gazte segurik.

Pertsuak eman zituen Jainkoaren amodioaz, eta baditu emanak zuzentasun goseari.

Xapelgoetan ere parte hartu izan baitu, jujeri ere baditu emanak zonbait zirto.

Betarraba sasoinen zelarik, eman zituen pertsuak: Eskual Herriari ikus arte.

Bai eta ere bere lagun bat zendu zitzaizolarik. Hori zuen Frantxua Senperra, Joaneseekin sasoina egiten zuena Meaux herrian.

Biziki pertsu pollitak ere eman zituen: Maitasun tronpakorra.

Apez eskasa baita orai, hortakotz ere bazituen emanak zonbait pertsu. Horiek dira bokazione galdez.

Bertze zonbait pertsu ere: Amodioaren ederra. Horiek ere pertsu pollitak dira biziki, nextatoa eta mutikoa elgarri mintzo.

Badira pertsu batzu liburuan biziki irringarriak. Horiek dira: Lau mixterioak.

Bertze batzu ere egin zituen Zukrieratik Eskual Herria maitez. Horiek biziki hunkigarriak dira.

Oraiko moldean den bezala hainitz etxe segidarik gabe, eman zituen pertsuak biziki hunkigarriak: Baserriak husten ari.

Amodio huts egina, horri ere zonbait pertsu. Bainan kausa hori gertatua zitzaion Garaztar bati, eta harek zazkon pertsu horiek eman araziak.

Panpili pertsulari zenari ere bazituen emanak zonbait pertsu, zeren hori ere artzen baitzen kopla egiten ixkirioz, bainan ez dut uste sekulan arizan den plazetan.

Mattin zenari egin zakotelarik omenaldia Donostian 1972ko Urtarrilean, ordion ere ezarri zituen pertsuak.

Emazte zenari, horiek biziki pertsu hunkigarriak dira. Bere emaztea galdua balu bezala eman zituen pertsuak.

Beste zonbait pertsu egin zituen bere herriko ertor zenari, Partarrieu jaun apezari.

Maite dena ezin ukan, pertsu horiek ere badira liburuan, nexkatoa eta mutikoa elgarri mintzo balira bezala.

Eman zituen pertsuak sujeta hartuz arbola: Arbolari kantuz.

Bazuen Joanesez osebata biziki pertsulari pollita: Peio Haran, Jatsu-Aintziko nagusia. Hori zuen bere ama zenaren anaia. Horri ere baditu pertsuak emanak.

Gero delako Peio hori joan zen, etxea saldu eta bere familiarekin, Bordele alderat, han bizitzera, lantegi batean lanean arizanez. Eraiki zuen etxe berri pollit bat. Espos laguna zuen Ezterenzubi-Mindurriko alaba. Gizon hori arizana omen zen kotsia publikoan Eiheralarre-Larramendy pertsulari famatuarekin,

Maurice Arhetz apezka, oraiko Donazaharreko eta Aintzileko ertor dena, ordenatu zelarik 1977ko urtean, ordion Joanesez ezarri zituen pertsuak xede hortara. Apez hori da sortzez Zibiztarra, Zaldunbideko semea; 56 urte ditu.

San Frantses Jatsukoari ere baditu emanak zonbait pertsu. Biziki maite zuen Jatsuko beilara juaitea eta hango eliza ede-

rrean kantuz artzea; eta, bere ama herri hortakoa izanez, atse-ginekin ezarri zituen pertsuak karia hortara.

Beste gertakari bat ere bazen Jatsun, eta pertsuak eman zituen orduan. Bazen herri hortan ehun urte betetzen zituen emazte bat, Mariluixa Sorhouet, Harkurutxeko etxeoanderea, eta hari egin zakoten herritarrek omenaldi ttipi bat, eskainiz kobrezko plata bat. Emazte horrek bete zituen mundu hontan 102 urte.

Hau, berriz, beste gertakari bat, bainan ez hain ona. Orduan ere pertsuak ezarri zituen. Ez dakit zoin urte zen; ez niz oroitzen. Bainan badakit Azkaratetik eta Arrosara artean gertatu zela bi gizoneri: bat kolpatu zuten, Kesus Zugarramurdi, eta haren laguna, Raphael, hil zutela. Orduan ere Joanesek pertsu batzu hunkigarriak ezarri zituen.

Bankako Felix Iriarte zenari baditu emanak pertsuak; hor kausi ditaizke liburuan.

Donibane Garazin bi apez hil ziren 1992-an. Lehena, Pettan Iratchet, 76 urtetan, auto ixtripuz, Landesetako bidean zoalarik. Apez hori sortzez Bidarraitarra zen, Elixaldeko semea, 21 urtez Alduden erretor egona. Gu horrek esposatuak ginen, 1977ko Maiatzaren 14ean. Eta beste apeza zen Jean Irigoyen, sortzez Ainhiztarra, Idiondoko semea. Hori hil zen 66 urtetan, xangrearekin. Beraz, horieri ere ezarri zituen pertsuak.

Omenaldi bat egin zakoten Larramendy pertsulari famatuari 1982ko Ekainaren 13an, eta xede hortara ezarri zituen zonbait pertsu. Eta oraino pertsu horietan ezarria du behar zela hurran urtean ohoratu Mañex Etxamendy Ezterenzubitarra; bainan oraino segurik nehork ez du ohoratu. Gizon hori omen zen biziki pertsulari pollita; bainan ixkirioz. Ez omen da sekula publikoan arizan.

Bere pertsutako lagun bati ere ezarri zituen zonbait pertsu. Hori da Jean Pierre Mendiboure, Heletarra, Ospitaleko nagusia.

Joanesek kantatu izan du ere bi aldiz Orriako elizan, behin berak eta beste aldi batez Mixel Xalbadorrekin. Lurdako eli-

zan ere kantatu izan du, behin Xanpun zenarekin eta beste behin Emile Larre apezarekin.

Berak erraiten zuen lehenbiziko pertsutako lagun Ernest Alkat Iholdiarra zuela, orai Armendaritzen bizi dena.

Joanes zenaren familia

Orai mintzatuko niz Joanes zenaren familiaz. Joanesek bazuen anaia ttipi bat hila, Mixel izena zuena, sortu eta bi egunen buruko, zeren haur hori zen Joanesekin birazkakoa. Eta beste anaia ttipi bat, sortzean hila.

Delako oseba Peio pertsulari hura ere Joanesen amaren anaia zen, 1976ko urtean hila dena.

Eta gero bazituen hiru tanta, ama zenaren ahizpak. Bat, Gaxuxa, esposatua zena Irisarrira Piarres Soulerekin, eta ukan zituzten hamar haur: zazpi seme eta hiru alaba. Horietan alaba bat serora dena Mourenx herrian; eta seme bat apez, Beñat, luzaz Afrikan egona misionest, hila dena 1970ko Buruilaren 25-ean, 40 urtetan. Delako Gaxuxa hori hil zen 1993ko Martxoaren 4-an, 86garren urtean, Izpurako xahar etxean.

Beste ahizpa bat, Kattalin, Uharte Garazin bizi zena, hura ere esposatua zen, Betti Apezetche Irisartar batekin, eta ukan zituzten zortzi haur: bost seme eta hiru alaba. Delako Kattalin hori hil zen 1987ko Azaroaren 25-an, 83 urtetan, bere alabaren etxean, Uharte Elizetxean.

Beste ahizpa bat oraino, Graxiana, hura ez zen esposatua. Bere denbora guzian lanean arizana Izpurako ospitalean, eta gero hila dena Donibane Garaziko xahar etxe batean, 1990ko Urriaren 14an, 81 urtetan.

Horiek denak Joanes zenaren ttanttak eta kusiak dira, ama zenaren aldetik.

Eta orai mintzatuko niz Joanes zenaren aitaren aldeko jendakiaz. Horiek dira hiru ttantta eta oseba bat. Bainan hura hila da 2000ko Maiatzaren 14an, 88 urtetan. Mixel zuen izena eta ez zen esposatua. Bere denbora guzian mutil egona.

Joanesen aita zenaren arrebak hiru dira, eta denak adin haundian.

Lehenak Mari du izena, esposatua dena Eiheralarre-Salaberrira eta hiru seme alaba hazi dituen, bere senar zena Kaiet St. Pée-rekin. Orai delako Mari horrek baditu 91 urte.

Bigarrena, Jeanne, Eiheralarrera esposatua, Mehetegiko-bordara, eta hazi dituen hiru seme alaba, bere senar zena Jean-Baptiste Minondorekin. Jeannek baditu orai 87 urte.

Hirugarren ahizpa Gracie, hori ere esposatua, Eiheralarre Ahuntzainbordara, eta hazi dituen lau seme alaba: bi mutiko eta bi nexka, bere senar zena Domingo Irigoín-ekin. Graciek orai baditu 85 urte.

Joanes zenak oraino apez bat familian bazuen, hura deitzen dena aita Guillaume Iriberry, Anhautarra, Xuberaineko semea; 80 urte ditu eta apeztua da 1950an, Belloc-eko komentuan bizi dena.

Beste bat ere orai aipatuko dut komentu hortan berean zena: anai Xabier Arrossagaray, Aintzildarra, Bentaberriko semea, Joanes zenaren aitaren osebá, 1959an hila dena, 80 urtetan.

Arrossagaray izen hori ateraiá omen da Eiheralarre-Larramenditik. Horko seme bat esposatu omen zen Aintzile Bentaberrira; eta haren anaia bat, berriz, Luzaide-Borddelera.

Orai mintzatuko niz Joanesen bataioko aitatxi-amatxiez. Aitaxi zuen etxekoa, bere aita zenaren aita. Harek ere Joanes zuen izena, 1959ko Apirilaren lehenean hila dena, 85 urtetan.

Amatxi, aldiz, ama zenaren iloba, Gaxuxa izena duena eta oraino bizi dena Uharte-Elizetxean; 72 urte ditu.

Joanes bataiatua omen zen Etchemendy apezak, sortzez Ortzaiztarra zena eta adin haundiarekin hila dena.

Ene amaren aldeko jendakia

Orai hasiko niz ene biziaren kondatzen. Sortzez Aldudarra niz, eta orai 55-garren urtean. Beraz, sortua niz 1951ko Azaroaren 30an.

Ene ama egona baitzen Baigorri-Zorzabalgaraiian neskato, ene ukaiteko etxekoandereak ekar arazi zuen etxe hortara; eta, beraz, hor sortua niz, eta bataiatua Baigorriko elizan Olhagaray apez zenak.

Nik baditut bi anaia ttipi hilak. Bat Jean Mixel, sortu eta 11 egunen buruan, 1950ko Agorrilaren 8an hila dena. Eta bestea Edouard, 2 urtetan, 1951ko Martxoaren 22an hila dena.

Ama nuen Urepeldarra, Bihurtabuxtango alaba. Hau hila da 70 urtetan Izpurako eritegian, ebakidura baten ondorioz, 1982ko Uztailaren 2an.

Aita nuen, berriz, etxekoa, 10 haurridetan gehiena, hila dena 1994ko Urtarrilaren 17an, 82 urtetan, Izpurako xahar etxean.

Orai hasiko niz ama zenaren aldeko jendakiaz mintzatzen. Bazuen anaia bat, Mixel Monaco, Urepele Ilarragorriko nagusi xahar zena, 1974ko Apirilaren 6an hila dena, 70 urtetan, supituki. Gizon horrek bazituen hamar haur. Alaba bat serora duena Landesetan, Soustons herrian. Bera ere, gizon hori, biziki kantari pollita zen, eta pertsu batzu ere emaiten zituen. Delako Mixel Monaco horren argazkia bada Xalbador zenaren liburuan.

Beste anaia bat Kuanzito. Hura ez zen esposatua. 35 urte bazituen eginak Ameriketan.

Beste anaia bat ere, Xemartin. Hura gazterik hil zen 41 urtetan. Hori ere Ameriketan izana eta etxera ezkondua zena, Joanes, 5 haurren aita. Hura hil zen 60 urtetan, 1952ko Agorrilean. Horrek ere bazuen alaba bat serora, Uztaritzeko komentuan dena.

Nere amak bazuen ahizpa bat, bainan hura hil zen gazterik, 27 urtetan, haur ukaitetik.

Horiek denak ene ama zenaren aldeko jendakia.

Nik bataioko amatxi nuen ama zenaren ama, Mariana Monaco, hila dena 1954ko Urriaren 14an, 86 urtetan. Eta bataioko aitatxi dut aita zenaren anaia, oraino bizi dena, Biarritzen, 81garren urtean dena; eta izena du Marcel Etcheverry.

Ni ibilia niz eskolan Esnasun. Hori da kartier ttipi bat Alduderi lotua dena, bere eliza pollitarekin. Bainan hil herriak Alduden dira, eta eskola hori badu urte multxo bat zerratua dela. Kominiatia dut Uztailaren 14an, 1963an. Orduko ertora zen Jean Uhart, Ezterenzubi Xauxarreko semea, hila dena 1965ko Agorrilean, 61 urtetan. Eta konfirmatua dut 1960ko Ekainaren 1ean, Paul Gouyon apezpikuarekin. Horiek denak eginak ditut Aldudeko elizan.

Ene aitaren aldeko jendakia

Beraz, orai mintzatuko niz aita zenaren aldeko jendakiaz. Hamar haurretan gehiena zen ene aita.

Gero, beste haren ondoko anaia, Mixel, ezkondua zen. Biarritzen bazuen etxe berri bat egina. 2 alaben aita zen, ofizioz plastrura, hila dena 1985ko Otsailean, 71garren urtean.

Beste anaia bat, Jean-Pierre, hura herrian berean ezkondua zena, seme baten aita, ofizioz laboraria eta hila dena 79 urtetan, 1995ko Urriaren 10an.

Gero Edouard. Hura ez zen ezkondua, beti mutil egon dena, eta hila dena 71garren urtean, 1993ko Apirilaren 11an.

Beste bat, oraino bizi dena, Marcel. Hori da ene aitatxi, Biarritzen egoiten dena etxe bat erosirik, eta baditu 12 urte eginak Ameriketara, Chinon, behi deizten. Hunara jin zelarik, Eskual Herrira, hasi zen lanean Biarritzen, garbitzeko javel egiteko lantegian.

Orai mintzatuko niz arrebetaz. Badira 5 neska. Lehena Mayi, bizi dena Biarritzen orai, adin haundian dena. Bere denboran bi aldiz ezkonduzik izana. Lehena zuen Madrilekoa. Hori gazterik hil zitzaion, eta gelditu zen bi haur ttipirekin. Gero berriz ezkondu zen Ezpeletar batekin, eta oraino ukan zuten alaba bat.

Beste ahizpa Adeline, esposatua zena Parise aldean, hiru semeren ama. Emazte hori 2003ko Urtarrilaren 22-an hila da, 85garren urtean.

Beste bat Marie-Jeanne, esposatua dena Seine-et-Marne eskualdean, bi seme alaba hazi dituena eta orai 85garren urtean dena.

Gero bada Mariana, Angelun esposatua, seme baten ama. 77 urte ditu.

Eta gaztena, Angele, Arrangoitzen bizi dena, hiru seme alaben ama, 76garren urtean dena.

Horiek denak dira ene aita zenaren haurrideak.

Aldude herriaz

Orai mintzatuko niz Aldude herriaz. Hor bada trinketa, zinemako sala, posta, jandarmeria, bolanjeria, botiga ttipi bat bere ezantza depotarekin, eskola, eliza, ostatu ttipi bat eta hotel bat, lantegi eder bat ere, Oteiza deitzen dena.

Esnasu kartierean ere bada hotela St. Sylbestre, ostatu ttipi bat Bidartea, eta beste bat, hotela eta ostatua egiten duena, Menta izenekoa; eta bixkar batean biziki leku airosean emana dena, eliza ttipi bat.

Besta biziki ederrak egiten dira Alduden, Andredena Maria inguru hortan; eta Esnasun ere egiten dira besta ttipi batzu, zikiro jate bat bederen. Aldudeko herriak klika ere badu beti.

Lehenago orhoitzen niz nola pertsulariak ere izaiten ziren, ardurenean larrazkenarekin: Mattin, Xalbador, Zubikoa eta Uztapide Hegoaldetik. Hori ere pertsulari ona zen eta ainitz urtez Eskual Herri guziko xapeldun izana. Orduan horieri juntatzen zen Dominique Ezponda, Jatsuarra, pertsutan hasi berria zena.

1975ko Otsailean ere izan ziren pertsulariak Alduden: Mattin, Xalbador, Xanpun eta Ezponda hemendik; eta Hegoaldetik, Lazkao-Txiki eta Igarzabal. Orhoitzen niz biziki saio ederra egin zutela, Mixel Itzaina zutelarik gai emaila.

Nik ezagutu dut herri hortan Joanes Harriet, Aldude Pre-mundoineko nagusi xahar zena. Hori ere pertsularia zen. Bai-

nan ez dut behin ere pertsutan entzun. Bainan gauza hau erraiten ahal dut: biziki gizon onesta eta gisakoa zela, jendetarik ainitz estimatua baitzen. Aspaldi ixildua zen pertsuka artzetik, zeren baitzituen familian nahi gabe haundiak ukanak.

1949ko Otsailean 20 urteko alaba hil baitzitzaien leizean, Elizondotik etxerakoan; eta handik 6 ilabeteren buruko semea supituki.

Gauza hau entzun izan dut gizon horrendako: biziki pertsulari ederra zela. Alde batetik botza eta bertze aldetik kantatzeko moldea ere, eta bereziki aho garbia. 1972ko Agorrilean hil zen, 73 urtetan.

Beste bat ere ezagutu izan dut Alduden. Ez zen pertsularia, bainan bai kantaria: Jean Monlong zena, biziki botz ederra zuena. Gazterik hil zen, 53 urtetan, 1968ko Apirilean, Baigorri Oronos ostatuan, supituki.

Orai ere bada neskato gazte bat, kantari ederra eta famatua dena, Magali Zubillaga, Leku-ederreko alaba, Aldudarra dena.

Herri hortan berean ere bi anaia kantari ederrak ezagutu ditut: Gaston eta Pierrot Erramuspe. Azken hau oraino bizi da, bainan Gaston hila da, 1999ko Otsailean, 84 urtetan.

Lehenago izana omen da Alduden pilotari famatu bat, Perikain izenekoa; eta orai nik ezagutu dutana da Aldudar pilotaria, Daniel Mutuberria.

Orai mintzatuko niz hor ezagutu ditudan apezeez. Jean-Baptiste Dufau, Aheztarra, Xahineko semea, adin haundiarekin hila dena Kanboko Arditeia, apez xaharren etxean. Gero Jean Uhart, Ezterenzubi-Xauxarreko semea, 61 urtetan hila dena Donapaleuko eritegian, xangrearekin, 1965ko Agorrilaren 23an. Pettan Iratchet, Bidarraitarra, Elixaldeko semea, hila dena 1992ko Azaroan, 76 urtetan, auto ixtripuz. Eta orai-ko Aldudeko ertora, Jean Etcheverry, Aintzildarra, Idiondoko semea, Aldude eta Urepeleko ertorgoa egiten duena.

Bikarioak ere ezagutu ditut bida. Bat, Jean-Pierre Urrutia, Urruña-Handiabaitako semea, Aiherran ertor zelarik hil zena

47 urtetan; eta beste bat Leon Labayen, Amikuztarra, oraino Azkainen ertor dena.

Beraz, nik hemen ezagutu ditudan auzapezak horiek dira: Mixel Chabagno, Xotroineko nagusia, adin haundiarekin hila dena 1974-an; eta gero haren semea, Albert, orai urtebete hila. Hori egon zen herriko auzapez 1977tik eta 1983 artio.

Bainan artean egon zen 12 urtez Pierre Itzaina, Mentako nagusia, 1990an hila dena ixtripuz.

Aldude Uhaldeko nagusia ere egon zen 6 urtez, Pierre Sal-dubehere, herriko auzapez.

Gero, orai badu urte multxo bat, Peio Setoain, Auzkiko nagusia, dela herriko kargudun.

Orai mintzatuko niz Aldudetik atera diren serora eta ape-zez: Leon Erramuspe, Luixeneko semea, Bankan ertor dena. Eta lehen ere herri hortan Aldudarra zuten apez, Jean-Bap-tiste Ardans, Soldadoaineko semea.

Oraino bada Betarramen aita Mathieu Etchenique, Age-rrekoa, eta Jean-Baptiste Itzaina, Mentakoa.

Mugerren ertor zelarik, hil zen adin gordinean Jean-Pierre Urricarriet, Alastaineko semea.

Orai bi urte hila da, 89 urtetan, Jean-Pierre Iriart, Mige-lenekoa, Kanboko Arditeia apez xaharren etxean.

Pritxiainean eta Markoinean ere baziren apezak.

Nik ezagutu dut Errientainean ere Jean-Baptiste Uharriet, Urepeleko ertor ohia, adin haundiarekin hila dena; eta horrek omen zuen oseba bat ere apez.

Auzkian ere baziren bi anaia apezak: bat Mixel, Arroasan ertor zelarik hila, 68 urtetan; eta beste anaia Joseph, Urruñan ertor egona. Hori kalonje pasatua zen; 71 urtetan hila dena. Gosterratzu zuten deitura. Oraiko Setoain auzapezaren osebak ziren.

Uhaldean ere badira bi apez, oseba ilobak.

Markitxainean ere bazen apez, Jeannot Uhalde, 34 urtetan hila dena auto ixtripuz Afrikan, 1987 urtean.

Mentan ere bazen artxapezpikua, Jean-Baptiste Urrutia, 75 urtetan hila dena.

Eta horren iloba bat bada apeza, Mentako semea, Jean-Baptiste Itzaina, oraino bizi dena.

Migelartzainainean ere bazen apeza, Mixel Mendiboure. Donibane Garaziko xahar etxe batean hila dena 1975ko Urta-rrilean. Eta horrek ere omen zuen oseba apeza, Baigorriin egona ertor.

Belloc-eko komentuan ere bada Berainbordako apeza, Adrien Gachitegui, oraino bizi dena.

Beste bat ezagutu izan dut Esnasu Xotroineko Joanes Chabagno, 94 urtetan hila dena. Apez hori misionest egona zen beste erresuma horietan.

Huna Aldudetik atera diren serorak. Lehenago omen ziren serorak Domingoinean eta Esnasu-Xotroinean. Gero bi ahizpa Haritxiloan. Auzkian ere bada serora bat, Mayi izena duena. Berainbordan ere Aña Gachiteguy Uztaritzeko komentuan dena. Gero badira Maite Heguy eta Gariador Xiloineko serorak. Uhaldean ere bat. Beste bat Marie Luise Harriet, Etxelakutoineko alaba. Esnasu-Iguxkarrean bi ahizpa serorak, Mariana eta Elixabet, Oraino badira Migelenean ere bi ahizpa serorak: Mayi eta Mariana Iriart; bainan Mayi hila da duela urte multxo bat. Aldude Mentan ere baziren serorak bi ahizpa: Mariana eta Elizabet Urrutia; eta etxe beretik horien iloba, Germaine Itzaina, hila dena gazterik, 57 urtetan, Uztaritzeko komentuan.

Aintzile herriaz

Beraz, erranen dut Aintziletik atera diren serora eta apezten berri. Huna serorak bi ahizpa: Gorostiague Mari-Louise eta Mariana Etxeberrigaraiakoak, xaharturik hilak direnak, Belloc-eko komentuan. Beste bat oraino Mari-Louise Maitia, Indarteko alaba, 66 urtetan hila dena Angeluko komentuan; eta Idiondoan ere omen zen serora, oraiko Aldudeko ertor

horren tanta. Huna, berriz, herri hortarik atera diren apezak. Lehena, Ahadoko semea, aspaldi hila dena. Gero bestea Pettan Maitia, Indarteko semea, 2000ko Apirilaren lehenean hila dena 78 urtetan. Eta oraiko Aldude-Urepeleko ertor den Jean Etcheverry.

Urepele herriaz

Huna, berriz, nahi nuke aipatu ene auzo herria den Urepele herri hortaz ere zonbait hitz. Nik beti badaukat herri horrendako ainitz amodio. Beraz, orai esplikaturko dut zendako dudan Urepele hoin maite.

Zeren ene ama zena herri hortakoa baitzen, Bihurtabuxtango alaba; eta, berriz, ene aita zenaren aita ere Urepeldarra baitzen, Joanes-Haundiaineko semea, hila dena 1943-ko Agorrilaren 2an, 73 urtetan. Gizon hori esposatua zen Esnasu-Patxikoinera, eta ni hor, etxe hortan, hazia bainiz 25 urte artio.

Denek dakigun bezala, bere omena ere badu herri horrek Xalbador pertsulari famatuari esker. Hor ere bada eskola, eliza biziki ederra, hiru ostatu ttipi eta bolanjeria. Plazan emana dute Xalbador zenaren orhoit-harria bere argazkiarekin.

Orai mintzatuko niz herri horrek eman dituen serora eta apezek. Bat Joanes-Haundiaineko semea, Piarres Etcheverry, 94 urtetan hila dena. Apez Aita Xuria deitzen den horietarik zen Indochinan, eta beraz zen apez hori ene aitaxi zenaren anaia. Beste apeza, berriz, zen Hasquet-Ttipittoineko semea, Alduden ertor egona.

Huna serorak: Marie-Jeanne Sancinena, Preoskoinekoa. Bernadette Monaco, Ilarragorrikoa, Mixel Monaco zenaren alaba, Soustons herrian dena. Marie-Baptiste Monaco, Bihurtabuxtangoa, Uztaritzeko komentuan dena. Hiru ahizpa Marticoarena. Horiek hilak dira. Bat arizana lanean Biarritzen, eritegi batean. Lantziriko tanta-ilobak serora direnak, Mayi Alfaro, Urepeleko seroretxean berean dena, eta horren tanta, adin haundiaren gatik Baigorriko xahar etxean dena. Zurginainean ere

bazen serora, Justine, xaharturik hila dena Belloc-eko komentuan. Erregeinean ere bazen serora, Kattin Ohaco, orai bi urte hila dena 79 urtetan, Uztaritzeko komentuan.

Hor egon diren apezak: Jean-Baptiste Uharriet, Aldudarra, Errientalaineko semea, 42 urte Urepelen ertor egon dena eta hila dena 1972ko Martxoan 87 urtetan. Eta beste bat ere ezagutu dut: Jean-Baptiste Bascans, Jatsuarra, Arotzaineko semea, Urepelen ertor egona, 2004 Maiatzean hila dena 80 urtetan.

Huna, beraz, herri hortan egon diren auzapezak. Luzaz egon zen Bernat Baztanchuri, Larrateiko nagusi xahar zena. Joanes Irastorza, hau 1965tik eta 1971 artio. Gero Dominique Arranbide, Bordaluzeko nagusia, 1971tik eta 1977 artio. Gerroztik, Marie-Antoinette Etchebarren, Madarikoa, da Urepeleko auzapez.

Orai ere badira Urepelen kantariak: Daniel Xalbador; horren anaia Mixel pertsularia, bere aita zenaren segida duena, bai pertsutan hala artzaingoan; gero horren hiru alabak, biziki kantari ederrak direnak: Miren, Amaia eta Pascale. Gero orai hasi berri direnak, Xendarineko bi ahizpa, Karine eta Aline Etcheverry.

Gero Urepelek badu beste fama bat: herri hortako behien marka. Ordion ere besta ederra egiten da behien Sorogainera igaitean. Eta gero, berriz, Xalbador eguna. Urtean behin kantaldi bat ere egiten da, zombait aldiz Urepelen edo berdin Alduden.

Horiek guziak hola direla, aipatzera noa Urepeleko eta Aldudeko baleako feria ederra egiten dena bi urtetarik. Hor ere ainitz jende ibiltzen da; eta Urepelen bestak ere ederrak egiten dira.

Mintzatuko niz herri horrek daukan xahar etxeaz. Nik lehenago etxe hori ezagutu dut apez etxea; bainan orai badira hor jende adinetakoak bizi direnak, eta etxe horrek badauzka zazpi bizitegi. Hori egina da Etchebarren andereak, axuant eta Kontseilukoek.

Urepelek baditu bi arraintegi, eta Aldudek ere bertze bi arraintegi.

Hiru kurutze ere errogazionetakoak baditu Urepelek: bat Xalbadorreneko azpiko aldean, izena duena Antonsaiko kurutzea; beste bat, berriz, elizatik goraxago, Elizamendi deitzen den kaskoan; eta hirugarrena ene sortetxetik gorago, Otalasto deitzen den mendi kaxkoan.

Salbatore bezperan egiten zen kurutze hortara prozesio-nea, Aldudarrek eta Urepeldarrek elgarrekin, Bainan, maluruki, kurutze hori erre zuen ortziak 1970ko Ekainean, Esnasuko besta egunean.

Aldude herriaz beste zerbait

Alduden eta Urepelen jendea bizi da hazkuntzatik, eta lehenago kontrabandatik. Bi herriak mugari hurbil baitira.

Esnasutik goiti bada benta bat egina, Kastroinea izena duena. Etxe hori Hegoaldeko partean da.

Alduden ere bada orhoit-harri bat monumentaren ondoan. Hori da Etchepare jaun mediku zenaren xedetara ezarri harria. Gizon hori omen zen luzaz Alduden mediku egona, eta sortzez Lekornekoa.

Beste orhoit-harri bat ere bada Alduden sartzean. Hori da Ramuntxo Lafitte Urepeldarrarena. Mutiko hori hila da 1999ko Urriaren 3an, ixtripuz, 16 urtetan.

Aldudeko herrian badira errogazionetako kurutzeak. Bat ezarria da Muriongo kaskoan; beste bat, Bankako juntan; eta bestea, Ferranjoinekobehereko aldean. Herri zolan ere badira bi kurutze: bat, Xantanaineko ondoan. Horrarat egiten da prozesio-nea Otaba egunarekin. Eta beste kurutze bat, Mige-lartzainaineko ondoan, bide bazterrean; eta horrarat egiten da prozesio-nea Bestaberri egunarekin.

Orai ezarriko dut Mixel Monaco zenaren familia. Bazituen hamar haur. Horiek dira Therese, esposatua dena Urepelen berean, Baxtandarrainera, eta baditu zazpi seme-alaba.

Marie-Jeanne, ez zen ezkondua eta hila da 60 urtetan, 1977ko Urriaren 3an, Izpurako eritegian, xangrearekin. Bernadette serora da Landesetan, Soustons herrian. Germaine esposatua da Ezterenzubitar batekin. Uharte Garazin bizi dira eta badi-tuzte hiru haur. Mayi esposatua da Ortzaizen, eta horiek ere hiru haur dituzte. Anni, Urepelen berean esposatua, bi haurren ama. Xemartin, bere sort-etxera esposatua, lau haurren aita. Mane, esposatua Irulegi-Etxenikera, hiru haurren aita. Emile, esposatua Ortzaizen, bi haurren aita. Eta Kuantxito, esposatua Urelepen berean Burubeltxainera, hiru haurren aita. Horra Mixel Monaco zenaren familia, Horiek denak ene ama zenaren ilobak.

Gure jendakiaz

Ene amak bazuen anaia bat esposatua bere sort-etxera, Joanes izena zuena. Harek ere bazituen bost seme-alaba. Bat, serora dena Uztaritzeko komentuan. Jean-Baptiste, gazterik hila, 1973ko Azaroaren 25an, bainan hori ez zen esposatua. Guillaume, lau haurren aita, hila da 1999ko Urtarrilean, 76 urtetan. Mixel, oraino bizi dena Urepelen, Arkadian, bost haurren aita. Jeanne, bi aldiz ezkonduzik izana, Kanbon bizi dena.

Ene ama zenak bazuen ahizpa bat, eta harek bazituen bi seme alaba. Horiek dira Joanes Iraztorza, Urepeleko bolanjera, eta haren arreba Marie, Arrosan bizi dena, seme baten ama.

Orai mintzatuko niz delako Joanes-Haundiaineko aitatxi, Esnasu Patxikoinera ezkondu hartaz; erran nahi baitut ene sort-etxera. Gizon harek Mañes zuen izena, eta deitura Etcheverry.

Horiek baziren hameka haurride, bederatzi mutiko eta bi neska. Horien haurridea zen aita xuria Indochinan misionest zen apez hura. Harek Piarres zuen izena. Beste anaia bat bazen Eñaut izena zuena. Gizon horrek bazituen 55 urte Ameriketara eginak; eta, jin zelarik Eskual Herrira alde bat hemen egoiteko, jin zen Patxikoinera, eta hor hil 1957ko Ekainaren

8an, 78 urtetan, xangrearekin. Hori zen gizon bat biziki ixila eta bihotz onekoa. Beste anaia bat, Peio, ardura jiten zen Ameriketatik, itzuliaren egitera. Emaztea Nafartarra zuen, Sunbilla herrikoa, eta bazuten seme bat. Gero bazen Joanes-gazte ize-nekoa. Hori ere horien anaia, esposatua zena Urepele-Inarabiara, eta bazituen bi alaba: Angele eta Irene. Gizon hori hila da 1963ko Abendoan, 88 urtetan. Bazuen arreba bat, Gehexina, Joanes-gazterekin bizi zena. Bainan arreba hori ez zen ezkondua, eta hila da 1962ko Abendoan, 96 urtetan. Beste horren ahizpa, Mariana. Hura Ameriketara hila da. Horien haurrideak badira bi anaia, mendian hilak supituki Ameriketara.

Horra, beraz, ene aitatxi zenaren haurrideak. Horiek denak Urepele Joanes-Haundiaineko familia.

Orai nahi ditut bi hitz erran ene aitaren ama zenaz. Hori etxekoa zen, Patxikoineko etxekoandere xahar zena. Izena zuen Janeta, eta hila da 1971ko Martxoaren 26an, 81 urtetan. Bazituen hamar haur haziak, bere senar zena Mañexekin. Delako amatxi hori alaba bakarra zen. Horren aita Hegoaldekoa omen zen, Teruel herrikoa. Izen-deiturak Koxe-Mari Fuertes.

Ene amaren ama zen Mariana Monaco, sortzez Saroiberry. Emazte hori zen Urepele-Kristobaleneko alaba, Bihurtabuxtanera esposatua, sei haurren ama; eta bera ere zortzi haurridetako familiatik ateratzen zen.

Orai nahi nuke mintzatu ene senar Joanes zenaren kusietaz. Omen zen Arrossagaray izeneko pertsulari bat Ameriketara, Kuan-Kruz Arrossagaray pertsularia, sortzez Luzaidarra, Borddeleko semea. Bainan gizon hori ez dut uste sekula arizan den pertsuka publikoan; bainan izkirioz bai, zeren baitzuen liburu bat egina bere pertsuekin.

Joanes zenaren amatxi Anhautarra zen, Ontzorone Xokoko alaba, esposatua Aintzile-Bentaberrira. Izena zuen Marie Iriberry, eta hila dena 1944ko Otsailean 68 urtetan. Bost haurren ama zen.

Joanesek bazituen hamar kusi bere aita zenaren aldetik. Huna zoin diren. Eiheralarre-Salaberrikoak: Jean-Dominique, etxean dena, bainan ez da ezkondua. Horren arreba bat, Graxiana, ezkondua dena Arnegi-Muxuainera, hiru haurren ama. Beste ahizpa Jeannine, ezkondua Lekornen tindur batekin, seme baten ama.

Huna, berriz, Eiheralarre-Meheteibordakoak: Erramun, etxean dena, berriki esposatua, Eiheralarreko auzapez dena. Beste anaia Beñat, Bidarraiko postako jauna dena, eta hori ez da familiatua. Horien arreba Mariana, Ortzaizen bizi dena, eta hura ere ez da esposatua. Horiek denak Joane-sen aita zenaren aldekoak,

Berriz hasiko niz Joanesen ama zenaren aldekoetan. Alderdi hortarik bazituen 18 kusi: Apezetche arrazatik zortzi eta Soule arrazatik hamar kusi.

Huna Apezetxe familia. Pierrot, Ameriketan dena, ez da familiatua. Peio, bi alaben aita, duela zonbait urte emaztea hila zaikona xangrearekin. Delako Peio hori udan Uhartan egoiten da eta neguan Ameriketan. Beste bat Xavier, bi alaben aita, Ameriketan Chinon bizi dena eta hori ere alargundua dena berriki. Emaztea zuen Therese, Donibane-Iturburuko alaba. Pettan, Ameriketan dena, hiru haurren aita, emaztea Oloronekoa duena. Eta Jean-Pierre, Zaron bizi dena, lau haurren aita, ofizioz hargina, emaztea Ezterenzubi-Eiheraldeko alaba duena, eta etxe berri bat badute egina. Arreba, Gaxuxa, Uharte Elizetxera ezkondua, hiru haurren ama. Mari-Louise, Mimizanen bizi dena, seme baten ama. Eta Therese, ezkondua hiri horietan eta hori ere seme baten ama.

Orai mintzatuko niz Soule familiaz. Beñat, Afrikan egona misionest 40 urtetan, hila. Antton, Izpura-Mendiondora ezkondua, hiru haurren aita. Beste bat Dominique, hura Irisarrin berean ezkondua Madeleine Irigaray Lekunbertarrarekin, lau haurren aita: hiru seme eta alaba bat. Etxe berri bat ere badute egina. Peio, hura ere Irisarrin berean esposatua Mayi Mur-

giart Haltsukoarekin, bainan horiek ez dute haurrik. Jean, esposatua Bordele aldean, bi haurren aita. Bainan hau gazterik hil zen 1985ko urtean, 42 urtetan, supituki. Andre Ameriketetan da; ez da esposatua. Jean-Baptiste; hori ere Ameriketetan da eta baditu hiru alaba.

Orai mintzatuko niz horien arrebetaz. Mayi hil zen 30 urtetan Parisen; ez zen ezkondua. Henriette bizi da Bordele aldean, berriki alarguntsatua, bi haurren ama. Bainan, male-ruski, semea ixtripuz hila 22 urtetan, 1993ko Martxoan. Kattina serora da Mourenx herrian.

Eta oraino ere baditu lau kusi Eiheralarre-Ahuntzainbor-dan. Jean etxean da; ez da familiatua. Gratien, hura artzaina da. Neguan joaiten da bazketara Hazparnera, eta udan egoiten da etxolan, Oilaskoa deitzen den mendian. Ez da ezkondua. Arreba Felixi etxean da; ez da esposatua hori ere. Beste ahizpa, Marie-Jeanne, esposatua da Las-Fiterainera eta lau haurren ama da: bi seme eta bi alaba. Alaba gehiena, Maritxu, esposatua da Irisarrira, hango bereko Roger Etcheversekin, eta badute neskato bat, Leire izena duena.

Beraz, orai mintzatuko niz Joanesen aita zenaren kusietaz. Horiek ziren aita Guillaume Iriberry, Anhauztarra, Belloc-eko komentuan bizi dena. Gero beste anaia bat, Graxien, Ontzorone-Kurutxetara esposatua, zortzi haurren aita. Ameriketetan bi anaia: Piarre eta Mixel. Lehena hila da, bainan bigarren hau bizi da. Ezkondua da. Hango berekoa du emaztea, eta haurrik ez dute. Pattin, Lasan ezkondua eta etxe berri bat egina, bost haurren aita. Gazterik hila zuen emaztea eta bera ere hila da, 1993ko Apirilean, 73 urtetan. Domingo, hori ere Lasan bizi zena, bi seme alaben aita, alargundua zen; eta bera hila da 1998ko Martxoan, 79 urtetan. Beste anaia bat Jean-Pierre, ezkondua Las-Erramunttoine-ra, seme baten aita, hila da 2004ko Apirilean, 77 urtetan. Arreba, Gehexina, aspaldi hila dena, hiru haurren ama. Jeanne eta Marie-Jeanne, Bordelen bizi direnak, bainan biak

alarguntsatuak. Mayi esposatua Baigorriin, Belexi-Kattalinainera, bi seme alaben ama.

Beste kusi batzu oraino: Erramun Iriberry, Lasa-Pekokurutzetara ezkondua, alargundua da eta alaba baten aita da. Eta bazituen beste bi anaia ere: Domingo eta Piarre. Hok biak hilak dira eta ez ziren ezkonduak. Horien arreba Gehexina esposatua zen Lasa-Armanenera. Seme baten ama zen. Duela zonbait urte hilak dira ama semeak. Horra, beraz, Joanesen aita zenaren kusiak.

Kantaldiak

Omenaldi bat egin zioten Xuberon, bere sort-herrian. Etxahun-Iruri koplariari, 1977ko urtean; eta ordion ere egun hartan pertsuka arizan zan ene senar zena. Etxahun zen pertsulari eta xirulari; bainan biziki gehiago arizana zen musika joiten. Bere izen deiturak zituen Pierra Bordazarre, eta hila da 1979ko urtean, 72 urtetan.

Xanpun pertsulari zenari egin zakoten omenaldi bat Urruñan, 1982ko Martxoan. Ordion ere pertsuka arizan zen egun hartan Joanes zena. Beraz, Xanpun zena deitzen zen bere izen deituraz Manuel Sein, eta hila da 2002ko Urtarrilean, 73 urtetan.

Beste omenaldi bat egin zakoten Mattin zenari bere sort-herrian, Ahetzen, 1978ko Apirilean, eta ordion ere arizan zen pertsuka egun hartan ene senar zena. Mattin hila da 1981ko Uztaillean, 66 urtetan.

Gratien Heguy apez zena sartu zelarik apez nagusi 1993ko Martxoaren 7an, Joanes zenak errezebitu zuen apez hori pertsutan Donibane-Garaziko elizan. Heguy jaun apez zena sortzez Ortzaiztarra zen, eta hila da 2000ko Urtarrilean, 53 urtetan, gaitz serio baten ondorioz.

Behin, Donaixtiko kermeza batez ere, kantatu zuen Joanesek. Hori zen 1977ko Apirilean. Ene senar zena, Alexandre Etcheverry Arhantsusikoa eta Beñat Guillemet Donaiztiarra, hiruak arizan ziren pertsutan.

Orhoit niz, ni ere han bainintzan, biziki saio pollita egin zutela eta jendea biziki gustatu zela. Gai emaile zuten oraiko Aldudeko ertora, Jean Etcheverry, zeren apez hori Donaixtin baitzen ordion ertor denbora heietan.

Delako Beñat Guillemet hori biziki kantari ederra zen. Botz ederra zuen. Gizon hori zen oraiko gure jaun ertora Maurice Arhetzen oseba, aspaldi hila dena, eta bi alaben aita zen. Duela zonbait denbora hila da horren emaztea, 96 urtetan.

Ezterenzubin egin zakoten omenaldia Luis Ehuletche apez zenari, 1994 urtean. Ordion ere kantatu zuen Joanesez.

Belloc-eko komentuan kantatu zuen 1982ko Uztailaren 17an, Xanpun eta Mixel Xalbadorrekin. Egun hartan ohoratzen zuten aita Martin Sein, beneditanoa. Xanpun pertsulari zenaren kusi lehena zen apez hori.

Etienne Sallaberry jaun kalonje zenari egin zakoten omenaldi bat bere sort-herrian, eta ordion ere kantatu zuen ene senar zenak. Apez hori zen sortzez Heleta-Garrako semea. Badu urte multxo bat hila dela, 78 urtetan.

Xalbador zenari ere egin zakoten omenaldia bere sort-herrian, Urepelen. Bainan Joanes zena ez zen hor kausitu ahal izan, zeren betarraba sasoinean baitzen Meaux herrian. Xalbador hila da 1976ko Azaroaren 7an, 56 urtetan, bere omenaldi egunean.

Behin kantatu zuen Donazaharreko xaharren bestan, Fermin Mihura Azkaindarrarekin; eta beste aldi batez, Jean-Luis Laka Baigorriarrarekin, Donibane-Garaziko ihauteria batez.

Maurice Arhetz gure jaun ertora jin zelarik lehen aldikotz Aintzileko elizara meza emaitera, ordion ere errezbitu zuen pertsutan. Hori zen 1996ko Buruilean.

Behin batez ere amen bestakari eman zituen pertsu batzu Aintzileko elizan, ama guzien ohoratzeko. Hori zen 1993ko Maiatzean.

Kantatu izan du ere Elizondoko Antxitoinea trinketean. Hori zen xapelgo batez.

Senperen egin zakotelarik omenaldi bat Larreko pertsulariari, ordion ere eman zituen pertsuak haren ohoretan, 1997ko Martxoan. Gizon hori da pertsularia, bainan ixkirioz. Ez da sekula arizan publikoan,

Beste behin ere Hazparnen, mendian, etxola batean, kantatu zuen Mixel Xalbadorrekin. Eta hunen anaia Daniel ere han zen kantatzen. Biziki gustatu zen jendea, eta hori zen 1979ko Ekainean.

Kantatu izan du Senpereko aintziraren inguruan Mendiburu pertsulariarekin. Baigorriko Haritschelar jauna ere han zen.

Zonbait urtez kantatu izan du Mixel Xalbadorrekin Urepele-Anglesainean, xaharren bestan.

Kantatu izan zuen ere Mendiburu pertsulariarekin Aintzileko bestetan, 1984ko urtean.

Anjel Aintziburu Luzaidarrak bazuen ostatu bat atxikitzen zuena, eta behin batez egin zuen familiako besta bat, eta ordion ere ene senar zenak kantatu zuen Ezponda pertsulariarekin. Biziki jendea gustatu zen. Ni ere han nintzan, eta Ezpondaren emaztea, Anita, ere bai. Delako Anjel hori da Luzaideko berri emalea. Emaztea herri berekoa du, Borddeleko alaba.

Lehenago egiten omen zen pertsu saio bat Eiheralarre herrian Salbatore egunarekin. Orduko pertsulariak ziren Xalbador, Mattin, Zubikoa, Xanpun, Ezponda eta Errexil. Ene senar zena oraino gaztea zen eta joaiten omen zen horien entzutera. Beraz, pertsulari horiek denak hilak dira adin gordinean, salbu Ezponda.

Delako Errexil hori bizi zen Urruñan. Sortzez Gipuzkoako Errexildarra zen, eta hortakotz zuten herriaren izenetik deitzen. Bere izen deiturak zituen Koxe-Migel Eizmendi, eta gizon hori hil zen 47 urtetan, barkatzen ez duen gaitzarekin.

Behin batez izan zen pertsu saio bat Aintzilen, Idiarteko sabaian. Hor arizan ziren Joanes zena, Ezponda, Alkat, Mendiburu eta Laka hemendik; hegoaldetik ziren Jon Enbeita eta

Amuriza. Hori zen 1981ko Maiatzaren 24an. Egun hartan zituen ene senar zenak 32 urte betetzen, eta gure haur gehienak, Bernadettek, hamar egun zuen sorturik.

Lehenago ezagutu izan dut Elizondon Mariano Izeta. Hori ere ainitz arduratzen zen pertsularietaz, eta Baztango berriak ere ezartzen zituen kazeta *Herrian*. Hau hila da 85 urtetan.

Garazi aldean bada mendi bat izena duena Biakorri, eta han ezarria da Ama Birjinaren itxura Eiheralarreko ertor zena Cascaratek. Apez hori zen Baigorri-Xihiteiko semea. Urte guzietan Agorrilean emaiten dute meza Andredena Maria horren ondoan Donibane-Garaziko apezek. Beraz, hor ere kantatzen zituen Joanesek zombait pertsu meza denboran, fededunen otoitzean.

Ez naiz orhoitzen zoin pertsulariren omenaldia zen, baina badakit kantatu zuela Goizuetan, 1984ko urtean.

Donazarrek badu kartier bat, izena duena Zabalza; eta han ere egiten dituzte beren bestak. Behin batez kartier hortan, zikiro bestan, kantatu zuten Mendiburuk eta biek. Hori zen 1979ko urtean.

Beste behin ere Xuberon, Santa Madalena kaperaren ondoan, bazen besta bat, eta han ere kantatu zuten Alkatek eta biek.

Alduden ere kantatu izan dute Alkat, Mendiburu, Laka, Mixel Xalbador eta Joanes zenak hemendik; eta hegoaldetik, Azpillaga eta Lopategik. Hori zen 1983ko Maiatzean.

Beste behin, Alduden berean, kantatu zuten ene senar zena, Ezponda, Alkat, Mendiburu, Mixel Xalbador eta Lakak. Hori zen, berriz, 1979 urtean.

Xalbadorren besta egunean ere kantatu izan du Joanesek bere pertsulari lagunekin Urepelen. Lasarte pertsularia ere han zuten. Hori zen 1982ko Azaroan.

Xaharren besta bat izan zen Donibane Garazin, Garatenea ostatuan. Han ere kantatu zuten Ezpondak eta biek. Hori zen 1982ko Maiatzaren 15an.

Beste behin bazen xaharren besta bat Izpuran, Arradoy ostatuan, eta han ere kantatu zuten Ezponda koplariak eta biek.

Ezteietan ere artzen zen kantuz apairu denboran. Horra, beraz, esposatu zelarik Urepele-Kristobaleneko Odile Saroi-berry Iholdiko Charles Jorajuriarekin. Ordion ere arizan zen pertsuka afal denboran. Horiek ezteiak zituzten Arrosan, Hotel Eskualduna, 1978ko Agorrilean.

Beste behin, berriz, esposatu zelarik Urepele-Bihurtabux-tango Jeannette Monaco Bankako Charles Haristoyekin, ordion ere kantatu zituen pertsuak horien ohoretan, eta horiek afaria Arrosan zuten. Hori zen 1983ko Ekainaren 18an.

Esposatu zirelarik Bernadette Saroi-berry, Aldude-Mementako alaba, eta Jean-Pierre Dagarret, Irisartarra, ordion ere eman zituen Joanesez pertsuak. Ezteiak Ortzaizen zituzten Mendi-alde ostatuan. Hori zen 1979ko Buruילaren 22an.

Uharte-Kaminoko gazteak esposatu zirelarik, heien ez-teietan eman zituen pertsuak. Horiek dira Nicole Arraras, Aldudarra, eta Fermin Ahado, Uhartiarra. Ezteiak herrian berean zituzten, Camou ostatuan, 1978ko Buruילaren 2an.

Uda hartan berean ere kausitu zen beste eztei batzuetan. Ordion ere kantatu zuen. Horiek ziren J.-Pierre Grenade, Aintzile-Laxparreko semea, eta Annie Pradaine, Sorapurutarra. Horien ezteiak Azkarate-Iputchaineen ziren, 1978ko Uztailean.

Gertatu ziren beste eztei batzu: Eihalarre-Salaberriko Graxiana St. Peé eta Frantxua Camou, Arnegitarra. Ordion ere kantatu zuen. Ezteiak Arnegi-Clementenean ziren, 1985-ko Agorrilean.

Eta oraino beste eztei batzutan ere bai; kantatu zuen. Horiek ziren Jeannine St. Peé, Salaberriko alaba, eta senarra Lekornekoa. Ezteiak Eihalarren zituzten, Xoko-Goxoa ostatuan, 1980ko Urriaren 18an.

Eta oraino beste eztei batzu: Dominique Soule, Irisartarra, eta Madeleine Irigaray, Lekunbertarra. Ordion ere arizan zen

pertsuka. Ezteiak Larzabaleko Oharan ostatuan zituzten, 1980ko Ekainaren 14an.

Eta azken ezteiak zituen; ordion kantatu zuen. Horiek ziren Marie Antoinette Apezetche eta haren gizona, Donibandarra. Ezteiak zituzten Heletan, Agerraldi salan, 1997ko Apirilaren 5an.

Joanesen kusi batek eman zuen jendakia guziari bazkari bat Ezterenzubiko Artzain-Etxea ostatuan, eta ordion ere arizan zen apairu denboran pertsuka. Gizon hori zen Pierrrot Apezetche, Ameriketara dena, eta ez da ezkondua. Bazkari hori zen 1979ko Azaroaren lehenean, Omia Saindu egunez.

Liburu huntan aipatzen dut aita Chabagno, Esnasu-Xotroineko apeza. Horri egin zakoten besta bat 60 urte apezturik bazuelakotz. Hori zen 1966ko Buruilean, eta hori hila da 1975ko urtean, 96 urtetan.

Beste behin ere egin zakoten besta bat Urepeleko Uharriet jaun ertor zenari, bazuelakotz 38 urte ordukotz Urepelen zela. Hori zen 1963ko Agorrilaren 11an. Apez hori hila da 1972ko Martxoan, 87 urtetan; eta horrek orotara egin ditu 42 urte Urepelen.

Aintzilen bazen espos meza bat: Marie France Bizcaichipy, Ahadoko alaba, eta Philippe Mailharro, Ezterenzubitarra. Horieri ere kantatu zituen Joanesekek pertsuak, bai elizan eta afal denboran ere. Ezteiak Azkarate-Iputchainean zituzten. Hori zen 1995ko Buruilaren 30an.

Gure haurrak

Orai mintzatuko niz gure haurren kominione eta bataioaz. Lau haurrek kominiatua dute Donazaharreko elizan. Han baitira katiximan eta eskolan ere erabiliak, zeren Aintzileko eskola zerratua delakotz.

Kominioneko apairua ere egiten ginuen Donazaharreko ostatu ttipi batean. Hori deitzen da Xoko-Ona ostatua.

Lehen bi hurrek kominiatua dute Donetch apezarekin, eta beste bi hurrek Maurice Arhetz apezarekin.

Bernadettek egina du lehen kominioea 1990ko Maiatzaren 24an, eta fedearen aitormena 1993ko Maiatzaren 20an, eta konfirmatua 1994ko Azaroaren 5an, Heguy jaun apez zenaren eskutik.

Peiok lehen kominioea 1992ko Maiatzaren 28an, eta fedearen aitormena 1995ko Maiatzaren 25an, eta konfirmatua 1996ko Urriaren 27an.

Mixekek lehen kominioea 1994ko Maiatzaren 12an, eta fedearen aitormena 1997ko Maiatzaren 25an, eta konfirmatua 1998ko Azaroaren 29an, Donibane-Garaziko elizan, Joseph Camino Arnegitarraren eskutik.

Peiok, aldiz, konfirmatua du Arnaud Irola Ezterenzubitarraren eskutik.

Elixabetek egina du lehen kominioea 1995ko Maiatzaren 25an, eta fedearen aitormena 1998ko Maiatzaren 31an, eta konfirmatua 1999ko Azaroaren 14an, Pierre Moleres jaun apezpikuaren eskutik.

Bi haur gehienek konfirmatua dute Donazaharreko elizan, eta beste bi hurrek Donibane Garaziko elizan.

Orai mintzatuko niz horien bataioaz. Bernadette bataiatua da 1981ko Ekainaren 18an Sallaberry jaun apezak. Amatxi zuen ene ama zena, Etcheverry Marie; eta aitatxi zuen ene senar zenaren aita, Domingo Arrossagaray. Apairua egin ginuen etxean berean.

Peio bataiatua da 1983ko Urriaren 13an. Hori ere Sallaberry apezak egina da. Aitaxi zuen ene aita, Etcheverry Jean-Baptiste, eta amatxi Joanesen ama, Mariana Arrossagaray. Apairua egin ginuen Eihalarre Xoko-Goxoa osatuan.

Gero, hirugarren haurra, Mixel, bataiatua da 1985ko Azaroaren 19an, Paris jaun apezak. Amatxi du ene kusi bat, Irisarri bizi dena, Bernadette Dagorret; eta aitaxi, aitaren

aldeko kusi bat, Dominique Soule, hori ere Irisarrin bizi dena. Apairua egin ginuen Aintzileko ostatuan.

Gero azkena, Elizabet, hori ere Paris apezak bataiatua da, 1986ko Abendoaren 10an; eta apairua, beti bezala, Pecoitz ostatuan, Aintzilen. Amatxi du Joanesen kusi bat, Marie Jeanne Bordato, Lasan bizi dena; eta aitatxi, aldiz, ene kusi bat, Battitte Etcheverry, Baigorri bizi dena.

Joanesen aita Ameriketara

Beste gauza bat ere behar dut aipatu. Ene senar zenak 9 urte zituelarik, horren aita Domingori joan behartu izan zitzai-kon Ameriketara diru puxka bat egitera. Han egon zen artzain 1958tik eta 1960ko urtea artio. Etxean utzi zituen emaztea, haurra eta bere aita xaharra; eta, hori Ameriketara zelarik, hil zitzaion bere aita 85 urtetan, 1959ko Apirilaren lehenean.

Beraz, handik ekarri sosarekin eman zuen etxe partea hiru arreberi eta anaiari. Gero, gainera, egin zuen barruki berria, zeren behiak denak errezelatiak baitzituen. Borda berri bat ere egin zuen, handik ekarri diru puxkarekin.

Hori Ameriketara zen artean, emazteak erabili zuen etxal-dea ahal bezala, langileak erabiliz; eta auzoak ere onak zituen laguntzeko uroski. Orai baino jende gehiago baitzen hemengo etxetan.

Denbora heietan denek badakigu eskuz egiten zirela gure etxetako lan puxkak. Ez baitzen oraiko tresnarik. Doi doia belar pikatzeko tresna bakarrik, eta oraino kontent ginen horien ukaiteaz. Ene sortetxean ere aita zenak ezarri zuen belar pikatzeko tresna, 1957ko Uztailean, Aldudeko arotzari erosirik. Delako arotz hori zen Albert Uhalde, Makearra, Alduden arozgoan arizana, 2005ko urtean zendua dena 81 urtetan.

Beste gauza bat ere badut erraiteko. 1954ko primaderan egon ziren hiru gizon ene sortetxean, Patxikoinean, Hegoal-dekoak hiruak, mando zainak, Baigorri-Bidartendako artzen

zirenak mandoekin oihanean, egur ateratzen; eta gizon horiek pentsionea ene sortetxean zuten.

Huna horien hiruen izenak: Pedro, Baztango Elizondokoa, aspaldi zendua dena. Gero Erramun, Erratzuarra, Zuraiden bizi dena eta ezkondua dena Mayi Etchelar Urepeldar batekin. Bi seme alaba dituzte. Eta hirugarren gizona Eulalio Legarra, gazterik hila dena 54 urtetan, 1965ko Urriaren 12an. Utzi zituen bi seme alaba ttipiak, mutikoak 10 urte eta nexkak 9 urte. Delako Eulalio hori esposatua zen Esnasu-Nikolase-nera. Emaztea Kattin Zubiri, oraino bizi dena 92garren urtean.

Orroitzen naiz nola joaiten ginen mendiz Elizondora. Han egun bat goxoa pasatzen ginuen. Lau lagun ginen elgarrekin joaiten ginenak: Abandoineko senar emazteak, Anita eta Jean Pierre, beren alaba Nikolekin. Bainan horiek, senaz emazteak, aspaldi zenduak dira: Anita 50 urtetan 1976ko Urrian, eta senarra. Jean Pierre, 62 urtetan, 1974ko Azaroan.

Beste pidaia bat ere behar dut aipatu. 2005ko Martxoaren 28an. Esnasutik barna izanak gira hiru ama semeak, bisitatzen gintuela Eugi, Urtasun eta Zubiri. Jo ginuen aitzina Iruñeraino.

2003ko Maiatzaren 18an izan ginen, hiru ama semeak ordion ere, Urepelen gaindi Sorogain mendian pasatuz, bisitatu z Auritzberri, Auritze, Orria; eta Luzaiden gaindi jin ginen etxera. Hiruak ere biziki gustatu ginen. Hegoaldean ere leku ederrak badira. Iparraldean baino bide ederragoak eta hobeak dira.

Ene senar zenarekin ere joaiten ginen urte guzietan, haur zombait gurekin eremaiten gintuela, Ahuzki mendira. Ostatu bat bada han eta bertan bazkaiten ginuen. Untsa emaiten dute jate-ra. Gero, han bada iturri famatu bat. Biziki ur ona da edateko.

Iratiko mendira ere joaiten ginen urte guzietan. Han ere biziki leku ederra da.

2000ko Urrian ere izan ginen Baigorri gaindi, Izpegiko lepotik barna, Erratzun eta Elizondon. Alaba gehiena, Bernadette, ginuen auto gidatzailea. Semea Peio, alaba gaztena Elixabet eta ni, lauak ginen.

Esker mila

Horra, beraz, ene lana jadanik egina. 2004ko Azaroaren 13an izan zitzauzkitan bi apez, erranez nola nahi zuten Joanes zenaren liburua atera bere pertsuekin; eta beste lan ttipi bat galdegin zautaten hea nik ere aitzin solasa bat eginen nuenetz. Lan hori gogotik hitzeman nuen bi apezari.

Hasi nintzalarik aitzin solasaren egiten, ez nuen gauza haundirik buruan. Bainan gero ixkiria doi jin zauzkit gogora hemen ezarri dituan gauza hok denak.

Beraz, lehen erran bezala, apez horiek dira Emile Larre, Baigorri-Belarreko semea, Donibane Garaziko apez multxoan lan egiten duena bere 80 urterekin; eta bertze apeza, aldiz, da Aita Antonio Zavala, gipuzkoarra, Xabierren bizi dena.

Horra, beraz, irakurle maiteak, nola egin dutan aintzin solas hau. Bihotzetik derautzuet esker mila haundi bat liburu hau irakurtzen duten guzieri.

Mayi Arrossagaray

(Joanes Arrossagaray pertsularia
zenaren espos laguna.)

Arrossagaray... herriaren maitez

Jean Arrossagaray pertsulariari egin elgar izketa hau Herria astekaritan agertu zen, 1979-ko urtarrilaren 4-an, Itxaro delako batek sinatuta.

Ez! Ez zaitkeen bertsularitza Mattin eta Xalbadorrekin geldi, ipar honetan ere. J. Arrossagaray aintzildarra gazteentarik bat dugu plazetan... ez haatik agian azkena. Bego hemen bera Itxarorekin solasean.

–*Arrossagaray, nor zira?*

–Ni naiz laborari seme bat, etxalde ttipi batean sortua naizena, eta geroztik aitamen segida hartu izan dutana. Beti laborantzari ari naiz eta pentsatzen dut engoitik ene bizia hola iraganen zaitala.

–*Noiztik daukazu pertsutarako nahikeria hori?*

–Orroitzen naiz 16 urte nituelarik, ene barnean senditu nuela holako pertsutarako dohain edo pusa berezi bat, eta orduan hasi nintzan zerbait egin nahiz herri maitearen alde...

–*Nola hasi zinen eta norekin?*

–Ahal bezala hasi nintzan ikertu nahiz dohain berezi horrek zaukan mamia nundik heldu zen. Laguntzat ordu heietan naukana hau zen: orai 68 urte dituen auzoko gizon batekin, hau deitzen da Batixta Gorostiague laborari eta artzaina.

Gure etxetik ez urrun zuten borda batean atxikitzen zituzten ardiak eta ni ahal nuen guziez nindoan delako Batixta horren gana, horrekin zerbait ikasi nahiz, biziki pertsulari pollita zen memento hartan, eta ni loriatzen nintzan harekin.

Orai doi bat ahantztoratua du pertsu kantatzea eta geroztik ez dakot bat bera kanta arazten ahal. Horra beraz ene pertsuko lehenbiziko urratsa. Eskerrak Batixtari!

Pertsuak idazten ditut, bai, eta okasione frangotan. Orai artean ainitz idatzi izan ditut alegiazko gaietan... Bainan ohar-tu naiz, eta oraino ez du aspaldi, egiazko gai batean egin pertsuek ainitz gehiago balio dutela. Gertatzen zaizkitzun gauza

batzu pertsutan emaita hori da zinezko pertsulari baten egin-
kizun baliosa...

*–Bai eta Eskual Herria eta pertsularitza biak batean joai-
ten ahal direa?*

–Segur baietz, eta erranen dut zergatik. Pertsularitza eta
Euskal Herria nik anaitzat ekartzen ditut, zeren eta Euskal
Herriaren mezulari lehena pertsua baita. Horren medioz kon-
preni arazten baita ainitz jenderi beste gisan konpreni araz ez
ditaiken solas behar eta balios frango, herriaren onetan!

–Arrossagaray, geroa nolakoa duzu ikusten?

–Geroa nolakoa den ainitz gaietan erran ditaike. Bainan
bat hartu behar eta, hau agertuko dut: eman dezagun gure hiz-
kuntza euskararen mailean...

Lehen doi bat esperantza galdua nuen, baina orai ikusten
dut ainitz gazte berriz euskaraz mintzo aditzen direla eta hori
da ene ustez gero on baten hastapena, segitzen bada... Zer
zoriona, sortu den odolak adieraztea bere mintzoa!

*–Laborantza eta bertsularitza berriz, lotuak direa zure
kasuan?*

–Bai eni segurik lotuak zaizkit eta huna zergatik: laboran-
tzan, lanean ari delarik, ainitz pentsamendu heldu zaio gizo-
nari gogora, eta pertsulari bati maizenik pertsua zaio etortzen
gogora. Ofizio hortan ez baita beste edozointan bezenbat buru
hauste, hortakotz dira pertsulari gehienak laborari seme edo
alabetarik ateratzen.

*–Urte askoz Frantziaren iparrean “beterrabetan” ibili
zira sasoin egiten. Zuretzat beraz “lana herrian” oihuek
oihartzun berezi bat daukate. Zergatik hori?*

–Lana herrian ez delakoan eta denen lekuri ez, ainitz
gazte ikusi eta ikusten dugu Euskaditik kanpo doatzila, eta
hori zergatik? Ba dakizu hemen lantegirik ez dago, eta hori
noren falta? Funtsean bego hortan...

Estakuru frango dabila, batean ez dela lurrik aski eta zon-
bat hitz holako entzuten den gaurko egunean, bainan egin
ahala nork egiten? Nehorek ez; solas frango... bainan nun dira

obrak?... Indar egiteko ere nehozi ezin fida! Hau da gaur egu-
neko izaite eta molde deitoragarria; pobre sortu denak pobre
hiltzeko maneran iraunen du!

*–Zure galditzak jende xume guzieren ahoetan daude eta bai
nerean ere. Bada horietan oldartzeko mamia. Bainan diozun
bezala, bego hortan. Bertsu bat kantatzen ahal didazu gure
irakurleentzat?*

–Haurtxo ttipiak, nahi dut egun
zuer goraki mintzatu,
aitamak nola mintzaten diren
hori ontsa eskutatu;
geroko gazte guzieren hau
behar duket gomendatu:
erdara ikas baina euskara
ahantzterik ez pentsatu!

–Euskara, beti euskara pertsularien axola?

–Bai!

–Eskerrik asko, Joanes Arrossagaray...

Pertsuak

Jaun apezpikuari

Airea: Lili bat ikusi dut.

1
Laudorio, ohore, jaun apezpikua,
Jainkoaren ordaintzat zu segurtatua;
fede handia duzu, indar handikoa,
luzaz egon zaitela diozesan gakoa.

2
Bihotz onezkoa zen zuk egin bisita,
artzainak agertzen du artaldeaz arta;
guri atxikitzeko girixtino planta,
gaztek dezaten beti federekin kanta.

3
Jaun merak dautzularik in bere agurra,
serioski diozu behatu begira,
irriño bat zautzula jin ezpainetara,
bururatzearekin mintzaldi ederra.

4
Zu gizon alegera dena amodio,
zure ahoko hitzak, bai, egia dio;
berritz ere dautzut nik zuri laudorio,
zu entzuteak baitu eman bozkario.

«Lehenbiziko ene pertsuak».
Egilearen andreak idatzi kahierra

Herioaren orena

Frantxua Senpertar zenari

Airea: Lurraren pean sar nindaiteke.

1

Jakin zazue guziek egun pena haunditan nagola,
bihotzez maite naukan laguna itzali delakotz hola;
ezin bertzea etorri zaiko herioarekin bila,
lanerat abiatu zinen zu etortzekotan gibela,
ez baitzinuen pentsatzen nehoiz hor geldituko zinela.

2

Ibai itsaso lanjerosean galdurik zure bizia,
bertze munduan Jainkoak eman dezazula hor grazia;
konpaini guzia duzulakotz xangrin osoan utzia,
pentsatu gabedanikan duzu arima're berexia,
Eskual Herrian hazia zinen hemen eiteko hiltzia.

3

Elgarrekilan jaten ginuen anai batzuek bezala,
nehork ez asmatu holakorik hor gerta're zitakela;
mundutik denek joan beharko galdea ukan bezala,
xangrin dorpeaz baigaude oro trixtaturikan horrela,
pentsatuz bide bera guziek hartu beharko dugula.

4

Zutarik ez ginuen arrazoin leialik baizik aditzen,
eskuara garbikoa izanki eta ongi konprenitzen;
zur'amodioa bihotzetan barnasko sartua baitzen,
geroztik hunat jende guzia penazko nigarretan zen,
ikusiz hoin denbora laburrez eskualdun anai bat galtzen.

5

Plazerraren penak bazirela beti izan dut aditze,
gutartean gertatzen delakotz kolpeño bat edo bertze;
uste gabez herio dorpea etortzen e zauku aise,
nahiz urtzoak diren bezala pasaia batez gabiltze,
tenorea etortzen denean xahar gaztentzat partitze.

6

Heriotze malurusa bila trixteki izan zautzula,
behin betikotz geldi arazi zainetan zagon odola;
gorputzak utzi're zaitu nola hostoak bere arbola,
Frantxua, galde berezi suharra egiten dautzut horrela:
azken orenean otoi denak salba araz gaitzazula.

Egilearen emazteak idatzi kahierra
Herria, 1970.02.05

Sukreriatic Eskual Herria maitez

Airea: Pertsularien bat.

1

Ilabete bat badu etxetik urrun naizela joana,
egun guzietz atxemaiten dut betarrabak daukan lana;
osagarrian izanez geroz gorputza eta arima,
nun nahi berdin aise bizi da jende suhar eskualduna.

2

Ehun ta zonbait eskualdun gira sukrerian elgarrekin,
egun guziak abian dira beren on eta gaitzekin;
bainan bihotzak atxikiz beti atsegin hoberenekin,
eskual kantua ez dira nehoiz setiatuko gurekin.

3

Batean gauaz, bertzean berriz lanean ari egunaz,
pleñitzekorik ez daukat segur egina dautaten planaz;
gogotik ari bada jendea lanean ta omor onaz,
ez du sekulan urrikirika izanen egin duenaz.

4

Sukrea frango egiten da ta saltzen dituzte bakarrak,
geroan ere izan ditezen oraino bezain azkarrak;
huntaz haziak izan ditela eskual herritako haurrak,
eskualdunek in lanak baititu bere gisako indarrak.

5

Egia beti gogoan daukat ta ertea ez herabe,
sukrea ainitz jatea uste dut denek duketen hobe;
kafe ta esne egun guzietz jendeak edanik ere,
gosturik bate ez da kausitzen sukrerian eman gabe.

6

Eskual Herriko gazte guzier aipatu behar dutana:
mutil sartzea laboraritan ez da joko abilena;
nai baduzue pasatu urte trankil eta urosena,
aitor dautzuet: sukrerietan egin azue sasoina.

7

Gaztea frango bagira hemen Eskual Herriko xokotik,
guziek elgar aditzen dugu mintzatuz mintzair beretik;
bainan gauza bat dugu gaixtoa, erten dautzuet oraitik:
gure sort-herri maite goxoa ezin kendua gogotik.

8

Bainan hargatik badugu beti zerbait denen ahanzteko,
mañetofona gure kantuen behar bezala biltzeko;
hori daukagu plazer osoan denen atxik arazteko,
ainixko pertsu entzuten dute gero nitaz orroitzeko.

9

Azken pertsua oraino hemen finitu behar dut hola,
eskualdun garbi atxikiz beti bihotz barneko odola;
lagun onekin izana gatik errege banintz bezala,
Aintzila herri ta Aintzildarrak ez tut ahanzten sekula.

Egilearen andreak idatzi kahierra
Herria, 1970.11.05

Xalbadorri agur bat

Airea: Nere herritik izan ditudan paper batzuek diote.

1

Martxoko hogoi eta lauean pertsutan nago hastera,
Xalbadorri're egin nahian neure pertsuzko agurra;
Eskual Herrian emanik dago eskuarari sail ederra,
hori bezala beste bat nundik behar ginduke atera?

2

Jainkoak eman dautzu kuraia eta talendu bat gaitza,
gu ere zerbait egin nahian gaztedanikan gabiltza;
zuk baitakizu lagun guziak bihotzez nola zerbitza,
otoi gazteri emaguzu zuk talendua eta hitza.

3

Zure hitzekin huntaratu naiz, aitortzen dautzut egia,
zure gisan nik desira nuke hartzea pertsu plegia;
egundaino ez zira zu izan tranpetan gizon nagia,
pertsuari're bazinakien emaiten zuzen bidia.

4

Eskualdun seme, Urepelen hor hazia izan zirena,
betidanikan segitu duzu Jainkoak eman dohaina,
hegoan eta iparran ongi ezagutu dautzutena;
ez dadiela sekulan ixil merezi duzun omena.

5

Egia frango erraiten duzu zure pertsu guzietan,
hortakotz gaude zuk utziz geroz jarriak denak penetan;
zure beharra baginuen guk pertsuen edertzekotan,
Jainkoak laster senda zaitzala berriz ere hastekotan.

6

Bidarra hontan gertatu ginen zurekin lehen aldian,
elgarri pertsu emaiten arizan ginen plazer bat handian;
multxo pollita denetarik han gertatu ginen ordian,
geroztik hunat pertsua baizik ez daukat nere burian.

7

Erramundeian baiginuen guk plazerrez egin bilkura,
oraino ere usu buruan dut orduko egun hura;
berriz e banu zuekin xantza gertatzeko're ardura,
gogotik etor nindaike berriz galdatzen nuten lekura.

8

Idea gaitza badut ordutik hunat pertsuarendako,
eta zuk erran zinautan hitza nehoiz ez dut ahantziko:
bakartasuna zela hobena pertsuaren ikasteko,
froga horiek egiak dira, orai dautzut aitortuko.

9

Zonbait eginik baduzu segur Eskuak Herriko xokotan,
zure talendu hori ezagun zen hoberena denetan;
Eskual Herriko bigarrena're zira pertsuko lanetan,
Jainkoak dohain beraz sustenga gaitzala behar ordutan.

10

Bururutzen dut zuri erranez hemen azken parabola,
neure pertsuak ta goraintziak igortzen daukizut hola:
ez dezagula utz makurtzerat xuxenik dagon arbola,
behar litake garbi atxiki pertsularien odola.

24-03-1970

Egilearen andreak idatzi kahierra

Herria, 1970-04-23

Alkat lagunari agur bat

Doinua: Agur, adixkidea, Jainkoak egun on.

1

Agur eta ohore, nere lagun Alkat,
bihotzean pertsuak zuretzat badauzkat.
Dohain bat baderautzu emana Jainkoak.
Flore berdean kusiz landare pollit bat,
Iholdik atsegin du, iduritzen zautat.

2

Elgar ezagutziak badu hiru urte.
geroztik bihotzez guk elgar dugu maite.
Hogoi urte aldean, adinean gazte,
esperantza ederrez hartuak nik uste,
kantuz ariko gira, bai, ezindu arte.

3

Dohain ederra duzu, egia erteko,
orai beretik ona baita agertzeko.
Baduzu zuk kuraia ongi segitzeko,
zer-nahi gerta ere zure sustenguko,
ih-ahal guzia dut beti agertuko.

4

Dohain horrek baigitu ezarri josirik,
geroztik hunat segur ez daukat dolurik,
segitzen dugun bide zuzena harturik.
Gogotik ar gitela huni pentsaturik:
pertsuak ez duela izanen galtzerik.

5

Alkat laguna, beti egon zaite azkar,
hemendik goiti biek lagun zagun elgar.
Oraino erakusten badugu ainitz gar,
gure pertsuak hola emanen du indar,
pratikan egoiteko egun eta bihar.

6

Segitzen zira ere galdegin plazetan,
zure boz eder hori agertuz denetan.
Hola agertuz beti Eskual Herrietan,
plazer osoa duzu emanen jendetan,
gauza ederragorik ez dago gaztetan.

7

Zure agertze horrek, nola iguzkia,
argi dezala argi eskualdun begia.
Bide zuzen onean harturik plegia,
zaude berdin azkarrik uda ta negia,
ongi sustatuz eman bihotzer egia.

8

Azkeneko pertsua finitzen dut orai,
geiago emaiteko kasetan ez niz gai.
Lagun maitea, beti izan zaite arrai,
azken hitzean hau dut oraindik erran nai,
beti fidel egonen naiz Arrossagaray.

Herria, 1970.07.9

Luis Mariano kantari zenari

Airea: Aita et'ama.

1

Pertsu berriak agertu ditut penaz beterik bihotza,
Luis Mariano kantari onak galdurik betikotz botza.
Behin betikotz utzi gaituzu deneri eman ez lotsa,
orhoit araziz ez dela hemen betiereko egoitza.

2

Arimak berriz zero gainerat eman berekin dohaina,
munduan egin daukuzu beti harek gomendatu lana.
Zure denbora uste gabean izan baita iragana,
bihotz barnetik iten dautzugu lagun orok otoitz bana.

3

Mundu huntako denbora dugu guziek laster betia,
denen burian segurra baita denak hementik juaitia.
Aberats ala pobre guziek zeruan dugu lekia,
makurtu gabe segi dezagun xuxenik doan bidia.

4

Zure itzaltze lazarri horrek egiten derauku pena,
oino kantuak bizi dira ta zuhaur lurretik juana.
Ez da geiago entzunen zure boz eder eta leguna,
zuhaur ixildu zirade bainan hemen da orroitzapena.

5

Entzule lagun guziak orai utzi dituzu maluros,
jendea frango gustatzen baitzen zure kantu eder oroz.
Iguzkia-re itzaltzen baita arrastiritzeaz geroz,
molde berean itzali zira maluroski sekulakotz.

6

Entsegu frango mundu barnean baduzte segur eginak,
argizarirat gandi heltzeko ideian zituzten tresnak.
Bainan izanik ere lurrean diren gizon abilenak,
hiltzerat uzten dituzte hale kanzerrak hartu presunak.

7

Zilo handia egin daukuzu partitzean gutartetik,
gu ere noizbait jinen girade, adixkidea, ondotik.
Artean tronpa ez dadin nehor zuzenik doan bidetik,
otoitz kartsu bat denentzat otoi egin aguzu zerutik.

Herria, 1970.07.30

Pertsulari gazte baten gogoetak

Alkat lagunari errepostu

Airea: Lurraren pean.

(Alkat eta Arrossagaray, gure 20 urteko bi pertsulari gazteak, arras eza-gunak ditugu kaseta huntan. Lehen horrek berriki egiten zion bertzeari galdea heian egia zen Ameriketarat zoala eta zer egin behar zuen pertsularigoak gazteak hola joanez. Huna zer ihardesten dion J. A.k.)

1

Pertsu berriak ateratzen tut, halako baitut sujeta,
pentsaketan naiz nere lagunak solas on batzu erranta.
Geroztik hunat egiten dut nik Eskual Herriaz gogoeta,
ez da pertsua finituko, ez, ni hemendik joan eta,
ezin kendua baita gogotik Jainkoak eman potreta.

2

Pertsu dohaina ukan dut behin, Ernest Alkat, zuk bezala,
ez pentsa gero hasi sail hori hola utziko dutala.
Behin betikotz aitortzen dautzut hau nerekilan dagola,
entseatuko naiz argitzera pertsulariaren saila,
ikusten baitut gaztetan orai hanbat guti sortzen dela.

3

Lehen baziren pertsulariak Eskual Herrian metaka,
bainan oraino den gauz bakarra da dantza eta pilota.
Norbait hastean konpainietan bere gostura pertsuka,
batzu trufatzen eta bertzeak artzen dirade oihuka;
gazte lagunak, eskual odola otoi sekulan ez uka.

4

Libertimendu frango lenago egiten zen herrietan,
herria hanbat maite zutenak ainitz bazen xaharretan.
Meza ondoan ala bezperak erranta frango pilotan,
neskatxak berriz launazka berdin artzen zirenak billetan,
holakorikan geiago ez da ikusten gure plazetan.

5

Molde berean kantariz ere bete zauden ostatuak,
kurritzeko-re falta baitziren orai ditugun autoak.
Pertsuarentzat ere baziren behatzaile nahikoak,
orai joanak dira segurki moda eder ordukoak,
estimu guti dauka gaztekin pertsulari mutikoak.

6

Alkat laguna, zertako bada hartzen duzu nitaz pena?
Kontsolatu naiz, nahiz banoan sor lekutik kanpo dena.
Ameiketarat ari nizala ez naiz izanen lehena,
nere zorteak hola ukana du sortzetikan ordena,
kontsolatzeko erdi nigarrez kausitzen den eskualduna.

7

Gizonak gazte delarik egin behar ditu ba indarrak,
gero zahartzen denean ditzan pasa memento ederrak.
Bizi huntarat jinak baigira ikusteko on ta txarrak,
mundu hunetan ez bagintza gu sekulan hunki beharrak,
lanikan gabe bizi laizkenak balaizke naski bakarrak.

8

Eskual Herrian egon nintake segurki hanbat gogotik,
faltatzen zaukun dirua bera etor baladi nunbaitik.
Esperantzarik ez dut batere bizitzeaz gaur pertsutik,
Adami ere zion Jainkoak erran bekatuen gatik:
«Zure bizia eginen duzu gostako zautzun lanetik».

9

Nere herritik urrun beharko baitut gazterik partitu,
gisa huntako kasua neri oraiko zeraut gertatu.
Pertsu maitasun hori gogoan nahi dut ba begiratu.
Alkat maitea, huntaz beharra zaitut betikotz argitu:
nere ordezeko arbola zira, kobla ez daike suntsitu.

10

Dener bezala partitze horrek emanen baiteraut latza,
ez nintzan harat joanen segur izan banintz aberatsa.
Urosago han izaiteko ni noala hori ez pentsa,
Ameriketan izana gatik arima ala gorputza,
sortu etxean utziko ditut gogoia eta bihotza.

(Nola ez har eskualdun orok parte hola gazten griñetan! Zonbaitek erranen dute urruntzen diren gazteak gogoia arin joaiten direla. Holako bi gazte kausitzen direlarik, beren buruaz bezenbat eskuararen griñaz hartuak, merezi dute segur heien bihotzeko kezka zoin diren agertzea, eta hetan bertze batzuek ere parte hartzea. Azken berrien arabera ba omen du J. A.-k hemen gelditzeko zerbait mentura. Agian ba!)

Herria, 1971.01.14

Aintzileko Ama Birjinari ohore

Airea: Pertsularien bat.

1

Zeruko Amaz hartzen dut egun pertsu hauetan sujeta,
haren seme bat koplari orai izaitea zerbait baita;
goretsi nahi zaitut aspaldi hori merezi duzu-ta,
zure itxura xaharra gogoz dezaket egun espanta.

2

Sei mende hurbil badu nunbait-han zure itxura dugula,
ez da dudarik potret guzitan xahartuena dagola;
Lurdatik landa ohartu nintzan estimatuz zaukatela,
eskual kasetan ez baitzitaken agertuko, ez, bestela.

3

Artegiet jaun erretor ohi haren denboretan naski
ganer batean potret xahar hau omen zagoena gaizki;
jaun erretorak ta Anna Laudy-k apaindurik hain garbiki,
gure elizan ezarri zuten tronuan hanbat polliki.

4

Geroztik hunat izana duzu gure elizan estimu,
ordainez otoi zero gainetik begira gaitzazu fermu;
adi-zkitzu zuk bake eskasez diraden ainisko pleinu,
gaixtakeriak suntsi litazke fede geiago baginu.

5

Ama Birjina dugu Aintzildar jende guzien patroina,
herri ttipia izana gatik zuhauk onesten duzuna;
guzien partez huna erteko neri gelditzen zautana:
azken oreña jiten denean onhar gaitzazu zu gana.

6

Igande oroz zuri begira bihotza zauku xoratzen,
zu Erregina ikusiz guri nola daukuzun behatzen;
gure otoitzak agian ongi ahal duzketzu aditzen,
itxura hor da ta zuhaur ere etzira urrun ibiltzen.

7

Eskuin eskuan emana duzu galdu gaituen fruitua,
salatzen dauku nola mazteak galdu zeraukun mundua;
segitu balitz tentazionez hasia zuen gudua,
jende guzia ordu beretik izanen zaiken galdua.

8

Beste eskuan duzu beharrik zure Seme dibinoa,
horren medioz itzali baitzen etsai tzarraren lana;
ixuri duen odolarekin garbitu zaukun gogoa,
akabo baitzen bestela gure atseginezko geroa.

9

Ama Birjinak salbatu gaitu bere Semeain bitartez,
gure odolaz zinen andre bat, baitzinen zuhauren jitez;
Kristoren Ama agertu zinen Jainko Aitaren bitartez,
nahi baitzuen Ebaren falta estali birjina batez.

10

Herri guzian izenean gaur egiten dautzut oihua,
bakarra zira daukazula zuk Birjina Saindu gradua;
egizu otoi zure besotan izan dezagun goxua,
eternitate guzian denek gozatuz parabisua.

Jean Arrossagaray
Herria, 1971.05.06

Eskual Herriari ikus arte

Airea: Loreak udan ihintza bezala.

1

Eskual Herria ezin ahantziz hasten naiz egun pertsutan,
jakin zazuen nola nabilan eta zer bizi modutan;
lau ilabete jada baditut inak Lurdako lurretan,
goizean goizik jeikitzen eta berant etzanez atsetan.

2

Untzi ikuzten ari naiz eta ustez aberastekotan,
bainan ez zeraut iduri nehoiz izaiterik pondu hortan;
lana maitatzen duenarentzat bada eskualde orotan,
bainan gibelka dagonarentzat min egiten du eskutan.

3

Laguna frango ikusten ditut garaztarrak eta beste,
erten dautate: «Hemen lanean artzeko behar dik gazte».
Zeruko Jaunak maiten badauku dagon tokitik suerte,
Eskual Herria nai dugu gero aberastasunez bete.

4

Beste gauza bat erran behar dut zer aditu izan dudan:
«Laborariak etxetik kanpo nolaz zabiltzate udan?
Zuen etxeak ez dira nasai emaiten oraiko modan,
lurrak aberats bazinintuzte ez zinintazkete Lurdan».

5

Errepostua eman nion ta segur dudarikan gabe:
«Sasoin iteaz, lagun maitea, ez daukat gero herabe;
etxe ttipiak tiratzen batu estalgiak bere alde,
entseatzen den bat daike izan geroan zerbaiten jabe».

6

Ainitz xaharrek diote gaztek ez dugula segidarik,
aise partitzen garela lurra eta aitamak utzirik;
bainan konpreni zazue otoi, mintzatu aintzin hortarik:
gure etxaldek izan dutea nehoiz holako kargarik?

7

Lagun maiteak ez pentsa gero beti dugula atsegin,
asko mementoz badugu ere nun josta eta zer egin;
behar denian dirurik aski izan baladi Euskadin,
ez ginintazke Lurdako hotel hauen esku makiltzat jin.

8

Birjina ona, hemen zaitugu eskualdun ta denen Ama,
sortuz geroztik entzun izan dut nola deraukazun fama;
mirakuluak iten tuzula beti zabilan omena,
enbalitu bat duzu berriki oinen gainean emana.

9

Leku ederra hautatu duzu agertu zinen tokia,
egun guziet zure otoizten grotan dabila jendia;
ene partetik, Ama Birjina, egiten dautzut galdia:
Eskual Herrian heda dezazun egun oroko bakia.

10

Kurri gabilta gaztean nahiz gero hori segurtatu,
ez pentsa gero sortu-lekua nahi dugula kitatu;
Eskual Herrian landaretzea, horrek parerikan ez tu,
etxean piztu bihotza nahi nuke hor dadin gelditu.

11

Pertsu hauetan ez dut agian nehor sobera kolpatzen,
bainan egiak bide zuzena baizik ez dauku agertzen;
enkas norbaiti nik erran hitz hok bazaizko hanbat gaitzitzen,
errepostua eman dezadan gogotik dakot galdatzen.

12

Azken pertsua emanez orai huntan beharko dut utzi,
zertsu moldetan bizi zarezte, Aintzila eta Garazi?
Apart izana gatik ez pentsa zaituztedala ahantzi,
ikus artio dautzuet eta bihotz erditik goraintzi.

Egilearen andreak idatzi kahierra
Herria, 1971-eko aboztuaren 12-an

Mattinen omenaldia

Airea: Ttiki ttikitik.

1

Mila bedatzi ehun hirugoi hamabiko urtarrila,
sujet ederrak gogo barnean egun baderauzkat mila;
Donostiako besta ederraz nola ez dezaket bila?
Holako egun xoragarri bat berriz e gerta dadila.

2

Hamaseian zen delako erran dutan besta eder hori,
ordu artean nik ez nakien kobla zoin zitaken jori;
hamabi ziren Mattin agurtuz harat direnak etorri,
omenalditan ederragorik egin duteia nehori?

3

Agurra egin ondoan denak kanpora ginen atera,
zombait denbora elgarrekilan ezagutzen egitera,
memento batez pertsulariak utziz ongi pausatzeraz;
bigarreneko hori finituz joan ginen bazkaitera.

4

Urbia deitzen den ostatuan eman dute bazkaria,
memento gutiz bildu da jende oste ikaragarria;
nasaiki bazen dener emana jana eta edaria,
oraino ezin ahantziz nago, hain zen estimagarria.

5

Holako egun ederrik ez dut ikusi sortuz geroztik,
miresgarri da nola jendeak entzuten tuen gogotik;
pertsulariak kantuz hastean denak ixilik albotik,
sagu bat ere entzun litake pasa baladi ondotik.

6

Bazkaldu-eta jendetan bazen grazia eta omore,
pertsu maiterat deitu gaituzte eginez asko ohore,
erranez nola behar dituzten pertsulariak gero're,
Euskal Herriak izan dezaten orai bezenbat podore.

7

Orroitgarria enetzat hura, egun hartan egin dena,
lehenbiziko ikusi dutan omenaldi ederrena;
hori gertatu da Donostian, lapurtar seme batena,
Ahetze herri xoragarrian bizi zaukun Mattinena.

8

Mattin berari zor diozkat gaur ene partez goresmenak,
ez baitira, ez, nolanaikoak horrek egin dituenak:
Euskal Herrian tu kontsolatu zori txarrean zaudenak,
eta frangotan ahantz arazi bihotz askotako penak.

9

Hunek derauzkan sentimenduak baitira atseginezko,
holako baten beharra dugu etsenplu on emaiteko;
luzaz gazterik egon zaitela oraiko idai bereko,
zure dohainak bat egin gaitzan elgarren besarkatzeko.

10

Bizi hunetan izanik ere jendeak ainitz irrisku,
luzaz bizirik zaude agian, mundu huntan bada leku,
gure artean Euskal Herrian Ahetzeko Mattin Treku,
atseginaren zaintzale eta trixteziaren mediku.

23-01-1972

Egilearen andreak idatzi kahierra
Herria, 1972-ko urtarrilaren 27-koa

Pertsulari laguneri

Airea: Pertsularien bat.

1

Kantatzen hasi beharra nago pertsulari laguneri,
Aiherran egin dugun bideak on egin beza deneri;
arrabotsikan jenden artean ez zen batere ageri,
galde bat iten diotet egun Aihertar eta besteri:
holako besta nai duzunean berriz dezakegu berri.

2

Mattinetikan beharko baitut hasi gaurko goresmena,
gure artean atera zaukun zirtolari ederrena;
daukan botza ta dohainez ere estimatuz daukatena,
eta bestalde gazten laguntzaz arta hartzen dakiena,
nork bada ez du maitatzen ahal ongi iten ari dena?

3

Hortarik landa Xanpun horrentzat zer behar duzu pentsatu?
Nere aldian horren balio ederra nai dut aipatu;
arraintza eta pertsua ere betan zituen maitatu,
ene partetik suharra dela igandean dut jujatu:
erdaldunekin lanean ari ta eskuara ez ukatu.

4

Esponda hori Jatsuko seme ta izaitez Garaztarra,
bihotz barnean berekin dauka gemena eta indarra;
pertsu lanean zintzoa dago, dohainez berriz azkarra,
otoi gurekin segi zaitela, badugu zure beharra,
Garazin gaindi heda dadien Frantses sainduain abarra.

5

Irigaray jaun Arrosatarra ez da izpirituz flako,
egin ahalak egiten ditu pertsuaren onerako;
hargina dela bere ahotik entzun izan dutalako,
gorputz ederra duen gizona eder baita pertsutako,
dohain ederra izanen zuen bidea egin balako.

6

Larre Bezkoiztar dagona orai baita gure ganat jina,
gurekin betan segitu nahiz pertsutako bide fina;
bestek bezala hark ere beti botatzen dauku dakina,
aho garbia, kantatu aintzin egiten du etsamina,
eman nahian entzuleeri bihotzetik atsegina.

7

Mendiboure hau orai berriki pertsu emaiten hasia,
landare ona dela segurki badauka horrek azia;
ideia badu eta kantatzen badu nahiko grazia,
lagun fidela dago segurki eta laster ikasia,
gurekin betan xuxen dezala gaurko mundu nahasia.

8

Ernest Alkat Iholdiarra da gaztetan hoberena,
kantu lanean haste hastetik beti suhar dagoena;
pertsularitan hori izan dut lagunetan nik lehena,
elgarrekilan aizanik luzaz ahantzatua nauena,
erran ditake hori dugula gaur Xalbador bigarrena.

9

Jujamendua eginik daukat ene lagun guzietaz,
bakotxak daukan jaidura eta ber merezimenduetaz;
otoi ez nehork gaizkirik hartu oraino ene hitzetaz,
enkas norbaitek balu arteko zerbaitño pertsu hauetaz,
hel araz beza errepostua gure eskualdun kasetaz.

Egilearen andreak idatzi kahierra
Herria, 1972-ko maiatzaren 11-koa

Kolorado-ri mintzo

Airea: Nere herritik izan ditudan paper batzuek diote.

1

Pertsu berriak ateratzen tut oraino hanbat gogotik,
abisu berri bat dut ukana berritan Koloradotik;
Jean Urruty-k daut galde egina Aintzilen bere ahotik:
gure berriak heda pertsutan Eskual Herriko xokotik.

2

Ameriketan hasia eta Bizkaian dute finitu,
filma berri bat egin dutela nahi ginuzten argitu;
amerikano ta eskualdunak betan dirade partitu,
elgarren behar hori zer zaiken orai baitute senditu.

3

Egina duten filma izena dago *Eskualdun artzaina*,
horrek erakuts omen dezake mendian dagon mahaina;
eta bestalde eskualdun batek lanerako daukan zaina,
gure odola hango lurretan azkar baitago eraina.

4

Filma berria kusiko dugu naski heldu den urritan,
Amerikako eremu batzu erakutsiz telebixtan;
hango artzainak eta ardiak arrantxio ta menditan,
gure anaien bizia hola ukan dezakegu bixtan.

5

Jean Urruty-ri dazkot nik egun igorriko goresmenak,
zure medioz egin baitira gauza eder hoiek denak;
argitu nahiz horgo moldetaz itsutuki ginaudenak,
ez ziren ehun zu bezalako hori eginen zutenak.

6

Elgarrekilan egon denbora izan zerauku laburra,
ez nuen uste ene herrian itea lehen agurra;
artetan maite duzu kusteaz zeure sort-lekuko lurra,
maitasun hori begiratzeko zinezko eskualdun haurra.

7

Koloradotik Bizkaiaraino, gero Donazaharrera,
jin izan zira zure herria ta haurriden ikustera;
handikan berriz Aintzile herri ttipirat besta itera,
zuri eskerrak ez nintzan hortik deusikan gabe atera.

8

Gazte gaztetik joanik eta egonki Ameriketara,
nahi zinuen zuk egin lanak ager nitzan pertsuetara;
filma horretaz denak jakintsun izan ditzen bazterretan,
interpretaren behar ordua zutela eskualdunetan.

9

Erranik aski badaukat orai denek konprenitzekotan,
orai iatzartu baigira segur lehen ginenak lotan;
agerkaria hedatu dautzut erran bezala bertsotan,
gure mintzaira maitea denek batean salbatzekotan.

10

Oraino handi gaitela lehen ginaudenak hanbat guti,
eskualdun famak ordu baitzuen telebixtan zadin xuti;
kuriaz lotuz lan horietan zinez ez zinen beldurti,
zuri eskerrak eta goraintzi, adixkide Jean Urruty.

Uztaileko 29-an 1972
Herria, 1972-ko abuztuaren 10-ekoa

Gizonaren laur sasoinak

Airea: Otxalde ta Etxahun.

1
Hasiko naiz kantatzen pertsu berrietan,
sujeta dut urteak dauzkan sasoinetan;
jendearen bizia da konparatzetan,
kanpoa berderikan den primaderetan,
iduri du gaztea hogoi bat urtetan.

2
Primadera eder da bere liliekin,
arboleak ostatzen kolore berdekin;
hegatzinek kafirak iten plazerrekin,
mutil-neska gazteak ideia berekin,
lan horri lotzen dira biga elgarrekin.

3
Uda jiten denean lotzen da lanari,
iguzki garbienak beroa lurrari;
nola belarra beti pusan baita ari,
kabalek ere dute orduan janari,
bainan pentsatu behar bertze urteari.

4
Jendeak daukan udan berrogoi urtetan,
famiatua den hori pentsaketan;
bere haurretaz griña badauka artetan,
girixtinoki nahi beren urratsetan,
karlosa libreago da bere xedetan.

5
Hirugarren sasoina baita larrazkena,
orduan pasatua bero haundiena;
gain-behera ari da gauzik ederrena,
deia pasatua den denboraz da pena,
eta berriz ezin has iragana dena.

6

Gisa berean dago jendearendako,
larrazkena da hirur hogoi urtetako.
«Lehen egiten nian hala ta holako,
orai indarrak joan ta gorputza flako,
prestatzen hasi behar beste mundurako».

7

Laugarrena negua zenbat den lazgarri,
euria ta elurra usu dira ari;
edertasunik deus ez, nigar egingarri;
udan lotu ez dena bihotzez lanari,
hotzen azpian dago herio janari.

8

Neguari konpara ditazke xaharrak,
bere aldia egin du heien indarrak;
uste gabeen berdin itzaltzen bakarrak,
serios-arazten du orduan beharrak,
heieri argi beza zeruko izarrak.

9

Pertsu hauk ikastea ez dautzut galdatzen,
nahiz ez duten nehor ahalaz kolpatzen;
Jainkoak egin gauzak ditut hor aipatzen,
arima beti berdin, gorputza sanjatzen,
lurra eta zerua nituen kantatzen.

Herria, 1972-ko urriaren 19-koa

Bokazione galdez

Airea: Andereño bat ikusi nuen.

1

Kantuz hastera noa oraino penarekin bihotzean,
oihua egin nahi bainuke lerro haueri lotzean.
Gure fedea norat ari da gaztien odol hotzean?
Orroit gaitezen Krixto guretzat hila zela kurutzean.

2

Eliza bazter aise ahazten bainan baletaz orroitzen,
gazteak orai bide mota hau aiseago du segitzen;
manera hori ikusi eta ez naiz batere harritzen
Euskal Herrian bokazione hoitaz bagira ttipitzen.

3

Apeza eta serora ainitz egiten zen lehenago,
xaharren fede suharra orai gazten artean nun dago?
Ene partetik Jainko Jaunari beti otoitzean nago
gaurko gazteak bilaka ditzan diren baino debotago.

4

Ibiakoitz ta igande arrats segidan beti baletan,
atseginean gorputzez eta arimarentzat kaltetan;
gisa berean segi balite meza eta bezperetan,
zerbait geiago egin litake Jainkoaren ohoretan.

5

Apez-serorak ttipitzen ari ta berririk ez ageri,
seinalatzen du fedea nolaz dagon oraino hoin eri;
falta handia kausitzen dut gaur aita-ama anitzeri,
bridak sobera laster laxatzen dituzte beren haurreri.

6

Lehen bezala familietan nun egiten da otoitzik?
Aitamak beren haurren erdian entzuten baitziren botzik;
fededun leial zauden denetan, deusetaz ez zuten lotsik,
gaurko mendean nun ikusten da gisa hartako bihotzik?

7

Jainkoak eman graziak bete ditzala gure gogoak,
gure ideiak izan ditezen ainitzez sanoagoak,
fedean ere sortzen direnak gaur baino beroagoak;
pasaian gira, orroit guziak ez girela hemengoak.

8

Orai gazteak diren horiek ideian zerbait baitute,
gero aitamak izan ditazke balinbadute bertute;
etortzen diren haurren altxatzen zuzentasun behar dute,
haurrek ongia ikas lirate erakusdunik balute.

9

Ordua jina baitzeraut orai solasa akabatzeko,
pertsuak eman izan ditut gau ilunaren argitzeko,
ideia suhar duen jendeak galde huni segitzeko;
aski entzunik badute denek bihotzez konprenitzeko.

Egilearen andreak idatzi kahierra
Herria, 1973-ko otsailaren 15-ekoa

Amodioaren ederra

Airea: Oilanda gazte moko fier bat.

1

Pertsu berriak kantatzen ditut maitasunaren gainean,
hori nolatsu hartu behar den eta nolako heinean;
bi gaztek elgar maite badute amodio berdinean,
nola solasta ditazken entzun gaztetako adinean.

2 *Mutikoa*

Neskatxa gazte xarmagarria, ene begiko lorea,
Eskual Herrian bizi zarena, nihun parerik gabea;
galdatzen zaitut maitasun handiz, utzirikan herabea,
nahi duzunetz izan betikotz ene lagun ta jabea.

3 *Nexka*

Mutil galanta, ene ondotik aspaldian zabiltzana,
iduri duzu bihotz guziaz oraitik eni emana;
bainan hargatik fidela balitz oraiko zure errana,
gogotik zuri eskaint nindaике izena eta izana.

4 *Mutikoa*

Ez ahal duzu nehoiz frogatu nik erranetaz gezurrik,
ez baitut egin nexka gazteri sekula santan malurrik;
ibili banintz bide faltsuez anitzetan tronpaturik,
egun ez nintzan zure ganako maitasunak pusaturik.

5 *Nexka*

Hitzetarikan jukatzen zaitut zintzoa eta leiala,
zure bihotza mamitsua da, ez da bakarrik axala;
bizi guzian egon bazinte goxoa orai bezala,
onhartzen zaitut ene senartzat nai baduzu bereala.

6 *Mutikoa*

Atseginekin ikusten baitut zuk duzun borondatea,
nik ere zerbait badaukat eta zuretzat ez da kaltea;
zure ganikan jakin dirota, oi ene izar maitea,
gu elgarrekin esposatzekotz zonbat daukazun dotea.

7 *Nexka*

Zuhaur gaztea eta sistima lenagoko xaharrena,
ez du diruak egiten gero etxen bakarrik onena;
nahi baduzu nitarik entzun egiazki hala dena,
etxe batean maitasuna da doterikan ederrena.

8

Pertsu batzutan irria ere ez da gostatzen kario,
ainitz ezkontza egin izan da lehen dirua medio;
bainan oraiko gaztek badugu horrentzat erremedio:
maitasunikan ez balinbada diruak ez du balio.

Egilearen esku-idatzia
Herria, 1973-ko maiatzaren 17-koa

Maitasun tronpakorra

Airea: Ttiki ttikitik...

1

Pertsu batzuek ateratzen tut gaur zuentzat, Janpiarre,
zuhauk galdea in-ta ez jaliz berdin zintazke hasarre;
zuhaur zuzena izana gatik tronpatu izan baitzare,
sujeta zuzen agertuko dut gertatu denaren pare.

2

Kalifornitik Euskal Herrira berriz nago etorria,
ene gogoak bere ustean hemen baitzaukan loria;
zazpi urteren buruan kusi dut maite naukan xoria,
eni hitzeman zerautan eta beste bati eroria.

3

Hatsberapenka hasi zitzautan elgar kausitu orduko,
baitzakien ez zuela hitza enekin bururatuko.
«Ez naiz fidela egon zuretzat, huna zer dutan lekuko:
aingeroño bat sabel barnean fitesko dena sortuko».

4

Orroit zirea partitzean guk, eskuak tinko elgarri,
nola ohore eman ginduen amodio fidelari?
Geroztik hunat izar faltsu bat gertatuz gure galgarri,
behin betikotz urrundu zaitu zure lehen zuzenari.

5

Zuhaur galdua ta eni berriz bihotza duzu kolpatu,
eritasun tzar hortarik nola behar naiz orai sendatu?
Ameriketan nintzan denboran beti zuri dut pentsatu,
eta zuk aldiz bester fidatuz ederki nauzu tronpatu.

6

Tronpakor bati eman zirela, hau ezin sinetsizkua,
bertuterikan ez zinduena aski zure zaintzekua;
orroitzapena utzia dautzu hark bere odolekua,
harena baino nahiago dut segurki ene lekua.

7

Hola dabilan jende trixtea ez daike trankil nehola,
Jainkoaz ere behar litake izan hanbatez axola;
nexka gaixoa galtzen duenak amodio hotzez hola,
nola salbatu beharko duke ukatuz bere odola?

8

Nitarik berex ezarri zaitu eta ber harek ez hartu,
amodioa argi zagona baitautzu ilun nabartu;
zuhaurek nahi ala ez berdin bide faltsurat behartu,
fidelago bat bazinduela nola ez zira ohartu?

9

Egundainotik plazer guziek izan dute beren pena,
erran dautazu afera hortan ez dela zure hobena;
bainan egiaz jakin zazue gis hortan gertatu dena:
ez da bakarrik bera hobendun, haurra baitago biena.

10

Nahi ala ez bihotzetikan, Luixa, behar zaitut kendu,
debaldetan da orai zurekin egitea konplimendu;
bainan hargatik gertatu hutsaz maiten dautzut barkamendu,
agian zero-lurren Jainkoak idei bera ukanen du.

11

Pertsu berriak emanak dira galde egin dauztanari,
atseginean beharra zena gaizki erori denari;
hari gertatu kasua baita segur nigar egingarri,
Eskual Herriak eskain dezola beste bat kontsolagarri.

Egilearen andreak idatzi kahierra
Herria, 1973-ko irailaren 20-ekoa

Sukre-egileak

Airea: Oilanda gazte moko fier bat.

1

Pertsu berriak agertzen ditut gure *Herria* kasetan,
gaurko sujeta daukat oraino Garaziko lagunetan.
Hemen bizia badoa beti neguaren itxuretan,
Eskual Herriko libertateaz orroitzen gira artetan.

2

Irabaziak onak dirade, horrek badu ageria.
Ez ginen hunat etorriko ez balu emaiten beria.
Irakurleak adi dezala gure ganikan egia:
bere pobrean nagusi dela denentzat Eskual Herria.

3

Mendibetikan, Duzunaritze, Aintzile eta Gamarte,
Luzaide barne Arnegi ere eta azkenik Uharte,
elgarretara bildu direnak ezin egonez aparte,
ez baita zuzen eskualdun dena egin zadien bi parte.

4

Anaitasuna bai egiazki badago gure artean,
denetan hori behar litake gizona izaitan.
Gauza ederra elgar lagunduz beharrez ordu batean,
sendimenduak onenak daude gogo bihotzen atean.

5

Pertsu hauekin ikus ditake gure bakotxain itxura,
holako kasu miresgarria ez da gertatzen ardura.
Denek badute gisa hortan gu ezagutzeko mentura,
erdi ahantzi gaitztereri etorriko da burura.

6

Fermin Ahado Uhartiarra ginuen denen gidari,
haren nahiak gintuen behin leku huntarat ekarri,
Orai dolurik ez dugu nehoiz behatuz lagun onari,
guzien partez esker minenak diozkat egun berari.

7

Gure sasoina dago oraino buruz bera eroria,
laster Garazin sartuko baita hor sortua den xoria.
Estaliko da bere haurretaz zaukan pena doloria,
segurra dugu zure besoa gure ongi etorria.

8

Eskualdun gaztek egin zukreak eman ditzala indarrak,
urte berrian ere salduko ditazke segur bakarrak.
Harek baititu mundu guzian azkar arazi beharrak,
haur ttipitarik haste geienak partikulazki xaharrak.

9

Aldi huntako akabatzen dut solas on bat erraitan:
urte berri on desiratzen dut oraino dener batean,
Zeruko Jaunak onhartzten badu, eskualdun herri maitean
bizi gaitezen ahalaz beti zorion eta bakean.

Herria, 1974.01.17

* * *

Pertsu hauen aintzinetik xehetasun hauk eskaintzen zituen *Herria* aste-kariak:

Askotan kanpoko euskaldunak ditugu aipu lehen orrialde huntan. Ez da hortan deus harritzekorik: urruneko euskaldunak ditugu alabainan astekari hunen irakurle eta idazle hoberenak.

Gaszte multxo bat, Frantzia iparrean gertaturik betarrabatik zukrea egiten den tokietan, hasi baitzaizku handik beren berrien emaiten, galdatu deiegu xehekiago argi gintzazten beren kasuaz, gure galde batzuer irhardetsiz. Orai entzuna dugu etxean sartuak direla beren sasoina eginik. Huna han zirelarik guretzat moldatuak zituzten berriak:

Villenoy herrian, Meaux eskualdean gertatu gira hamar euskaldun gazte: Beñat Erdoitz Gamarte-Agerrekoa, Jakes Bidondo Duzunaritze-Bidondokoa, Marti Etchemendy Mendibe-Gaineko-Ofizialdeikoa, Jean Claude Thirion Mendibe-Etxexurikoa, Michel Monfort Mendibe-Haraberrikoa, Fermin Ahado Uharte-Kaminokoa, Jean Louis Aroztegy Uharte-Barnetxekoa, Frantxua Auzqui Arnegi-Serorainekoa, Pedro Granada Luzaide-Arnegizaharrekoa eta Jean Arrossagaray Aintzile-Bentaberrikoa.

Hunarat etorriak gira Garazitik, horgo etxaldeak ez baitira haundiak bana-beste eta horgo lurren emaitzetarik bakarrik bizitzeko ez baititake atera oraiko bizi-moldean. Gure hemengo sasoina laguntza pollit bat da bereziki etxalde ttipintzat.

Gure hemengo lana

Betarraba zukreduna lantzen den uzina batean gira denak ari, beste langile frangorekin. Huna guk zer dugun bakotxak gure lana.

Marti Etchemendy ari da "pesée géométrique" deitzen den lanean, alorretan betarraba-xantilunen biltzen. Hortarik jujatzen dute betarrabak zenbat eman dezakeen zukrearentzat: alorretan biltzen dituzten betarraba bakar heien medioz badakite, heier hostoak kendu-ta, landa hartako uztak zenbat azukre eman dezakeen.

Arabera hortara pagatzen ditu uzinak landa horien jabe diren laborari jabeak.

Beñat Erdoitz-en lana hau da: kamiunetik betarraba husten delarik, Beñat-ek igortzen du uzinarat xuxen tapiza baten bidez.

Juanes Arrossagaray-ek errezebitzen du Beñat-ek igorri betarraba uzinan eletrikaz sartzean eta emaiten lehen garbaldia bere harri eta lurretarik.

J. C. Thirion eta Michel Monfort ari dira ganitetan, han xehatzen da betarraba eta handik abiatzen zukre-jusa bere alde eta alkola berriz ditzilerriako maxinetarat, han irazten baita, saltzeko prest jartzeraino. Jean Louis Aroztegy ere ganitetan ari da beste bi horien ofizio berean.

Pedro Granadak kargatzen du kamiunetarat eta igortzen zukre egiteko baliatzen den gisu-harria.

François Auzqui-k diga batzuen bidez igortzen du ponpa elektrikaz uzina guziak behar duen ura. Ur naza haundi bat bada hortako, uzinako ura joan-jinka hartan baitabil.

Jakes Bidondok despeitzen du zukre gorria; hori gure uzinatik joaiten da beste uzina batzuetara, hortarik egiten da zukre mokorra. Bestalde, hori bera baliatzen xanpaña egiteko ere.

Fermin Ahadok uzinatik ateratzen duen zukre xuria kamiunarekin ezartzen du depotean, gero handik joaiten baita erresuma guzirat eta erresumaz kanpora ere.

Landatik eta kafera

Ez dugu hor zukre egitearen lan parte bat baizik ikusten. Lehenik lurretik heldu da zukrea. Ikusteko dira hemengo bazterrak eta hemengo etxaldeak: hemengo laborantza ttipienak Euskal Herriko haundienaren kanpokak ditu. Hemengo haundienak, aldiz, gure herri gotor baten eremuak.

Huna larri larria nola ateratzen den betarrabatik zukrea. Ganitetan pasatu ondoan egos arazten da, egosi ondoan jusa badoa garbitzeko maxinetarat, han bere arruntkeria guziak uzteko. Hola garbiturik badoa berotegietarat, han berotzearen bortxaz ura ketan joaiten baitzaio eta zukre guzia jusean gelditzen.

Beste maxina batzuetan eginen da gisustatzea, kolorearen kentzeko. Gero sartzen da “turbinetan”, horgo barnetan da zukrea egiten. Bainan hortik umi aire batean ateratzen baita, xukatzeo lekuan eginen da zukre finitua... kafe beltzari bere kiretsaren kentzeko prest!

Laneko gora-behera

Hiru andanetan berexia da hemengo eguna. Andana bakotzak zortzi oren egiten ditu: batek goizeko 5 orenetarik eta aratsaldeko oren bat arte, besteak oren batetik eta 9-ak arte eta hirugarrenak handik goitiko. Hamabostetik orenak aldizkatuz, hiru andanek oren guziak aldizka kurritzen ditugu.

Hemen astea frango luze da guretzat eta huna zertako. Iganderik ere ez konda pausuko edo meza bat nahi dugunean entzuteko. Zazpi egunetarik zazpiak lanean, hortakotz baitira irabaziak ere hobeak.

Lagunez hitz bat erran dezagun, 10 garaztar gira ganbara berean. Elgarren artean adixkidantza eta anaitasun beroa. Denek munduan guk bezala elgar adituz ez laike hoinbeste makur gizonen artean. Biba euskalduna eta elgarren anaitasuna!

Balitu Euskal Herriak uzinak!

Ez baita gizona anaitasun hutsez bizi, badugu euskaldunek gure kantina, apairuetako tenoreak gure lanetik landa dira, zortzi orenetarik; ez du beti Euskal Herrikoa balio, kantineroa euskalduna izanik ere.

Beste elgarretaratzeak musa, batzuetan kantinan edo berdin ganbara berean: gogotik artzen ere gira kantuz edo bertsutan: hortan geldi gure hemengo libertimenduak.

Irabaziak doi bat aipatu ditugu: ilabetean berrehun, hirur-ehun arte hori egin ditake hemen, funtsean hortarat gira hoin urrun jinak.

Ez gintazke segur hoin urrun jin gure herriak balitu lantegi zenbait gehiago eta irabazi on batzuren mentura: gure burrasoak eta lurrak utzirik gu hemen giren bitartean gure burrasoak penatzen dira han etxean; hori da gure herriaren pobrezia. Horra zer dioten Meaux aldeko zukrerian diren euskaldun semek. Gure goraintziekin.

F. Ahado, M. Etchemendy. J. Arrossagaray.

Klasako lagun zenduari

Airea: Pertsularien bat

1

Penarekin naiz hasten kantatzen bihotzean baitaukat min,
gazte lagun bat falta bainuen herrirat naizelarik jin;
Eskual Herritik joan orduko kasetaz bainuen jakin
Lasatar nere adixkidea hil zela trakturrarekin.

2

Nahi gabeak beti lurrean bortizki baitu irauten,
nere begiez jaz ikusia itzalia dago aurten;
makina dorpe izigarriak jendea laster errausten,
hura joana da bainan bertzeek ikas zer egin behauten.

3

Izenik ez dut aipatuko gaur, familia da penetan,
nihaurek ere parte hartzen dut etzekoen nigarretan;
malur handia gertatu dena nehorek uste gabetan,
bere biziaz gabetu baita hogoi eta lau urtetan.

4

Nihauri ere utzi dautazu orroitzapen bat iluna,
zintudalakotz arras ezagun eta klasako laguna;
adin gordina, gorputz ederra eta ona osasuna,
Jainkoak berak har dezauzula sortzean eman zautzuna.

5

Azken aldikotz gertatu ginen Garaziko merkatuan,
Kafe ttipia guziek deitzen duguneko ostatuan;
biak aizanik eleketan han fazoin deliberatuan,
ez nuen uste beharra zela laster Krixto gana juan.

6

Lurreko zure bizia izan baita hanbatez laburra,
nihauri ere sar-arazi daut bihotz barnean beldurra;
gaurko tresnekin ez da nehoren lotsa oraindik malurra,
holakorikan balitz Jaunari galda har gaitzan zerura.

7

Ezin ahantziz baigaude orai partitze lotsagarria,
zutan ikusi dugu guziek destina izigarria;
bainan enetzat hori dagoke gauza deitoragarria,
hogoi eta lau urtetan hila gorputz espantagarria.

8

Ainixko oren badugu biek pasaturikan gozuan,
eskua ere hedatzen zautan hoin behako amultsuan;
hori gogoan geldituko zaut lurreko bizi osuan,
agian berdin eginen deraut geroan parabisuan.

Egilearen andreak idatzi kahierra
Herria, 1974-ko otsailaren 21-ekoa

Etienne Salaberry jaun kalonjeari

1

Bihotzez agur eta ohore gaur, jaun kalonje maitea,
atseginetan handiena dut zu begiez ikustea;
egin ahalaz lagundu duzu herriko ezinbestea,
denen Jainkoak pusatu zaitu laguntzaile sinestea.

2

Zuk egin duzun laguntza hori baitago denen onetan,
bihotz guzia agert araziz hizkuntzaren fagoretan;
omenaldi bat eskaini zaizu zure sort-herri Heletan,
maitasun ainitz zinduelakotz eskualdunen bihotzetan.

3

Ezin ordainduz gelditzen dira ongi egin dituzunak,
zure gogoan gintuzularik nola gauak ta egunak;
sustengu onez argitu tuzu gure izaite ilunak,
behin betikotz zorretan gaude zuri jende eskualdunak.

4

Gaztetik eta oraira egin izan duzu ahal dena,
gure hizkuntzak zu baizintuen kasik artzainik onena;
gaurkoan botza entzunen duzu zinez zure ardierna,
egonen dela gurekin zure obraren orroitzapena.

5

Segi aintzina lehen bezala, baitugu zure beharra,
herriak zinez senditua du egin dakozun indarra;
Salaberry da Baxe-Nabarrak sortua daukun bakararra,
sort herria den baino gorago altxatu seme azkarra.

Egilearen andreak idatzi kahierra

Bas-herriak husten ari

Airea: Ttiki ttikitik aitag et'amak...

1

Bas-herrietan lenago bazen oraiko jenden dobla,
oraino berriz bertze gisetan dago gaurko itzulia;
hirirat oro doatzi ustez kausi bizi bat hobia,
bainan ez dute nehoiz ukanen estakururik gabia.

2

Neskatxak dira hirirateko ene ustez aintzinean,
laster ezkontzen dirade berdin sartu aintzin adinean;
hemen gelditzen diren bakarrak balira idei berdinean,
langilerik ez litake geio laborari lur gainean..

3

Zertako beraz Eskual Herritik doatzi hola ihesi?
Etxean sortu miga gazteak etxen behar luke hezi;
hiriko ate guziak zabal eta etxeakoak hetsi,
bizia eman daukun lekuak ez luke hori merezi.

4

Mutiko frango bazen etxetan zutenak plantatu gogo,
nexasak galdegin laborantzako ta hek hirian naiago;
ukan balute Eskual Herriaz amodio gehiago,
ez zen entzunen gelditzen egun hemen hoinbeste donado.

5

Ene beharrez entzun dutana aitortuko dut zilegi,
duela zombait egun hiritar batek erranak bi egi:
maleruski han ortziraleak dituztela arduregi,
sortu etxerat itzul laizkela ez balute berantegi.

6

Harek errana ene gogotik ezin diotana utzi,
bere xangrina nolakoa den osoki du erakutsi:
bizia uros pasa ustean berak duela errautsi,
erran ditake zerurat nahiz linboetarat da jautsi.

7

Nexka gazteak, hiriko moldez daukazue esperantxa,
iduri eta aisetasunak emaiten duela xantza;
nahi duenak hartu gostuan aise uzten laborantza,
gisa horretan bizi direnek badute gaitzeko mantxa.

8

Dударик gabe kanpañan baino hirietan baita hobe,
etxekandere Eskual Herrian sartzia dute herabe;
kontseilu on bat eman nahi dut geldituz arrazoin jabe:
bas-herriak ez horrela kita hutsak emendatu gabe.

9

Ezin errana denentzat toki badela Eskual Herrian,
hamar haurride ez baititazke arraña etxe berian;
bainan guziak gogoz hartuta eman daizke agerian,
eskualdun hurrek ez bezate utz beren lurra miserian.

10

Molde horiek ezin dezazket ameti orai nehola,
ikusitako gure herria agonietan dagola;
ohar zaitezte, gazte lagunak, ta har azue axola,
luzaz xutikan begiratzeko sortu zarezten kaiola.

11

Pertsu haukien aditzaileak berak aise diro osa,
Arrossagaray oraino ere nola dagoken karlosa;
bainan halare omore onez betitik nago urosa,
laborarisa izanen baita bilduko dutan esposa.

Egilearen andreak idatzi kahierra
Herria, 1974-ko apirilaren 11-koa

Ilobak bere osebari

Airea: Ttiki ttikitik aitak et'amak

1

Sujet berri bat izanez egun hasi behar naiz kantatzen,
pertsu berriak argira diton osebak dauzkit galdatzen;
bera koblari izan delakotz ainitz ditu estimatzen,
Piarre Haran Jatsuko seme osoki garaztarra zen.

2

Hamahiru bat urte bazuen elgar kusi ginuela,
eta egiaz aitortuko dut lehen aldia zaikela;
pertsutan entzun nuen oseba norbaitekin ari zela,
nere dohaina piztu zitzautan orzantz ximixta bezela.

3

Hameka urte irian nintzan oseba ezagutzean,
laster begira jarria nintzan zu pertsuetan lotzean;
ordainik ezin moldatuz hantxet egona nintzan gosean,
geroztik hunat beti nindagon egun hura bihotzean.

4

Agorrilean egin daukuzu horrat jiteko gomita,
zure etxerat, Gironda hortan leku pollitean baita;
atseginekin egina dugu zu ikusteko bisita,
kausitu zaitut lehen bezanbat alaia eta hardita.

5

Elgar ikusi orduko jautsi da plazerrezko nigarra,
erten zautala: «Horra hau ere gure arbolen abarra;
ni nauzu, Juanes, zure oseba, koblari naizen bakarra,
Garazin sortu xoria eta urrun higatu beharra».

6

Urrun higatu beharra dela hori nik entzun izana,
dudarik gabe hola zitaken oseba onaren plana;
Eskual Herriko seme dagona eta hirirat joana,
horrek bihotza xiztatzen deraut lantza batek bezain barna.

7

Zure pertsuko lagun izana Gohenetxe Larramendy,
elgarrekilan kantuz artzeak horrek baduke aspaldi;
zure dohaina gogo barnean oraino baituzu sendi,
iloba zure laguntzat dago, otoi ez zaitela geldi.

8

Aboztu hortan lehen aldikotz ottorekin pertsuetan,
ordu beretik ene bihotza sartu zeraut lorietan;
solas legunak eta goxoak zauden zure ezpainetan,
naiago nuen egon bazina Jatsu-Aintziko lurretan.

9

Zure pertsuko dohaina nola zen zinez naukan arrotza,
ikusi baitut nor nahirentzat ez zintazkela zu lotsa;
arralleria beti mihian, izpirituz hoin airosa,
zure izaite miresgarriak hunkitu deraut bihotza.

10

Koblarik orai ene bururat ez zerauta heldu geio,
den onenari noizbait gelditze hori etortzen baitzaio;
pertsu alde hau eskuetarot ottori heltzen bazaio,
besarkada bat eskaintzen dautzut bihotzetik, Haran Peio.

1974-ko Aboztuaren 21-ean
Egilearen andreak idatzi kahierra
Herria, 1974-ko buruilaren 26-koa

Sort-etxeari

Airea: Otxalde eta Etxahun.

1

Agur bihotzez, ene sort-etxe maitea,
zor dautzut laudorio zuri emaitea;
askotan gertatzen zaut urrun joaitea,
zu gabe pausurikan nihun balaitea
estimagarri dago baten ukaitea.

2

Kanpoa azken dago, etxea lehenik,
toki bat ere ez da maiteago denik;
Euskal Herrian balitz lotsa litakenik,
ez dadiela izan baten pentsamenik,
etxea bere gisa utziko direnik.

3

Etxe maitean sortu eta joan xutik,
ene sokorri zinen hastapen ordutik;
jalitzen baniz ere zu ziren lekutik,
sekulan ezin zaitut ahantzi burutik,
ezin utzia joan artino mundutik.

4

Konfidantza guzia zutan dut ezartzen,
nunbaitik atsegin dut naizelarik sartzen;
egun eta gau beti zutaz naiz behartzen,
kanpoan naizelarik bihotza iatzartzen,
zonbat maite zaitudan orduan ohartzen.

5

Sagar, udare, ahan, mertxiken artean
eman zaituzte behin bizkarño batean;
inguruak ordoki, mendiak aldean,
aire sanoa nasai ez baita kaltean,
ez dira denak bizi gure izaitean.

6

Euskal Herri guzian zu zaitut maitena,
zu ez bazintut nuke bihotzean pena;
seme batentzat goza leku hoberena,
zutan sortzen naizena ez bainaiz lehena,
ene aldian hartu nai dautzut izena.

7

Etxe maitea, zutaz nintake kontsola,
maitearen maitez gaur kantatu dut hola;
zure seme euskaldun betikotz nagola,
ez zaitut ukatuko bizian nehola,
gelditu arte ene zainetan odola.

8

Zuretzat mintzatzeaz orai naike ixil,
zutaz behartu gabe ez nindaik e ibil;
atsegingarri baita etxeari hurbil,
behin betikotz orai erranen dut umil:
etxen sortu ta hazi, etxen nahi dut hil.

Herria, 1975-eko urtarrilaren 16-koa

Gizonaren azken egunak

Doinua: Lurraren pean.

1

Ene bizia lurrera doa egunetik egunera,
eritasuna barnean ala hau da zinezko galera;
bortxatua naiz andrea eta hiru haurtxoren uztera,
ni joan eta asma ditake gure etxeko manera,
lauak nigarrez beha aita ta senar zenaren aldera.

2

Nere zainetan ez dut geiago lehenon naukan indarririk,
esperantzarik banauka beden piztuko dela pindarririk;
enetzat azken oren lazarri hura etortzen delarik,
andrea eta haurtxo maiteak, otoi ez egin nigarririk,
otoitzaz beste sustengurikan ez baiteraukat beharrik.

3

Jainkoak berak nahi izan du aita zueri kentzia,
haurtxo maiteak aitarik gabe zuentzat diferentzia;
gomendio hau eman behar dut baitut azken sententzia:
amari ekar azue otoi nasai obedientzia,
pena guzitzaz ardiets dezan behar den pazientzia.

4

Partitze hori etortzen zeraut goxoki jarri orduko,
ene zorion hau ez baitzagon bakar bakarrik munduko;
etorri zauztan itzalak berak agertu dira lekuko,
beste alderat naizelarikan fitesko hegaldatuko,
maite nituen guziak laster munduan ditut galduko.

5

Ene gorputza konpara daike gaitzak hunki arbolari,
gain behera da guzia hola emeki eihartzen ari;
axaletikan loturik dago heldu nahiz erdiari,
lotzen delarik odol guzia ibiltzen duen tresnari,
arbola hori behin betikotz eskainiko da lurrari.

6

Adios beraz mundu huntako dirdirarik ederrena,
konda zitaken bakarra zagon emazte eta haurrena;
sortzeak eni eman izan daut gisa hortako ordena,
trixte gelditzen den familia, Jauna, ez otoi kondena,
zeru gainetik eman zozute bakerikan gozoena.

7

Berria jakin orduko denek joan naizela mundutik,
otoitz kartsuak galdatzen ditut euskaldun denen ahotik;
bertsua beti gogoan noa ezin kitatuz burutik;
Eskual Herria eta etxea beti egon diten xutik,
egin ahalak eginen ditut, Jainkoa lagun, zerutik.

Urtarrilaren 25-an, 1975
Egilearen esku-idatzia

Begitik daukat nigarra

Airea: Pertsularien bat.

1

Ezin egonez agertuko dut ene barneko sukarra,
gure etxean sartu baitzauku zorigaiztoen indarra;
bi hilabete galdu dutala neraukan seme bakarra,
xangrinak daukan min handienez begitik daukat nigarra.

2

Larunbat arrats batez mezarat abiatu ginelarik,
senar mazteak joan baiginen zu ohean ezarririk;
handik lekora etxeratu ta geiago ez zen irrik,
joaitean utzi haurtxo maitea ezin ikusi bizirik.

3

Jakes maitea, handi ginaukan zurekilan zoriona,
ginaukan fruitu bakarra zinen askoz berotan egona;
bi oren aintzin erranez: «Hitaz eginen diat gizona»,
pentsatu gabe herioa hor zela begira zagona.

4

Arras iguzki gabekoa zen ordu hartako itzala,
ganberan sartu eta ohartu ginen biak bereala
gure semea ja hila zela, xuri pareta bezala;
memento hartan iduri zautan harekilan nindoala.

5

Jainko maitea, aita ta ama seme hori gabe utziz,
kontsolamendu bakarra kenduz zuten zoriona hautsiz,
Zuhaurek eman zinaukun lehen ta Zuhaurek hartu berriz,
zure nahia hori bazagon onets daike bihotz guziz.

6

Igande oroz jitearekin zure tonbaren ahora,
sendimendurik handien batzu etortzen zauzkit gogora;
Zeruko Jaunak eman bazaitu bere alde hortan gora,
geroan otoi zure aitamak deikitzu zure ondora.

7

Hiru urteak arte zaitugu esperantza onez hazi,
geroztik zaitu zure zorteak aitametarik berezi;
zure galtzea baginuen guk molde trixtean merezi,
zure segida galduz geroztik zertako gira gu bizi?

8

Erran xaharrak diona baita: «hiltzeko ez da adinik»,
zer laike bada bizi bagina azken orena jakinik?
Ezin kontsola gaude aitamak Jakesi hoin laster jinik,
atsegabetan egun ez dugu nigarra ezin eginik.

9

Dolamen hunek ez dezala gaur ainitz gehiago luza,
gure bizia gauza hitsa da galduz geroz erresurtsa;
itzaliz geroz seme zenaren arima eta gorputza,
ezin ordainduz geldituko da etxen egin duzun hutsa.

10

Lurrean beti bizi baigira gauza frangotaz guduan,
trixtezia bat baizik ez dago geiago gure goguan;
Jainko maitea, otoizten zaitut, pena guzien buruan,
semearekin eman gaitzazun behin betikotz zeruan.

Egilearen esku-idatzia
Egilearen andreak idatzi kahierra

Lore maitea ihesi

Airea: Lurraren pean.

1

Eskual Herriko lore eder bat, ene gogoko argia,
behin betikotz zuri botatu izana baitut begia;
zutarik kanpo ezin nintake bertze batetan abia,
zure ondoan nabila beti nola mendian erbia,
ustez betikotz gure agintza izan zaikela egia.

2

Bi urte pasa atxiki nauzu, maitea, zure ondotik,
erranez beti maite nauzula bertze guzien gainetik;
zure solasak hartu nituen bihotzera bihotzetik,
bainan Satanen herrazko lana gertatu baita artetik,
sekulakotzat urrundu zaitu ene aldeko bidetik.

3

Orroit zirea feira batean nola ginuen hitzegin?
Bizi guziko espos laguntzat nik baitzintudan galdegin;
erran zinautan: «Gaixoa, zuri nehoiz ez diot hutsegin».
Baia zelako marka eman ez egin zinautan atsegin,
bainan geroztik zer demontrek zu nitarik zaitu aldegin?

4

Bazindakien zorbatez maite zintudan ta estimatzen,
asteen behin ez baiginduen sekula elgar kitatzen;
egun bat eni konfida eta gero besteri fidatzen,
ardurenian ahul denari hori baitzaio gertatzen,
estofa frango kurritu eta berdin arrunta hautatzen.

5

Bihotz barneko lore maitea, joan zerauzkit ihesi,
lehen zu hala ikusi eta kasik ezin dut sinetsi;
zure bihotzak zeraukan borta betikotz dautazu hetsi,
nahi ala ez hori zutarik egun behar dut onetsi,
esker mila bat igortzen dautzut hola banuen merezi.

6

Orroituko naiz lehen zurekin iragan tudan orenez,
bai eta ere zure ahotik entzun solas ederrenez;
zorionean izanen nintzan jali bazintu zuzenez,
bainan halare arrangura dut ongi erori zirenez,
bizi uros bat desira dautzut Jaungoikoaren izenez.

7

Gaurkoan zinez etorri zeraut argiaren itzaldura,
iguzki faltan nola denborak hartzen baitu ilundura;
geiago beste edozoinetan ezin nintake mentura;
ez ukaitekotz bihotzetikan maitatua nuen hura,
hobeko nuen sekula santan ez banintz sortu mundura.

8

Lore maitea, bakarra zinen sortua ene gustuko,
eta bixtatik itzali zauzkit doi bat maitatu orduko;
bizi naizeno mundu barnean zutaz nauzu orroituko,
ene bihotzak zaukan lekua sekula ez da hustuko,
hemen ez bada agian hori balia bedi zeruko.

9

Maitea gabe zer nagon orai aise baita jujatzea,
gogoan dena hola galtzea da zinez ezinbertzea;
primaderatik udarik gabe larrazkenean sartzea,
hori da zinez xangrinak eman pizu dagon kurutztea,
iduri baitut lorerik gabe hutsik dagon baratzea.

10

Gazte lagunak, solas ederrer otoi ez zaiztela fida,
bide bat gaizki hartuz geroztik xuxen ez ditaike gida;
gaur egiazki urrana baitut nola zen ene segida,
maite nauela eni erranez bertzendako erori da,
haren ta ene maitasun fina gaur sekulakotz fini da.

Egilearen esku-idatzia
Egilearen andreak idatzi kahierra

Maite izanari

Airea: Pertsularien bat

1

Ene kasua aipa dezatan ez da nehoiz berantegi,
egia dagon bezala orai aitortuko dut zilegi;
izar maite bat banaukan eta enetzat zen handiegi,
enetzat hetsi duen bihotza bestendako zabal bedi.

2

Lore maitea, zuri pentsatuz egiten dut maiz nigarra,
brasa beroa ilaundua da, nun dago maitasun garra?
Ene bihotzak zurekin betan galdu du zuen indarra,
oi izar maite, nik nahi eta bestek ereman beharra!

3

Errorik gabe den maitasuna aiseta baita haustea,
zorion hori galdatzen dautzut bizi naizeno kusteaz;
biziak daukan ilun nabarra gure elgarren uztea,
iduritzen zaut negu hotzean arropetaik buluztea.

4

Arrosa bezain ditziragarri, ene bihotz betekua,
ene iduriz maitale eder, goxotasun onekua,
zure bihotza ez delakoan eneak hunkitzekua,
horren barnean besteño batek egin dezala lekua.

5

Pentsamenduek nerabilate nola errekako ura,
primadera hau nolaz joan den udarik gabe negura;
ez ukaitekotz bihotz barnetik maitatua nuen hura,
egun batean zertako bada sortu ninduten mundura?

6

Haize hegoa bezala zagon maitasuna gutartean,
ene kolonba airatu zeraut hegal zabalen artean;
ene nahia hori zitaken bihotza bete betean:
behin betikotz gu juntatzea aldare ondo batean.

7

Primadera bat trixte zagona ezin ihardok udari,
horma handiak jorik bezala lorea eihartzen ari;
gauza bertsua gertatu zaio gu bien maitasunari,
hartaz zoin giren hobendun oso Jainkoa dago jujari.

8

Bihotzetikan ezin dut kendu eman duzun trantsidura,
gau ta egunik ez dut pasatzen geiago ene gostura;
hemen ez ahal ditaken gauza biek elkarren mentura,
geroan beden goazin biak elgarrekilan zerura.

Otsailaren 16-an, 1975

Egilearen esku-idatzia

Egilearen andreak idatzi kahierra

Lau mixterioak

Airea: Oilanda gazte moko fier bat.

1

Lau mixterio irringarriren kantatzerat orai noa,
arrallerian bizi baitira ene bihotz ta gogoa;
gizon batek kondatu gezur hori argitara doa,
haren inbido gorde harentzat botatzen dut hordagoa.

2

Lehen gezurra aski handia behin zeraukun sakatu:
etxetik behi aratxedun bat omen zitzaion faltatu;
aste osoan bazter guziak zituelarik miratu,
zer mirakulu gertatu zaion beharko dut esplikatu.

3

Gogoetatuz zagoelarik oihan baten zabalean,
orro samin bat aditurikan arratsalde apalean,
ohartu omen zen frango fite behi hura bertzaldean
onjo papuna baten azpian zagoela itzalean.

4

Gizon berari Ameriketean gertatu izigarria:
egunto batez galdu zuela papotik muntra urria;
denetan xerka ibilia zen kasik galdurik buria,
ezin kausituz muntra bat nihun galdu hura iduria.

5

Urteño baten buruan ardi zain mendian zagoela,
aditu zuen azantz bitxi bat nunbaitik mintzatzen zela;
ez iduritzen ottea kantuz hola aizan zitakela,
begiratu ta haren muntra zen oino kurritzen zuela.

6

Bertzaldi batez handi goa ba omen dute izana,
haren funtsetan bazen erreka, ura handikan zoana;
aingira bati loturik landan erdi goiti zen joana,
eta oraino aingira harek urean zaukan buztana.

7

Azken gezurra guziek otoi gaurkoan ongi eskuta,
gizon bati hau gertatu zaio mobiletan partituta:
zakur tzar batek malda batean gizon hori akituta,
malda zolarat tiratu zuen zakutxetarik lotuta.

8

Hauxet da gauza miressgarria zinez gertatu beharra,
gertakari hau harrigarria, munduan baita bakarra.
Gizona eta mobilet hura tiratzeko zer indarra!
Zakurra ere gisa horretan ez zitaken arrunt txarra.

9

Azken pertsua irri batekin derautzuet akabatzen,
gizon abilak arizan dira ixtorio hauk kondatzen;
orai artean gorderik zauden, orai ditut argiratzen,
guziek jakin dezaten hola Garazin zer den gertatzen.

Egilearen andreak idatzi kahierra
Herria, 1976-ko otsailaren 19-koa

Bidarraiko basurdea

Airea: Ttiki ttikitik aita eta amak.

1

Sujet berria jakin orduko hastera noa kantatzen,
Bidarra herri maitagarrian huna zer zaukun gertatzen:
ihiztariak hasi zauzkigu basurdien atakutzen,
ustez basurdek ez zuten nehoiz gizon abilik tronpatzen.

2

Goizean goizik partitu dira argia hasi orduko,
bakotxa beren lekutan jarri zelakoan pasatuko;
zakurrak laster erausiaka orentto baten buruko,
ikus orduko tiroka bainan ez zaiote geldituko.

3

Hola gertatuz ihiztariak han zauden dena afera,
basurde hura laster joanik handia zuten kolera.
«Urrunegi zen edo bertzela presatu gaituk sobera»
elgarri erran zuten hitz hori eta joan ziren etxera.

4

Etxerat heldu orduko heien pena handizko tormenta:
«Basurde hura kolpatua duk, zer ihizi errementa!».
Etxekandrea zerri bazkatzen ohartuz bat diferenta,
erran zioten: «Zerritegian atxemana dut presenta».

5

Jakin orduko ezin sinetsiz doatzi zerritegira,
ikus orduko harriturikan hantxetan gelditzen dira,
ziotelarik: «Bera jitekotz etxe-zerrien erdira,
basurde hunen bila zertako joan gira gu mendira?».

6

Basurde hori abila zela nola ez ditake pentsa?
Amodioa agertu baitu etxe-zerri horientza.
Lauetan hogoi kilo baditu, bertzalde zagon aketza,
zerritegiak berritzen ahal tuzue umarrientza.

7

Umarri batzu sortuko dira, zorrotzik beren muturrak,
lamatu gabe uzten badira irauliko duzte lurrak;
basurdek berek dakite zonbat zaizten tirari makurrak,
hola segituz saltzen ahalko duzte arma ta zakurrak.

Garazitik, 22-2-75

Egilearen andreak idatzi kahierra

Herria, 1975-eko martxoaren 20-koa

Amen bestakari

Airea: Loriak udan ihintza bezala.

1

Euskal Herriko zero azpian xoriak baitu kantatzen,
molde bertsean hasten naiz egun gogoko berri aipatzen;
amen bestari hurbiltzen ari girela bainaiz ohartzen,
mementoa da kantuz bederen leia nadien laudatzen.

2

Duela hogoi eta sei urte mundurat sortu nintzana,
ordu da orai aipa dezatan ama on baten izana;
ainguru ttipi nintzan denboran ohako hartan etzana,
lehen behako maitakorrena bazoan amaren gana.

3

Haurtxoa beti amak badaki zertaz dagon beharrear,
behako goxo batzu egiten has orduko nigarrear;
esne sanao xurgatzen nuen edan aldi bakarrear,
ene biziko lehen indarrak zauden zure bularrear.

4

Geroztik hunat denbora joan eta emeki handitu,
orduko izan goxo guziak egun amentsez suntsitu;
amak haurraren ttipiko gauzak denak buruan baititu,
zer lanak egin tuen ikusiz esker onak hartze ditu.

5

Haurtxoak ama estimatzen du joanik ere adina,
xuxen baitaki haren nahira mundurat dela egina;
emazte baten balio handiz maizago orroit bagina,
hobekiago otoitz ginero zeruko Ama Birjina.

6

Emaztekiak ama direnak ezagutzen ditut ainitz,
iragan dute memento frango legunak bezanbat bortitz;
halako batzuk merezi tuzte esker onezko zonbait hitz,
egun haurrikan ez zen sortuko hetarik izan ez balitz.

7

Airatzen gira ezin egonez beti amaren onduan,
denbora goxo atsegingarri heiek direlakotz juan;
bainan halare egonen zira betikotz ene goguan,
ene bizia zurea baita nagoen arte munduan.

8

Amek emanik dugu zainetan gure euskaldun odola,
lore berriak gu gira eta ama da gure arbola;
mundu huntako bide onean manaturik nindagola,
gure gorputza konplitu arte ama ginaukan kaiola.

9

Zeru gaineko Erregina zu, egiten dautzut otoitza,
otoi gaurkoan eskuta zazu zure seme baten botza;
grazia frangoz bete zozute ama guzier bihotza,
bere lanetan azkar lehia ahal dadien bakotxa.

10

Merezimendu gabeko ama bihirik ote da nehon?
Zer egin duten ikusi eta ixilik ez naike egon;
heien umeak giren guziek eskaintzen dugu zorion,
agur bihotzez guzier eta egin-azue besta on.

Egilearen andreak idatzi kahierra
Herria, 1976-ko maiatzaren 20-koa

Emazte zenari

Airea: Amodioa gauza trixtea.

1

Behin gertatu zautan malurrak arraildu deraut bihotza,
lehen goxoki bizi nintzena gaur bakarrik nago lotsa;
hau da zinezko ezinbertzeak eginikako dibortza,
geiago ezin baitiot entzun maite nuenaren botza,
berextalerik krudelena da espos baten heriotza.

2

Zorionean bizi ginenak familian orai arte,
kontsolamendu lokarri hura egin zerauku bi parte;
andre maitea galdu izan dut duelakotz zonbait urte,
geroztik hunat joan zauzkigu zonbait egun eta aste,
bihotzez beti elgarren gaude bainan gorputzez aparte.

3

Andre maitea, gazte denboran harturikan amodio,
espos laguntzat galdatu nuen maitasunaren medio;
alabatxo bat utzi dautazu atseginen ondorio,
hori ez banu kontsolatzaile nork daki zer egin nio?
Ene biziak mementu huntan ez luke deusik balio.

4

Igande oroz jitearekin zure tonbaren ahora,
zazpi ideia mota segurik etortzen zauzkit gogora,
ikusten baitut lehen ginuen maitasuna ezin lora;
Zeruko Jauna, otoizten zaitut joanik ere denbora
geroan tira nezazun otoi andre zenaren ondora.

5

Etxean dutan orroitzapenez nolaz ez naike saltatu?
Eguntto batez alabak hauxet zerautan neri galdatu:
ama zenaren arropa batzu nahi zituela miatu;
ene barnean sukar samina berriz zitzautan doblatu,
arropa hutsak dilindan kusiz ta barnekoa faltatu.

6

Eguntto hartan ez zen enetzat jeiki zinez iguzkirik,
jateko ere fontsikan gabe apetitua izpirik;
ilun-nabarra bezain ilunik ni bezain trixte bihirik,
gaurko gizarte molde berrian ez nuen kusten argirik,
andre zenaren itxura oso gogoan naukan bizirik.

7

Iragan zauzkit ene biziko denborarik ederrenak,
lehen atsegin handitan nintzan eta orai berriz penak;
holako ainitz ikus dezake munduan bizitzen denak,
adios ene zorionak ta egunikan goxoenak,
gure eskasak balia bitza gazte zintzo dagoenak.

Egilearen andreak idatzi kahierra

Xalbador zenari

Airea: Ttiki ttikitik ait-et'amak.

1

Euskal Herritik ukan kaseta Paris aldean leitzean,
lur-ikararen pareko zerbait iragan zait bihotzean,
berri trixtea hedatu baita izkiriozko botzean:
nola Xalbador itzali zaikun betikotz heriotzean.

2

Ezin sinetsiz nindagolarik etortzen zaitan burura
nola pertsutan biltzen gintuen maixu harek ingurura.
Zonbat euskaldun ez du ezarri bere denboran gustura?
Ez da dudarik gure Jainkoak hartu duela zerura.

3

Omenaldiko egun ederraz baliatu da Jainkoa,
zeren ordua jina baitzen zu bere ganat hartzekoa.
Doi bat denbora utziz bizirik guk zorren ordaintzekoa,
eskaini dautzu Nausiak hortaz ainitzez goragokoa.

4

Denbora gutiz gure artean ibili den artizarra,
toki ilunen argitzailea hori izan da bakarra;
euskalzale bat nehor bazagon argia eta suharra,
goizegi joan zaukun laguna, ginuelarik beharra.

5

Euskal mintzairan nehor ote da Xalbador zen bezein trebe?
Zakien dena erakusteko nehoiz ez baitzen herabe;
errient onak kitatu gaitu eskolako haurren pare,
oso gogoan zituen gauzak guri erakutsi gabe.

6

Dohain handiez beteak zauzkan arima eta gorputza,
talendu gaitza ta beti presta nola den ur onen surtsa;
haren pareko uzta ederrak berriz nunbait beza pusa,
zerbait gisetaz estal dadien Xalbadorrek egin hutsa.

7

Odolaren mintzoa utzia dauku orroitzapenetan,
hori dutenek beti Xalbador dabilate eskuetan;
haren dohainak kotsa balitza leitzen duten bakarretan,
atseginetan maitekorrena laike gure bihotzetan.

8

Xalbador gure adixkidea, zaude zerutik begira,
artetan igor aguzu zure iguzkiaren dirdira;
gure pertsutan noiz edo behin berdin tronpatzen bagira,
lagun gaitzazu beti jalitzen zuzena dagon tokira.

9

Gogoan dutan pena bakarra: zure azken egunetan
ez bainintzan hor omenaldian eta zure ehortzetan;
Euskal Herritik urrun nindagon leku galdu batzuetan,
bainan halare ezin ahantzi zaitut ene otoitzetan.

10

Laster pasako baitzaiku guri ere munduko denbora,
sendimenduzko kartsutasunak etortzen zaizkit gogora;
Zeruko Jaunak eman bazaitu bere alde hortan gora,
azken hatsean tira gaitzazu, Xalbador, zure ondora.

Urtarrileko 7-an, 1977
Egilearen andreak idatzi kahierra
Herria, 1977-ko otsailaren 10-koa

Amodio hutsegina

Doinua: Lurraren pean.

1

Amodioa gauza ederra eta neurri gabekoa,
primaderaren aiostasunaz elgarri eskaintzekoa.
Jainkoak egin zeraukun hori gizon andren artekoa,
errespetuaz eta zuzenki ahalaz ibiltzekoa,
gauza sakratu handi delakotz eta oroz gainekoa.

2

Neroni ere hunkitua nau amodiozko sugarrak,
bihotz barnean sartu baitzeraut nola gau oroz izarrak;
behin betikotz debalde utzi nau maite nuen bakarrak,
dolamenaren zorrotasunak hertsatzen dauzkit bularrak,
uraren pare ixur araziz begi barnetik nigarrak.

3

Maitatu dutan izar ederra beste batek ebatsirik,
enekin egin fundamentuak berina gisa hautsirik,
ez ote duzu bihotz barnean egin lanaz urrikirik?
Egin baneza ene bizian holako burla bihirik,
ez nuke nahi nik gehiago minuta baten bizirik.

4

Neska maitea, zer ukan duzu zuk hola gibelatzeko,
maite nauzula eni erranez beste bati fidatzeko?
Lantza ukaldi hori barnean daukat bizi naizeneko,
Jesusek zaukan amodioan bada etsenplu hartzeko,
nola bizia eskaini zaukun populua salbatzeko.

5

Maitasun hori, nola arropa zahartzearekin listu,
berdin berdina gure artean sekulakotz zauku histu;
gozoa zagon elgertasuna bet betan baita murriztu,
hezurak hunkiz muinetaraino egin baitzerautan xixtu,
barnean ilun dagon argia nork nahiko daut berpiztu?

6

Lore maitea, ez nuen uste hola elgarren uzterik,
ene bihotzak ez du geiago zorionezko bakerik;
nere gostura ezin dut pasa ez egun eta asterik,
ezin izana baita munduan ene gustuko besterik,
zure ordaintzat ene bihotza bete liron emazterik.

7

Pentsaketetan egunaz eta gauaz berriz amentsetan,
izan ditaken gauza txarrena gizonarentzat kaltetan;
odola ere gaizki dabila bihotzean ta zainetan;
izar maitea, zure ondoan nindabilan denboretan
hobeko nuen ordu berean hil banintz zure oinetan.

8

Hutsik gelditzen naizen trixtea, nigarra begitar-tean,
ene bihotza oso emanik bertzendua den maitean.
Zortea hola behar banuen nik munduko izaitean,
Jondoni Petri, otoizten zaitut, aingeruekin batean,
maite harekin onhar gaitzazun biak zeruko atean.

Egilearen andreak idatzi kahierra
Zeruko Argia, 1977-I-30

Partarrieu erretor ohiari

Airea: Otxalde eta Etxahun.

1

Pertsu berriak egun kantatzera noa,
maite denaren alde bihotza badoa;
adinak urrundurik erretor gaixoa,
haren eskas handiak kausitzen naiz joa,
sanoki egin baitu gure artzaingoa.

2

Aintzilen zinelarik zertsu den gertatu,
haizu balinbazauzu nahi dut aipatu:
zure denbora ez da debalde pasatu,
aldare aintzin hori berria moldatu,
ta eliza barneko paretak tindatu.

3

Partarrieu, izan da apez bat zuzena,
nik ezagutu dutan artzainik onena,
jendetaz ta elizaz axola zuena;
pertsutan agertzen dut Aintzildarren pena,
orroitzen gurekin geldituko dena.

4

Landare ttipi nintzan zu jin zinelarik,
berdin gaizki lerrakor zaiken heietarik;
zuk ez bazindu hartu guretzat artarik,
zuzen menderatzeko, ez dago dudarik,
girixtino on guti zitaken gutarik.

5

Zure bertutez gira emanak argira,
gure lehen urratsen emailea zira;
ezin uka ditaken iguzki dirdira
sartu deraukuzuna bihotzen erdira,
zure alde zorretan geldituko gira.

6

Jainkoak buhaturik egin dituzunak,
erakutsi dauzkigu zure nortasunak;
gaizkia berdin maite baitu haurtasunak,
zer den argia eta zer diren ilunak
jakin arazi dauzku duzun maitasunak.

7

Haurretik egin zinen Jainkoaren mutil,
Haren legea jakin zuk nola erabil;
apezetasuna zure gogoan badabil.
izan gaitezen tonto ala berdin abil,
Jainkoaren bakean behar ginuke hil.

8

Zerbait gostarik egin baitzinen jakintsun,
erreprotxurik nehoiz zutaz ez dut entzun;
handi ala ttipiak zureak gintuzun,
ikusiz zonbat xuxen gidatu gaituzun,
ezin uka daike zoin bihotz ona duzun.

9

Hogoi urte eginik Aintzildarren apez,
lan onik egin duzu denboraren epez;
saila ereman duzu aise bezain nekez,
traba frango izanik bide hortan trebes,
ez duzu utzi bide erditan herabez.

10

Argitu izan gaitu beti zure garrak,
zu ganik gintuela Jainkozko indarrak:
hunkigarriak zure prediku suharrak,
arimetan piztuak tuzun su pindarrak
lotu badira salbu ditazke bakarrak.

11

Zure nortasuneko bertzerikan nehon
ez dut uste hoberik munduan badagon;
gure artzaina luzaz zirelakotz egon,
Jaunari diot eman dezazun zorion,
gutaz orroituz luzaz bizi zaiten Kanbon.

12

Zure orroitzapena gutan ez da hila,
hanbat ona izanik denentzat umila;
Aintzildarren desira zutara dadila,
ez ibilirik ere laudorio bila
herritar denen partez dautzut esker mila.

Egilearen andreak idatzi kahierra
Herria, 1977-ko martxoaren 10-koa

Artzaineri

Airea: Pertsularien bat.

1

Eskual herriko mendi gainetik entzun artzainen mintzoa:
«Ardiak dira gure lagunak eta xakurra auzoa;
gure bizia urosa dela dionak eta gozoa,
egiaz egun erran behar dut hura ez dela zintzoa.

2

Askok diote gu gabiltzala orai bide ederretan,
lehen autorik ez zen ibiltzen gure mendien gaintan;
udatiarrek ere sudurra sartzen baitute denetan,
ainitz etortzen ikusten ditut gure ardien kaltetan.

3

Bakotxa baino iduri dela urosagoa bertzea,
hiritar batek erran daut: “Banu zure onaz bizitzea!”.
Errepostutzat itzuli nion nahi zuen trukatzea,
artzain izanak ere berekin zeramala kurutzea.

4

Gure kezketaz ere gaurkoan doi bat mintzatuko niz,
merezi duten batzuk aditu ditzaten gutarik bi hitz;
asko dabilta artzain intresak zangoperatuak nahiz,
ta *Roqueforra* nun jan lirote nehoiz artzainik ez balitz?

5

Pakasak¹ ere hartzen derauku urte oroz emendio,
saltzen ditugun gauzak merke ta bazkak sobera kario;
geroko horrek ekar dezake beraz ainitz ondorio,
pentsaketan naiz gaur artzaingoak ote duenetz balio.

¹ Pakasa: bazkasaria.

6

Pertsu berriak ditut gaurkoan hemen denentzat ezarri,
galdatzen diot ene solasak irakur dezazkenari:
hautatzen badu gasna apairu baten ondoko janari,
errespetua ekarri dezan hura egin artzainari».

Egilearen andreak idatzi kahierra

Apez ordenatu berriari

Airea: Ttiki ttikitik aita ta amak.

1

Pertsu berriak oseba baten ahotik egun doatzi,
gure iloba apeztu dela nahi dut jakin arazi;
fedea beti atxiki duzu nola baituzun ikasi,
arima frango salba dadien erakusterat zoazi.

2

Kontseilu on bat emanen dautzut daukazun apeztasunaz,
ongi balia zaite Jainkoak eman dautzun ontasunaz;
behar orduan urrikal zaite egungo mundu ilunaz,
Jainko-argia sar arazteko zuhauk ikasi duzunaz.

3

Jainkoak galde egiten baitu bere gostuko lurrari,
uzta ederra sort araz dezan gosez daudenen janari;
halaber zuhaur egina zaitu arimen kudeagarri,
bere eskutik tuzun graziez guzientzat zerbitzari.

4

Artzaintza baita ofiziotan betitik baliosena,
Maurice, zuk ere hautatu duzu lenagoko Jesusena;
artalde baten artean aipu baduzu Haren izena,
lagunetarat bilduko zauzu bazter aire dabilena.

5

Zure bihotzak adituz geroz Jaungoikoaren mintzoa,
ordu beretik atera zinen gizon alai ta zintzoa;
jenden artean izan zaitela maitekor eta gozoa,
etsai konduan dabilan hura bilaka dadin auzoa.

6

Iloba, otoi eskuta zazu orai zer erranen duan;
gauza tentakor ainitz ikusi beharko duzu munduan;
begira zaiten otoitz egizu gisa hortako guduan,
artzain sana nahi baduzu bizitza hunen buruan.

7

Maurice Arretx, gaur ene pertsuak doatzi beraz burura,
osebak eman etsenplu onak ibil gogoan ardura;
apez karguan zaude zintzoa ta sekulan ez lilura,
menean tuzun arimak denak hel arazteko zerura.

Egilearen andreak idatzi kahierra

Bi anaiak

Aiherran, 1977 Bazko egunez

Arrossagaray: etxetik hirirat joan nahi gazte bat; Mixel Xalbador: etxeari atxikia den anaia zaharrena.

Arrossagaray

Etxe maitea, zutaz kanpoan, hauxe daukat erraiteko:
arbasok guri utzi zaituzte ondotikan segitzeko;
bainan hirirat joan nahi dut diruz doi bat berritzeko,
zutaz ikusten dutan ziloa geroxago estaltzeko.

Mixel Xalbador:

Kontseilu baten emaitera ni noa gaztearen gana,
gaur arrangura dute ainitzek nun izanen duten lana;
urrunago den zorion baten itxurak zu ez engana,
Euskal Herriko gure etxetan da zinezko zoriona.

Arrossagaray:

Ene barnean erran behar dut orai zer dutan senditzen,
mogimendu bat egin ez nezan bihotza zauta higitzen?
Laborariak hasi gaitezen gure gauzetaz argitzen,
honela hasi gaiten oraino zorion horren haunditzen.

Mixel Xalbador:

Gu beti gaudez jabe burason ganik ukan diren xeden,
ikusiz heiek nola borrokan ari diren mende laurden;
zenbaitetan gu hortako ustez zoriona hirian den
ez egon eta heien laguntzen sort-etxetan beti gauden.

Herria, 1977-ko ekainaren 30-koa

Artzainen Galbarioa

Airea: Oilanda gazte moko fier bat.

1

Pertsu berriak ateratzen tut artzain gaixoen gainean,
merezimendu frango daukate bakotxak bere heinean;
batzu gazteak eta bertzeak iraganak adinean,
artzain bizia trixtea dago bera xahartzen denean.

2

Artzain dagonak zinez badauka zainetan eskual odola,
bere etxerik eta lurrikan gabe bizitzeko hola,
ardiak lagun bakarrak ditu –nola ditake kontsola?–,
gauza guzien eskergarria deraukalarik etxola.

3

Urte guziez ardien bazkak erosi behar baititu,
iguzki sano azkarrak behar dio frangotan argitu;
buru hausteak artzain dagonak betitik ditu senditu,
gogoan dauzkan gauza guziak obratu nahi baditu.

4

Negu guziez bazka tokiak ditu etxe kanbioan,
intresa guti balinbadu're pagatzen emendioan;
posible ez den gauza ditake hola bizi serioan,
bere partea balia dezan biziko amodioan.

5

Artzainen bizi moldeak beti nekeak ditu ekartzen,
behar gabeko ostiko frango uste gabez baitu hartzen;
egiten tuen galde xumeak buruzagik ez onhartzen,
merezimendu duena ari baitute lurpean sartzen.

6

Dretxo zuzena egina balitz artzainek baliatzeko,
laguntza guti ukaiten dute lanaren saristatzeko;
buruzagiak onak baliuzte hauek doi bat sustatzeko,
xantza geiago izan lirote amodioz ezkontzeko.

7

Urrikaltzeko baita frangotan artzain gaixoen bizia,
hori dakien batek baizikan ez du hori ikasia;
eta gainerat izaiten dute askoz zorte eskasia,
berak penetan eta bakarrik, arditan agalatzia¹.

29-6-77

Egilearen andreak idatzi kahierra

¹ Agalatzia: ardien gaitz bat.

Bernadette Bordari

1

Pertsu batzuen agertzerat gaur noa burutik burura,
adixkidea daukadan bati egin nahian agurra;
egun konplitu nahia nuke aspaldiko arrangura,
solas haukiek heldu ditezen maite dituzten lekura.

2

Euskal Herriko zelai maitean ogiak dira burutzen,
egun bizirik ikusten dena lehen denboran galdu zen;
emaztekiak hasiak dira pertsutan gure laguntzen,
laguntza horren gakoa sortu izan zaiku Amikuzen.

3

Ene gogoan sendimendua orai ezin baitut gorda,
aspaldi gure nahia zena oraiko obretan hor da.
Ez dakienak erran lezake: «Emazteki hori nor da?».
Oraarren hau sortu da eta deitzen Bernadette Borda.

4

Gaurko andretan pertsu idazten zuhaur baitzira bakarrik,
hazi sanoa gure Jainkoak jali du zure baitarik;
bertze batzutan ez badu hartzen dohain on horrek indarrik,
Euskal Herrian kusiko dea zure pareko izarrik?

5

Pentsu dutanaz erran nahiak nituzke orai zonbait hitz,
bide nekea hartua duzu, askoz izaiten da bortitz;
zuk ere nahi izan baituzu horren alde egin ainitz,
zu bezalako naiago nuke dotzena erdi bat balitz.

6

Solas ederrak leituak ditut zure buruak emaiten,
ez zait iduri adin hortako hobeagorik balaiten;
zure jakintza jende guziek ontsa konpreni dezaten,
Zeruko Jaunak lagun zaitzala munduan luzaz irauten.

7

Iraupenaren zoriona da mundu huntako gozoa,
euskarak daukan hezur muinean hedaturik zure soa;
pertsularitzan bilakatuz zu zinezko gure auzoa,
ahal guziez lagun dezagun Euskal Herriko urtzoa.

8

Neska gaztea, pertsularisa, zinez baitugu atsegin,
erran ditake zeru gainetik uste gabez zaukula jin;
gazte lagunak, entsea zaizte zuek egiterat berdin,
Euskal Herriko hazi sanoa emendatuz joan dadin.

9

Harritu nuzu azken aldian Mattini eman kantuz,
zure bizian balia zaite duzun dohain loratuaz;
zure aitamak goresten ditut sendimenduzko botuaz,
zorian ainitz hartze baitute mundurat eman fruituaz.

10

Bihotz erditik agurtzen zaitut, Euskal Herriko lorea,
odol sanoaz bizi zarena nihun parerik gabea;
hartu bezala segi aguzu mintzaira hunen bidea,
gure lurreko arbola beti egon dadien berdea.

28-8-77

Egilearen andreak idatzi kahierra
Herria, 1977-ko irailaren 15-koa

Itxaro Bordak Jean Arrosagarai-ri

Airea: Pertsularien bat.

1

Aintzine hortan Xalbador eta Mattin ez zauden, ez, lasai,
beldur baitziren bertsozaleen arraza hilen zela bai.
Baina gaur egun Euskal Herriko zerupeak dira alai,
ari baitzare bertso moldatzen Garazin, Arrosagarai.

2

Arrosagarai, zure bertsoek egin didate atsegin,
baina zergatik merezi tuztan nahi nizuke galdegin.
Egia da, bai, gure artean euskara dela erregin,
bertsoez beraz Oraarrak du Aintzildarrai agur egin...

3

Lehen aldikotz bertsolariak ikusi zaituztet kantan,
Urepeleko Xalbador haren omenaldi egun hartan...
Bertsolaririk ikusi gabe ari nintzan debaldetan
hitz lerrokatzen, baina bihotza maitetasunaren sutan.

4

Munduan ez dut ezer ulertzen, ni naiz jostari tristea,
bakar bakarrik ta aspertua, Hitza da nere maitea...
Ez da errexa ikastetxean euskalduna izaitea,
baina halere zor diot noizbait bertso idazten hastea...

5

Musde telebist ez da errege izan gure sukaldean,
berdin euskara kasik ahantzi dut eskolako bidean.
Lore izenak, maitasun hitzak, denak mespretxu barnean,
ahalgegarri agertu nintzan herriaren aintzinean.

6

Orain euskara erabiltzen dut baina hinki hanka noa,
kristau berria iduri eta barnez kartsu paganoa.
Jaz Eguberriz eskutan hartu dut zoriona zintzoa:
Xalbador zenak in liburua, bai, *Odolaren mintzoa*.

7

Bertso moldatzen hasi ondoren erosi nuen *Herria*,
ta hor ikasi nolakoa zen Euskadi ner'aberria.
Kaseta hortan ba da neretzat nasai janari berria,
besterik ez zait agertzen egun hau bezain maitagarria.

8

Nere ondoko batzuk diote arrazista bat naizela,
bihotz barnean Euskal Herriak toki sobera duela.
Hori adituz urdintzen zeraut arrotzak egin uspela,
histutzen abian zela nere zero jadanik goibela.

9

Badakit argi asko ta asko ba dutala ikasteko,
gure Jainkoak ez ote digu eman bizia hortako?
Nere xedea argitzea da aberri baten josteko,
iduri baitzait hemen garela herriaren maitatzeko...

10

Zu, laborari langile, eta zu, ikasle, bertsoan has,
Euskal Herriak libertitzeko urtxoak baititu eskas.
Lehen arrotzak gure ahoak hetsi ba zituen arras,
oraindik denek bihotz indarra ederrez dezagun nahas...

11

Arrosagarai, hasian hasi ez zaitut nahi aspertu,
adiskide bat bezala zare nere alderat agertu.
Guk euskaldunak Garazi hura behar ginuke eskertu,
han baitirade seme lerdanak beti euskaldun edertu...

12

Bertso andana huntan ditake asko huts eginik segur,
halere aitor nezake egun: lotsatzeko ez naiz beldur.
Eta bihotzez, Arrosagarai, eskerrak ditzadan bihur,
zuri lehenik eta gero, bai, Aintzilari ere agur...

Itxaro Borda

18-9-77

Herria, 1977.09.29

Urrezko ezteieri ohore

Airea: Lurraren pean.

1

Martxoko lauan sartu izan naiz zinezko atseginetan,
zorionezko berri ederra jakin izanik bet betan;
urrezko eztei eder batzuek ikusi ditut kasetan,
Erramun eta Maider bi hauek zorionezko mugetan,
berroita hamar urte maitasun frogatu dute obretan.

2

Beti gogoan naukan, Erramun, zure ontsa gorestea,
egun bakarrik ezin egina, zure esposa bestea;
onhartu izan duzue biek biziaren onestea,
munduan baita gauza frangoren ainitz aldiz irestea,
guziak jasan izan tuzue, laguntzaile sinestea.

3

Aspaldi nahi nituen gauzak zure pertsuak bixtara
gure Jainkoak ekarri dauzkit ene nahizko gisara;
zonbat zorion harturik nagon egun dezaket deklara,
eskuraturik zure biziko kantu kopia bakarra
atsegin horrek jauts arazi daut zoramenduzko nigarra.

4

Erramun Trounday, laguna Maider, zorion eta ohore,
zuek emanik ikusi ditut lur huntarat zonbait lore;
denak ohorez ongi hazteko izan duzue balore,
denen buruan ikusten dugu baduzuela omore,
bizi egonez luzaz, Erramun, eman pertsuak gero're.

5

Sei haur haziak dituzue ta aingeru zazpigarrena,
bixtan dena da joaiten denak beti emaiten du pena;
bainan munduan bizi direnek egin izanik berena,
xaharretarik solas hau dago beti entzun izan dena:
aitamendako zeruan haur bat dela gauza handiena.

6

Zuen fruituen fruituak berriz kondatzen tut hamazazpi,
baratze horren balio ona gure Jainkoak badaki;
bakotxak beren sailean denak zuzen ditu eramaki,
landare finak daudela oro agerpena dute naski,
aitamek hoitaz hartu baitute onerako erabaki.

7

Ene partetik ordu zen hasi nindadin zuen laudatzen,
zuen etxean behin ni izan nintzala zait bururatzen;
Erramun, zure erran zuhurra ez zait gogotik aldatzen:
gizonak beti behar zuela jakin bizia maitatzen;
zuena hala pasatu dela orai aise dut jukatzen.

8

Kapittainaineaz Ortzaitzen nik beti naukan adipena:
zer familia xoragarria lanetik hazi dutena;
gizon ta andren artean hori baita gauzik ederrena,
amodioan bizi luzeaz bedi zuen gozamina,
beti iraunkor izan dadien biziko orroitzapena.

9

Lehen ixilik zagon xoria hasiz pertsuzko lanean,
nihaur xoratu izan bainaute irakurtu duztanean;
a zer erbia lotan zagona Ortzaiz-Kapittainainean!
Ene pertsu hok eskuratzean desira hoberenean
goresmen eta goraintzi diot Garaziren izenean.

(4-3-1978) Egilearen andreak idatzi kahierra
Herria, 1978-ko martxoaren 23-koa

Maite dena ezin ukan

Airea: Ttiki-ttikitik aita ta amak.

1 Mutikoa:

Euskal Herriko izar ederra, heldu nauzu zure gana,
bihotzez eta gogoz gustatzen baitzeraut zure izana;
maitasunaren mintzoak deraut ideia hori emana,
ene andretzat galdatzen zaitut, onhar nezazu nizana.

2 Neska:

Mutil gaztea, ontsa aditu ondoan zure galdea,
karkulan sartu behartzen nauzu: gomit hoberik badea?
Espos laguntzat nola bada har dezaket zure aldea?
Xahar bortitzak dituzu eta handiegi etxaldea.

3 Mutikoa:

Izar ederra, badakizu zuk zonbatez zaitudan maite,
otoi nik egin galde onaren onestaile izan zaite;
xaharren beldur horren gantikan nekea izan balaite,
haste hastetik onhartzen dautzut, jarriko gira aparte.

4 Neska:

Solas ederrak entzun ta ere ez nauzu segur bilduko,
beste ezkondu batzu ikusi izanak ditut lekuko;
urostasuna ez dut segurki arinkeriaz galduko,
tristeia frango bilakatzen da behin ezkondu orduko.

5 Mutikoa:

Hirirat eta nahi dukezu gozatu urostasuna,
iduri hango bizi moldeak ekartzen duen fortuna;
lurraren beldur zirelakoan bazterturik maitasuna,
berriz ere nik gozatu behar betiko bakartasuna.

6 *Neska:*

Esklabotasun ainitz badira laborarien etxetan,
barneko lanak egin behar ta segidan kanpokoetan;
gizonak aldiz laguntza guti andren barneko lanetan,
hemen esklabo baino hobea da hiriko bizi moldetan.

7 *Mutikoa:*

Orain serio ezartzen nauzu zure solaser pentsatuz,
ene bihotza egunez egun beti badoa trixtatuz.
Guretzat makur handia dago zuek hiria maitatuz,
zer irabazi ukanen duzu Eskual Herria ukatuz?

8 *Neska:*

Ez pentsa gero Eskual Herria ari naizela ukatzen,
holako deusik egiterikan ez dut bihotzez asmatzen.
Ikusia dut, nitaz hasia zare bertzalde dudatzen,
izana ez da sekula santan solasetarik jukatzen.

9 *Mutikoa:*

Laborantzako lanak hastio, hirikoak nahiago,
gure geroa manera huntan zer modutan ote dago?
Neska tematsu orain bezala geroan ere badago,
ikusiko da laborantza hau behin betikotz akabo.

10 *Neska:*

Badakit, mutil gaztea, egun ez daukazula atsegin,
zure nahia duzulakoan bizi guzikotz hutsegin;
ezkontza hori egin zitaken zuk nahi bezala berdinean,
galdegin izan baninduzu ni hirirat partitu aintzin.

(28-2-78)

Egilearen andreak idatzi kahierra
Herria, 1978-ko apirilaren 6-koa

Urrezko ezteiak

Airea: Xarmegarria zira, eder eta gazte.

1

Pertsu berriak egun bihotzez doatzi,
oraikoan sujeta baitaukat Garazi;
Ezterenzubikoak ezin tut ahantzi,
merezki dutena gaur dute irabazi.

2

Bettiriaz betitik badut entzutea,
Mari eta Martiren dago gorestea;
berroita amar urtez elgar jasaitea,
hori da zinez biek maite izaitea.

3

Maitasun eder horren urte mugakari
platinazko ezteiak zonbat xoragarri;
horiek ditutzue, Marti eta Mari,
bizian erabili lan guzien sari.

4

San Frantziskotik jinik familia Juanes,
Jan Piarre, andrea, aitamen omenez,
urrats handi bat hola bihotzez eginez,
aitamak maite tuzte, ageri da zinez.

5

Batixta, emaztea ta haurrak Angelun,
zuen bihotzak hola ez dagoki ilun;
aitamak osagarriz azkar dira egun,
gehiago irauten, Jainkoa, zuk lagun.

6

Jeanne eta Mayi dira berriz Biarritzen,
odola nundik duten baitute senditzen:
aita ama guziek diote argitzen,
hek ere maite tuzte, ez gira harritzen,

7

Beñat seme geiena dago Bettirian,
aitamen ordaintza du eman agerian;
desiratzen diogu sortu den herrian
berdin egin dezoten bere tenorian.

8

Agur eta ohore, Mari eta Marti,
merezimendu ainitz ukanikan beti.
Zuen ohoratzeko nola ez gu xuti,
hortarat heltzen denik baita arras guti?

9

Sei haur ukan ondoan egin behar buru,
biltzen zirelarikan aitamen inguru;
maitasun beraz zauden munduko aingeru,
familia pollita zagon Gezainburu.

10

Burrasotasun hori beti ongi betez,
denbora joan daike beti elgar maitez;
gure desira dago erteko hitz batez:
bizi egon zaitezten hola ainitz urtez.

11

Aitama amultsuak izanik munduan,
huna zer gaur nitarik bihotzez baduan:
desiratzen dautzuet guzien buruan
tokirik hoberena zuentzat zeruan.

Egilearen andreak idatzi kahierra
Herria, 1978-ko ekainaren 15-koa

Apendizitari adio

Airea: Andereño bat ikusi nuen.

1

Mila bedatzi ehun ta hiru hogoi ta hemezortzia,
ene gorputzak hartu izan du orduan diferentzia;
urte bat aintzin ainitz sofritzen barnetik nintzan hasia,
nehorri ez dut nik desiratzen holako penitentzia.

2

Maiatzak daukan hamahiruan operatu nindutena,
behin betikotz kendu dautate ene etsai handiena;
apendizita baita erdaraz hau izendatzen dutena,
agertu aintzin zonbait lazadura eman arazten duena.

3

Koxe Mari Larr'izan da ene kuraiaren emailea,
bere eriez arta duena, hau zinezko langilea;
bihotz guziaz estima daike dagon ongi egilea,
Jainkoak luzaz bizi dezala holako sendagilea.

4

Alain Anderson adixkideak ere egin guardiak,
ezin ahantziz gelditzen zaizkit hamarretarik erdiak.
Nola artzainak segitzen ditu bere meneko ardiak,
zuek enetzat berdin eginik ainitz maite zautzet biak.

5

Maiatz hamabi aldean sartu nintzan Izpuran klinikan,
nahi ala ez partitu behar, ezin egin bertzerikan;
gauza ttipia zela pasaia lehenago jakinikan,
esperantza hau gogoan naukan: jitea sendaturikan.

6

Biharamuna hamahirua abisatua ninduten,
ene bihotzak bai eta zainek beldur aire bat bazuten;
orratz xixta bat eman orduko ez nuen deusik entzuten,
ene gorputza hilik bezala laster ezarri baitzuten.

7

Lokartu eta fitesko baitzen orentto baten buruko
ohartu nintzan berriz gostua baneraukala munduko;
ustez ez naukan solas ahulik ene ahotik galduko,
nahi guziak erran arazi dauzte botza jin orduko.

8

Erran dautate pertsu bat ere kantatu dutala merke,
ospitaletan ere dabilta naski irriaren eske;
erdi lotarik eman pertsua zer den kurios nintake,
norbaitek kanta balezaut hura gogotik paga nezake.

9

Zortzi egunez, artatzaileak, onak zaituzte jujatu,
merezi baino hobeak ainitz zareztelakotz gertatu;
ta ni zuentzat zer ote nintzan hori ezin dut asmatu,
ontsa erranak gogoan hartuz otoi gaizkiak barkatu.

10

Ospitalea, zure parerik nihun ez dago ederrez,
senda lekua zirelakoan eta azkarra indarrez;
bainan bizian orroituko naiz zure barneko nigarrez,
Jaunak begira nezala berriz jitetik zure beharrez.

(15-6-78)

Egilearen andreak idatzi kahierra
Herria, 1978-ko uztailaren 27-koa

Arbolari kantuz

Airea: Andereño bat ikusi nuen.

1

Hasi bezala pertsutan daukat betitik ene gogoan,
aments batean egin dutana egun egirat badoa;
Jainkoak eman dautan ideia agertzeko dut erroa,
guziek jakin dezaten zer den arbolaren balioa.

2

Arbolatikan egiten diren asko gauz xoragarriak,
horri pentsatuz kausitzen dira bihotzez hunkigarriak;
mundu guziko lurretan ditu Jaunak bada ezarriak,
balio handiz derabilzkigun gauza estimagarriak.

3

Neguan hutsik ta primaderan ostatu arbol alaia,
zonbat klasetan kausitzen zaikun izanduna ta nasaia;
oso gogoan denak jujatuz hartu dezagun usaia
arima hartze luken gorputz hau izendatzeko anaia.

4

Ez dut ikusten ene bizian zutaz gabetu herririk,
diren guziak erranen ditut hobekienik hasirik;
etxeak dauzkan zurtateak ta leioak eta aterik
kausi zaikena, ez bazintu zu Jaunak atxiki bizirik?

5

Eskuko tresna denen giderrak eginak baitira zurez,
gainerateko klasea frango guziak arraza berez;
horiek denak gizonarentzat eskaini dira beharrez,
zonbat kabala ez zaiku hazten gaztain, pahatx ta ezkurrez?

6

Horren beharrez gabiltzala gu beraz gutiz gehienak,
egia dela hori argi lezake gauza dakienak;
arbolak dira gure munduan denetako beharrenak,
zeren jendeak hoitarik ditu jaten fruiturik onenak.

7

Zuraz bestalde ederragorik zer dagoke sukaldean?
Nehork ukatu ote lezake agertzen dutan moldean?
Xamindeiako patantxa ere zurez baitago gordean,
kadera baten gainean jaten dut mahainaren aldean.

8

Argiratzea gauza horiek gaur ene gogoan dabil,
hortaz behartu gabe egunik ez baititake erabil:
egun guziet zure gainerat behartzen baigira umil,
ohe zurean sortuak gira ta han nahi ginuke hil.

9

Biziak bizi, joanak joan, guziak hala beharrez,
arbolak beti hunkiko gaitu bere izaite ederrez;
jende biziak bai eta hilak hartuz bere aztaparrez,
azken pertsuko hitza gogoan bihotza daukat negarrez.

10

Agur bero bat eskaintzen dautzut mundutarren izenean,
zure beharra izanen dugu denek azken egunean;
gauden bizirik, beste hartara aldatuko garenean,
azken tokira joanen gira zure lau pusken barnean.

(6-VI-79)

Egilearen andreak idatzi kahierra
Herria, 1979-ko abuztuaren 23-koa

San Frantses Jatsukoari

1

San Frantses Jatsukoa, saindu maitekorra,
laguntza galdez gabiltz jinik zur'ondora;
zure esku zabalak denak gaitzan xora,
guziek gozatzeko zeruko alorra.

2

Azken hatsa emanik Xinako bidean,
zer iguzki ederra zen zure barnean!
Parte nahi ginuke zinauan fedean,
berdin erabil gaiten zoin gure aldean.

3

Nafarroko semea zintzoa izanik,
Jainkoak sendi zuen zerbait zure ganik;
sainduen herronkarat zuhaur eremanik,
Eskual Herriak ez du itzaltzeko lanik.

4

Munduko bizia da frangotan nekea,
gutarik urrun dadin su gaixtozko kea;
otoitzez zuri, Frantses, dautzugu eskea,
heda dezazun beti maitasun bakea.

5

Zerutik beha zaude begiak argirik,
San Frantsez saindu handi, arima bizirik;
artzain onak galdu ez dezala ardirik,
esku emazu bazter ez gaiten bihirik.

1980-eko Martxoaren 10-ean
Egilearen andreak idatzi kahierra

Gaizki mintzo direneri

Airea: Ttiki-ttikitik aita ta amak.

1

Gogoa pizu deraukat eta usu mintzo zait bihotza,
idaian dutan gauza zuzen da gaur pertsuz dezatan osa:
askok eztena bezain mihia baiteraukate zorrotza,
Jainkoa gatik bederen gaizki mintzatzeaz gaiten lotsa.

2

Berria laster hedatua zen ihurtzuri bat bezala
Jutsin gizon bat eta Ahatsan emazte bat hil zirela;
gezurtatua zagon egia gertatu baitzen horrela,
geroan laster kantatu zuten gaizki entzuna zutela.

3

Ez dakit gaurko jendeak norat ari giren bilakatzen,
ikas dezagun gezurrak utziz egia bera kondatzen;
jenden bizia Jainkoak baitu bakar bakarrik manatzen,
jakin dezagun gure mihia zazpi aldiz inguratzen.

4

Munduan behar den gauza dugu bakarrik amodioa,
zuzen kontra ez bedi errana izan gauza serioa;
sortuz geroztik denen bizia beti aintzina badoa,
galdatu gabe aski goizikan jinen zaiku herioa.

5

Agian berriz ez bedi entzun gisa hortako berririk,
gaizki dabiltzan aho guziak egon ditela hetsirik;
solasek ezin kendu baitute mundu huntako argirik,
jaun andereak, gaur luzeago egonen zaizte bizirik.

6

Mundu barnean guziak gaude elgarrendako haurride,
orduan beraz zertako dabil horrenbeste elapide?
Zintzotu egin gaiten guziak onerat eginez bide,
etsaiak ere bilaka diten sekulakotz adixkide.

7

Nahiago dut hedatu hitza ez baita egia izan,
bata bestea nik ezagutzen ere zaituztedan gisan;
luzaz ar zaizte biak Jainkoa ta familien zerbitzan.
soberakinak ez zaitzelakotz Jutsin bai eta Ahatsan.

Martxoko 12-an 1980
Egilearen andreak idatzi kahierra
Herria, 1980-ko Martxoaren 27-koa

Ene kusi bati

1

Pierrot eta Françoise, biak zonbat zaituztetan maite,
hori guhaurek baizik nehorek munduan ez baitakite;
zueri dugun zor handi hori ezin baitezaket bete,
horren ordainez orroituko naiz bizirik nagoen arte.

2

Gure Jainkoak kreatu zauzte segur izaitte onetan,
zuen bizia pasa dadila urostan ederretan;
egin duzuen ongi ederra daukat gogo bihotzetan,
merezi dugun baino hobeak izan baitzaizte miletan.

Egilearen andreak idatzi kahierra

**Donibaneko elizan
kantatu pertsuak
Airea: Lurraren pean.**

1

Munduko bizi hau dakiguna denek zonbat den zorrotza,
lagun gaitzazu otoi guziak zuzenki dezagun osa;
urrikalkorra baita betitik zure bihotz amorosa,
aita semego huntaz guziak sekulakotz gaiten goza,
ardiesteko eskaintzen dugu arima eta bihotza,
arima eta bihotza.

2

Zeru lurretan azi onenak beti baitaude erainak,
ahalaz zuzen obra ditzagun egin behar diren lanak;
estimu handiz errespetatuz Jainkoa ganik ukanak,
lenago bezain kartsuak dauden gure fedezko izanak,
ardi haueri emazkiguzu behar ditugun artzainak,
behar ditugun artzaina.

Egilearen andreak idatzi kahierra

Ene lagun Mendibururi

Airea: Pertsularien bat.

1

Mila bedatzi ehun ta hirur hogoi hameka urtean,
pertsu pollitak igorri zauztan irri aireño batean,
Lurdan nintzala untzi ikuzten ari udaren betean,
aitamak berak utziz etxean lanikan handiengan,
arrazoin horrek hunki ninduen gogo bihotzen atean.

2

Geroztik hunat joan zerauku ohartu gabe denbora,
zure errana zuzena zela askotan jin zaut gogora;
orduan xori itxuran zena jin da urtxoen gradora,
koblari ona etorri zautan behin betikotz ondora,
elgarrekilan beira dezagun eskualdun herria gora.

3

Bihotza norat eta haraino badoa ene mintzoa,
pertsu ederren kantatzen entzun izan dut lagun zintzoa;
Heletar seme Mendiburu hau dohain handien gozoa,
sortzetik hunat berekin dauka eskualdunaren bertsoa,
Eskual Herriak berekin dauka mezularien urtzoa.

4

Pertsularien gradoan ona da eta badu ahala,
alaitasunez estaltzen dauku bihotz guzien itzala;
Zeruko Jaunak ainitz holako mundurat eman ditzala,
zure pertsuak adituz aitor dautzut harritzen nizala,
koblari handi atera zinen udan onddoa bezala.

Egilearen andreak idatzi kahierra

Urte berria xaharraren anaia

Airea: Andre Madalen.

1

Urte xaharra eta berria nahi nituzke aipatu,
lan ttipi hori egin dezatan lagunek naute manatu;
berriaz zerbait erran nezan ta xaharra berriz laudatu,
orroituz nola dugun iragan dena bakean pasatu.

2

Batto itzali orduko berriz agertu zaiku bestea,
nola xahar bat hiltzen deneko munduratzan den gaztea;
iragan dena bururatu ta neke baita berextea,
zoinek ekarri dezaken bada nahi dugun suertea?

3

Ur handitzeak ta lur ikarak, gerlak ere izan dira,
gertakari hau ez daike izan zorionaren dirdira;
urte berrian erori gabe putzu handien erdira,
lanjer gaixtotik atera gaiten Jaunak gaitzala begira.

4

Ikusi denaz mintza ditaike, heldu zaikunaz menturan,
nahiz bat ala bestekoaren junta orai dagon hurran;
geroaz denak egoiten gira frango gauzez arranguran,
orai, urtea, zuhaurek juja zoin ona nahi zaitudan.

5

Goxotasuna beti irauten baitago gauza nekea,
alta odola ixurtze hori ere ez dago merkea;
ene barneko sendimenduez hau konpara nezakea:
amodioa arima dela eta gorputza bakea?

6

Mundu guziko boteretsuek gaur banindezate adi,
bake solasa ez dut pentsatzen geldi laiken bide erdi;
maitasun ona bihotz barnetan betikotz koka baladi,
kontzientziak egin galderi denek lirote obedi.

7

Amodioa izan dadila mundu guziko filusa,
horren eskasa sendi duena ere dadiela usa;
gozamen horren izaite onak gutan ez baleza luza,
ustelduko da arima gabe aurkituko den gorputza.

8

Bihotz gogoak batetaratuz desiratzen dut urte on,
aspaldi hori egin nahian mundu barnean nindagon;
mundutar anai-arrebak oro elgarrekin gaiten egon,
ahalaz luzaz goza dezagun ainitz bake ta zorion.

Egilearen andreak idatzi kahierra
Herria, 1981-eko urtarrilaren 29-koa

Zakurra eta gatua

Airea: Oilanda gazte moko fier bat.

1 *Zakurra*

Gatua, zuri mintzo natzaizu, sortu zaren errebela,
orroit zaite ni zakurra naiz ta azkarragoa naizela;
ene bazkatik ez jaten hasi berriz goizean bezela,
zure errainek guri aldi bat bilduko dute bestela.

2 *Gatua*

Errepostua derautzut zuri, zakur beharri luzea,
zure bazkatik nik ezin jana, hauxet da ezinbertzea;
arraza bera ez girelakotz hola mokoka artzea
baino hobea ginduke biek bake on bat moldatzea.

3 *Zakurra*

Eleak dira zure ahotik gezurrak heldu maizenik,
ez pentsa, gatu, zure erranez gaur fidatuko naizenik;
bakea biek egin ta gero zuhaurek hautsiz lehenik,
elgartasunak ezin dezake luzarako iraupenik.

4 *Gatua*

Jelosiaz zu, gaixo zakurra, hortxet zaude ezin biziz,
zure laguntzat nahi naizena borta sudurrerat hetsiz;
hola nahia balinbazira lagun gatua gaitzetsiz,
zu tronpatzerat saiatuko naiz goseak nagoen guziz.

5 *Zakurra*

Geiago gatu hunek ez bainau errespetatu nahiko,
gerla gorria diot karesa baten partez itzuliko;
ene etxerat hau gehiago ez dutalarik utziko,
zonbat denboraz gaixo trixtea ote zerauku biziko?

6 *Gatua*

Biak guhauren arrazoinaren jabe beti hemen gauden,
ni ere gizen ez nago bainan zu kausitzen zaitut lerdin;
zonbat denboraz biziko naizen, heriotza noiz jinen den,
kasu egizu zuri jin dadin berdin neri baino lehen.

7

Gatuak eta zakurrak erran solasak denek eskuta,
izaite hori gertatzen baita barnean herra sartuta;
orai serio jartzera noa bi haueri behatuta,
jendetan ere berdintsu gaude ainitz arima salbu-ta.

Egilearen andreak idatzi kahierra

Alaba sortu berriari

Doinua: Bakeari.

1
Zorion iguzkia gutaratu zela
argiratzera noa, xoria bezala;
Jainkozko nahia da, ez daike bertzela,
gure baitan daukagu zinezko modela
bien amodioa fruitu egin dela.

2
Maiatzeko lorea, arrosa maitea,
atsegin dugu zure gure ukaitea,
aitamen sustengu on beti izaitea;
Ama Birjinari gaur da galdegitea
haizu den Bernadeta izen emaitea.

3
Ohore eman nahiz Ama Birjinari,
hortakotz da izen hau emana haurrari;
Lurdan agertu zinen zu Bernadetari,
orroitzapen hau hartuz sortu berriari,
eskaintzen dautzugu hau zure zerbitzari.

4
Noizbait bururatu da gure arrangura,
bixtaratua baita galde egin hura;
lore berri bat eman baitugu mundura,
gure bihotza egun daukagu gostura,
segurtatu delakotz geroko mentura.

5
Aitamen atsegina zonbat dagon handi
entzun izana dugu lehen zonbait aldi;
bera barne ez denak ezin du konprendi,
aitortuko dugu gaur zorionez gaindi
gure barnean barna daukagula sendi.

6

Gure baratzeak gaur badu hastapena,
aitamek deraukagun zorion onena;
sortu zaukun alaba, gutako lehena,
izan zaite bizian gure segimena,
gure bihotz barneko lore ederrena.

7

Aitamen ahotik zuk behar duzu entzun
mundu huntan badela ainitz eginkizun;
nahiz zuhaur izanen baitzira jakintsun,
nahi dautzut, alaba, erran zer daukazu
aintzinekoetarik nahiko maitasun.

8

Eginen derautzugu behar den laguntza,
azkar atxik dezazun bizi hunen funtsa;
eta zaitugulakotz guk lehen hazkuntza,
erakutsiko dugu dakigun hizkuntza,
izaitez ager zaiten beti eskualduntsa.

9

Bertsu hauk eman ditut bien fruituari,
aitamen maitaletzat sortua denari,
nor ziren erran nahiz mundu guziari;
hortakotz ditut argi kasetan ezarri,
gaizki egina badut barkatu aitari.

Egilearen andreak idatzi kahierra
Herria, 1981-ko uztailaren 9-koa

Mattin lagun zenduari

Doinua: Galerianoarena.

1
Trixtura aipatzera gaurkoan banoa,
bihotza serioa ta kexuan gogoa;
berriki galdu dugu lagun arraroa:
denek maite ginuen Mattin delakoa.

2
Ezin ahantzia da holako trixtura,
eskualdun aurpegia zurekin histu da;
berriz bagindu Mattin kusteko mentura,
laster akabo laike gure minen duda.

3
Omore ona zuen Mattinek lehenik,
irria ezpainetan baitzuen maizenik;
bere denboran gizon alaia izanik,
badea nehor hartaz orroitzen ez denik?

4
Aizu, Mattin, zurekin iragan denbora
maiz oraino etortzen zerauta gogora;
laster airatu zira Jaunaren ondora,
guk ordaindu gabea ginaukazun zorra.

5
Gau eta egun zutaz nago pentsaketan
zure obrak gelditzen direla jendetan;
irakurtua zauden aldi guzietan
biziko zira, Mattin, gure bihotzetan.

6

Ahetze herria gaur zombatez dagon hits,
zure galtzeko mina senditzen du bortitz;
bere seme izarra maite zuen ainitz,
zer atsegina luken berriz baladi pitz!

7

Joana joan dela gogoan nindagon,
sobera xangrinetan ez gaitezen egon;
bizi zelarik Mattin alaia baitzagon,
zeruan ere badu nahiko zorion.

8

Gu bezain uros dela pentsatzen dut egun,
Mattinen arima noiz izana da ilun?
Berekin tu zeruan hiruzpalau lagun:
Xalbador, Zubikoa, Errexil, Etxahun.

9

Ahaztera nindoan lagun bostgarrena,
hura zuen Mattinek bat Arozamena,
Xalbadarren urtean itzalia dena;
gutan geldituko da zuen orroitmena.

10

Nola zeru zolatik izarrak erortzen,
koblariak berdintsu zauzkigu agortzen;
euskaldunen lurra da hasia idortzen,
Jauna, lagun gaitzazu fruitu berri sortzen.

11

Nahi dugu ordainak ditezen atera,
denak itzaliz nun da herriko manera?
Etsia daukatenak zaitezte bolera,
koblaria sekula ez baita sobera.

12

Bizia akabo guk ere ixtantean
dugula orroituta pentsatzen hastean,
ene nahia laike, Mattin, gu jitean
beha kausitzea zu zeruko atean.

Egilearen andreak idatzi kahierra
Herria, 1981-ko abuztuaren 27-koa
Oleri, 1982

Urtzoaren pasaia

Airea: Xarmegarria zira.

1 *Gizona*

Urtzo maitagarria, zure ganik behin
nola zabiltzan beti nahi nuke jakin;
eta bestalde zuri zintzoki galdegin
pasaian zer ikusten daukazun Euskadin.

2 *Urtzoa*

Pasaian gehienik ikusten dutana:
hil nahiz tiro zonbait heldu ene gana;
horra enetzat zer den gizonaren lana:
bizia kendu nahi Jainkoak emana.

3 *Gizona*

Duzuen izaitea denek ikusirik,
zuen maitasunez da hiltze hau hasirik;
ez gintazke mentura presuna bihirik,
eskuratzen errexa bazina bizirik.

4 *Urtzoa*

Esku onetan balitz hanbat laike gozo,
bainan libertatea behar dut preziso;
ikusi izan ditut ainitz gizagaizo,
fidatu direlaketz badaudenak preso.

5 *Gizona*

Gizonari barkatu egite arinez,
urrikitan nago gaur zuri egin minez;
pasaia gutartetik zuk berriz eginez,
min gabeko agurra eginen dut zinez.

6 *Urtzoa*

Afrikaraino beraz hementik goatzi,
bazter ederrak kusiz ezinak ahantzi;
Eskual Herriak badu nahiko galantzi,
agian berriz arte bihotzez goraintzi.

Egilearen andreak idatzi kahierra

Aintzila sort-herriari

Doinua: Ikusten duzu goizean.

1

Aintzila herri maitea,
goxotasunez betea
zu gurea ukaitea.

Atsegin hori handia dela maite dugu erraitea;
badugula suertea
zure seme izaitea,
dago zinezko bakea.

2

Zaitudan bezain maiterik
nihun ez dago besterik
zitaiken baino hoberik.

Jendea beti hemen bizi da bihotza alegerarik;
arrotza jiten delarik,
hortaz ez dago dudarik
itzultzen dela trixterik.

3

Zure lurtean sortuak,
gazteak ta zahartuak,
denak gira ohartuak,

herria, zuri ditugula guk izaite oro hartuak;
onenak eta gaixtuak,
gaudeno zure fruituak,
gora gure espantuak.

4

Zonbat den zure adina
nehoiz ez dugu jakina,
noiztsu zaituzten egina.

Erran nahi dut bihotz barnetik zaude nere atsegina;
beraz hemendik aintzina
handia ginuke mina
bertzen eskuan bazina.

5

Bizi gireno munduan,
amaño baten moduan
zaitugu gure goguan.

Ez beza nehork sekulan erran, denbora joan onduan,
behin hartuta buruan,
kanpo toki urrunduan:
«A, zer herri mina duan!».

6

Maitasun faltan ihesi
joanik ez dut ikusi,
Aintzila duenik utzi.

Holakorik bat kausi baladi, bihotzez nuke gaitzetsi.
Gezurrik nola sinetsi?
Ezin litaike iretsi,
izena balaike hautsi.

7

Duen izena haustea
dago herriko kaltea,
ukatuz bere maitea.

Hola gertatuz erran behar da zinezko ezinbestea,
dela kalte suertea,
min handienaz betea,
omenaren itsustea.

8

Omena galduz geroztik
lurrerat doa errotik
idai onena gogotik.

Gaizki doana hartu dezagun tinki tinkia besotik,
zuzendu dadin gaixtotik,
nola arbola ostotik,
trixteziako lanotik.

9

Zuzentasuna begira
eta ereman ongira,
hartze dugun iguzkira.

Herri maitea, erakuts azu zutaz daukazun dirdira;
gezurretik ta egira,
bihotzez zuzen bagira,
igor gaitzala argira.

10

Aintzilak urrun gakoak,
lehen hedatutakoak,
badauzka aspaldikoak.

Eginak beti segi ditzala izaite onerakoak;
azkar ditela flakoak,
beti herri huntakoak
lagun gaitzala Jainkoak.

Egilearen andreak idatzi kahierra
Herria, 1982-ko otsailaren 4-koa

Panpilliri agur bat

Airea: Lurraren pean.

1

Huna zonbait pertsu nahi nuzke neure gogoaz atera,
edersko baita ikusten dugun pertsularien manera;
Panpilli maitea hor doala gu dener erakustera,
Herria-n dugu irakurtuko hunen kantu alegera,
bere ahal guziaz duela laguntzen ari eskuara.

2

Otoi ardura aterazkitzu *Herria*-n hola kantuak,
horiek pitzaraz ditzatela eskualdun gazten gostuak;
eta bai ere argi ditzaten orori izpirituak,
geroan ere izan ditela xaharrak bezein prestuak,
kantuz airatzen ikus ditela eztei eta ostatuak.

3

Erretretan sartuz ziniola ez emaita pertsurik,
haratik ez duzu nahi utzi dohain onak pusaturik;
hortakotz beraz ez duzu behar sekulan izan dolurik,
behin ere ez baituzu erran hitzik behar gabekorik,
kolpatu gabe gelditu dira bihotz guziak sanorik.

4

Eskualdun garbi sortuz geroztik berdin berdina zaudela,
agian izan ditene ainitzak pertsulari zu bezala;
ikusten dugu dudarik gabe fede azkarra duzula,
Jainko Jaunari galdatzen diot, bai, otoi entzun nezala,
ordain zonbaiten moldatzen luzaz agian egon zaitela.

Egilearen andreak idatzi kahierra

Zakur handia ttipiaren beldur

Airea: Lili bat ikusi dut.

1 *Handia*

Xakur handia ni nauk, hi berriz ttipia,
orai artean nian behar zen alkia;
estima zak ttipitaz dutan urrikia,
geldirik egon adi, eman zak bakia.

2 *Ttipia*

Diozuna baitago bake emaiteko,
tenorea jina da noizbait haunditzeko;
handiak otso ta gu bildots egoiteko,
aski eginik bada ttipien galtzeko.

3 *Handia*

Egon beharko baituk gure aztalean,
ez hadila gaur mintza mihi utsalean;
gu barna gaituk ta hi berriz axalean,
berriz ere egonen haiz ortziralean.

4 *Ttipia*

Ortzirale hori da enetzat azkena,
handiak berak noizbait ikus lezakena;
atsegin guzietan hau nuke lehena:
behin ikus dezaten mailik apalena.

5 *Handia*

Nahi gaituk, trixtea, arras kondenu,ta,
hire izan ttipitik hau baita bekatu;
oraiko ausikia ez zaitak gaizkatu,
segidan haunditzeko behar duk nekatu.

6 *Ttipia*

Zutarik hartzeko gaur ez daukat ordrerik,
handiak onerako guti du molderik;
beti hor zabiltzate urguluz beterik,
lehertuak gintazke ez balitz hoberik.

7

Izan hau ikusten da munduko bizitzan,
kantatu izan ditut gertatzen den gisan;
sobera argitzen ez dut nahi arizan,
irakurlea uzten dut konpara ditzan.

Egilearen andreak idatzi kahierra

Larramendy zenari

1

Bihotz barnetik goretsi nahiz Marti Larramendy zena,
hortarat buruz doa egungo ene hats beherapena;
garaztar seme, euskal profeta fama handiz entzun dena,
gaur eskainia izan bekio aspaldi hartze zuena.

2

Ezterenzubin Oillotenean sortua zen Larramendy,
Eialarrerat ezkontzaz jinik maitasun ederrez gaindi;
Goretexea bizi egoitzan uros zelakoan sendi,
hortik kantatuz iragan ditu zonbat herri eta mendi.

3

Zorion ainitz duzu denboran bihotz frangotan ezarri,
nigarra zagon batzutan zure irria zen gozagarri;
fama handia horri eskerrak herriak dautzu ekarri,
ohoratze hau onhar azu gaur lehen egin lanen sari.

4

Larramendy-k du pertsularien azia ainitz eraina,
Eskual Herrian miatu ditu azpia bai eta gaina;
gaurkoan hortxe baitzira, Mixel, pertsularien itzaina,
Eieralarren bila zazu zuk Larramendy-ren ordaina.

5

Gaur ohoratu izana baita denek Marti Larramendy,
beste idaia berri bat ene gogoan deraukat sendi;
Ezterenzubi arte omentze hau ez dadiela geldi,
beste urtean ohoratzeko hola Mañex Etxamendy.

6

Dazkitan denak erran tudala iduritzen zeraut naski,
bertsu haukien kantale denak Arrossagaray-z badaki;
jujamendurik ez otoi egin naizenikan arras gaizki,
hiltzeko gaitzik ez daukat bainan gelditzeko badut aski.

13-6-82

Egilearen andreak idatzi kahierra

Zuzentasun gosea

Airea: Loreak udan ihintza bezala.

1

Burua eta bihotza biak mintzatzen zauzkitanean,
orduan laster lerratua naiz pertsuetako lanean;
munduko gora beherak ditut aipatzen gaur egunean,
ardi galduen pare gabiltza lano azpi ilunean.

2

Lanope ilun trixtean dago memento huntan mundua,
iduri baitu arbol ondo bat ostoa arras galdua;
amodioa baztertu eta laster hasia gudua,
hoben gabeko presuna frango hola lurpera badua.

3

Arjentin, Angles, Israel, Liban gizontasunez hoin eri,
trixtezi horrek bihotz guzia hunkitzen derauta neri;
otso handiek jauz egin nahi bildots ahul guzieri,
maitasun eskas horrek segitzen ditu Satanen ponperi.

4

Hauxet da gauza gaiztakerizko minkorra eta bitxia,
herra saminak gaur gizonari eman dion gutizia;
gutarik batek atsegin baitu hilez basa ihizia,
estimu beraz daukate naski gaur jendearen bizia.

5

Bizia hola kentzera nehork ez luke behar berotu,
larre uspela balinbadago horrek behar du sanotu;
gorputzak daukan balio hori arimari bedi lotu,
otoi, Jainkoa, Zuk erraguzu noiz behar dugun zintzotu.

6

Eskual Herrian berean ere bada nahiko dolore,
harat hunatak ontsa ikusiz ez daukat ainitz omore.
Euskal artean zertako bada hoinbeste idai kolore?
Ikusten ditut eskualdun batzu beren mintzairaz traidore.

7

Entzule denak egun nitarik hauxet dezala guaita:
kontseilu onak emaiteko ni ez naiz munduaren aita;
bainan halare mintzatuko naiz, egia zuzena baita,
etxea utziz ez dezagula gure auzokoa maita.

8

Bi burutarik makila ezin ditaike atxik estekan,
batzu badira ari direnak alde guzien perein;
bainan guzien ardieste gertatzen delakotz bekan,
ez dezagula guhaurek ezar Eskual Herria errekan.

9

Zuzentasuna izan dadila beti gizonaren jabe,
onerakoan izan gaitezen beti zendu arte trebe.
Eskual nortasun hau agertzeko zertako izan herabe?
Fruitu ederrik ez da sortuko lurra ontsa ondu gabe.

10

Sobera luza dezatan naski ez du hanbatik balio,
bainan egia dut argiratzen gizontasuna medio;
hola segituz gertatuko da beti zonbait ondorio,
zuzentasuna gelditzen bada orai den bezain kario.

27-6-82

Egilearen andreak idatzi kahierra

Garaziri agur

Airea: Antton eta Maria.

1

Behin geiago nola xoria kantatzen,
halaber hasten naiz gaur pertsuen moldatzen;
Garazi maitea dut ainitz gorai patzen,
hori merezi duzu, gaur ez dut dudatzen,
ohorea derautzut hitz hutsez mugatzen.

2

Hitz hutsez muga baino ainitz gehiago
merezi duzula zuk gogoetan nago;
Garazi, zaitut denak baino maiteago,
urrez bezti bazina nuke nahiago,
hupatzeko besteak baino're gorago.

3

Guretzat Garazi da izaitzez premuan,
zure haurtxo ttipiak gauden eremuan.
Lur onaren fruitua noiz daike damuan?
Sustengatuko zaitut gaur indar fermuan,
betikotz egon zaiten denen estimuan.

4

Estimua baitago izan ederrena,
merezitu ta lehen eman zauzutena;
atxik azu betiko azkarren gemena,
zaudelakoan beraz guretzat onena,
hortakotz duzu hartze denen aipamena.

5

Aipamenean zaude oraindik, Garazi,
omena merezitzuz baita irabazi;
onerakoan duzu beti izan grazi,
zure haurtxo naiz eta behar dut ikasi
zure oinen azpian nola daiken bizi.

6

Amatzat hartzen zaitut, herri nagusia,
sortu naizen menetik zaitut ikusia;
zure odola daukat xurgan iretsia,
Garazik nerauka ni sortzetik hezia,
nola lehoin gazte bat ezin onetsia.

7

Beti segitzekotan dantza eta pertsu,
kantuz egon zaite zu betitik amultsu;
gozotasuna bada egoiten indartsu,
zure eginkizunak bitela dohatsu,
anai arrebak kausi ez gaiten herratsu.

8

Herratsu izaitea munduko tormenta,
gaizkirat nehor orai ez gaitela tenta;
Garazi, ixiltzen dut gaur ene terrenta,
enetzat egin zazu beraz testamenta,
ene heinaz bainago zure beztimenta.

9

Zerbait kantatua dut xuxen edo makur,
gostukoa ez dena nehork ez irakur;
Garazik hartze zuen, hortaz nago segur
–aipamen xume denaz zertarako beldur?–
bere haurtzat daukanak egitea agur.

31-1-83 / Egilearen andreak idatzi kahierra
Herria, 1983-ko otsailaren 17-koa

Emaztea

Airea: Otxalde eta Etxahun.

1

Emazteari egun doatzen pertsuak,
gogoz igortzen ditut zintzo amultsuak.
Orroitzen ote gira, hain premiatsuak,
dauzkagula andreak zinez behartsuak,
gizonarentzat maite batzu loretsuak?

2

Zoin baliosak diren nork duke dudatzen,
emazten izaitea hasteko goratzen?
Baratze eder bati zautzet konparatzen:
nola han baita azi sano bat loratzen,
andren lurraz fruituak dira munduratzen.

3

Aberastasun hortaz gogoetan nago,
denbora joanago bai eta barnago;
gizon artean luke askoz beharrago
errespetua beti eta gehiago,
emaztea maitasun ohandze baitago.

4

Gizonarentzat andre, haurtxoentzat ama,
mundu huntan zer nahi lan klase derama;
baliosenetan da holako luhama,
dakienak baizik ez baitezake asma
zonbat pizua dagon andre baten zama.

5

Emaztea da izan onenaz betea,
gizonak hori lagun dauka suertea;
estimutan zuzen da gora emaita;
Ama Birjina patroin andreka ukaitea
zeruan gerokotzat badute partea.

6

Zorionean gaude maitalien jabe,
gogoan daukaguna zertarako gorde?
Hemendik aintzina guk emaztetan fede
agertzeko sekula ez izan herabe,
trixteak baigintazke hauetarik gabe.

7

Andrea da etxean maitale hurbila,
sukalde bazterretan argidun gurbila;
gogotik joan nintzan dutanaren bila,
Jauna, Zuk entzun nere galdezko ezkila:
ni bizi nizan arte itzal ez dadila.

12-4-83

Egilearen andreka idatzi kahierra

Seme sortu berriari

Airea: Mutil koxkor bat.

1

Bigarren aldi huntan gabiltza zorionaren atean,
Peio semea sortu delakotz aitamen nahi betean;
bihotza saltoz dirdiratu zaut seme hunen ikustean,
gizon berri bat badugulakotz bien bihotzen artean,
izena ere atxikiko du aitak mundua uztean.

2

Ongi etorri, seme maitea, lureko bizi berrira,
zure aitamen ilusitzaile maitekor jina baitzira;
arrebaren egoiten zauzu irri batekin begira,
erran nahia balu bezala: «Peio, etxeko dirdira,
aitamen seme, ene anaia, denen gogokoa zira».

3

Zorionean errexa baita pertsu kantatzen artzea,
deliberatu dut berriz egun dutan puxkaren lantzea;
lore berriaz emendatu da amodio baratzea,
lehena nexka sortu zitzaukun, mutila orai bertzea,
geroko ere esku onetan dagoke gure etxea.

4

Geroan ere pasatu behar zombait uda eta negu,
bestek bezala egin beharko zuk ere zombait entsegu;
munduko bizi hunek baititu ainitz klasetako plegu,
hoberenetan erabil zaiten erakusdunak gaude gu,
atera zaiten gero etxea eta herriko sustengu.

5

Sustengu hori baita lurean behar ta zinezko lana,
zuzen burura dezagun Jaunak eman zaitu gure gana;
zure onetan izan dadila aita ta amain errana,
aitaren ganik jakinen duzu bihotzetik dakitana,
izena bezain beharrezko da begiratzea izana.

6

Izanak egin baitu betitik jendarteko batasuna,
otoi begira zazu zuk, seme, behar den garbitasuna;
aita den baino gerta zaitela gauza frangoz jakintsuna,
lan egitea dago munduan geroko hobetasuna,
zinez eskualdun begira zazu arrazaren nortasuna.

7

Nortasun hori atxikiz beti behar zinduke hitzegin,
eskualdun seme sortu zira ta horri nehoiz ez aldegin;
pertsulari bat gerta bazinte nahi dautzut nik galdegin:
sekula santan buru direner hutsik ez zazula egin,
aitari egin dioten minik zuri gertatu ez dadin.

8

Idorkeriak gaurko mendean luzaro baitu irauten,
gizon barnean sartua bada sekula nun da etzaten?
Peio, zuzena erabil zaiten manua dautzut emaiten,
lagun arteko goxotasuna bilatuz baita izaiten,
egin ahala egizu beti guziek maita zaitzaten.

28-11-83

Egilearen andreak idatzi kahierra

Mai-Luixa Sorhouet Jatsuararen 100 urte Doinua: Antton eta Maria.

1

Behin geiago lotu behar naiz lumari,
koblariak lanean behar baitu ari,
ez uko egitekotz daukan dohainari.
Sujeta zer den diot Euskal Herriari:
emazte baten ehun urte bete sari.

2

Irisarrin sortu ta ezkontzaz Jatsura,
gaztean etorria zen bere hautura.
Geroztik iraganik zonbait arrangura,
mende bat osorikan eman du burura,
balio zuen zure sortzeak mundura.

3

Mari-Luixa Etxegoin sortzezko izena,
eta Sorhouet berriz zen senarrarena.
Jatsu-Harluxean hau bizi izan dena,
geroztik nun dabilan berak dakiena,
koblari batek dautzu agur beroena.

4

Herriak eskainirik present kobrezkoa,
hauxet zorion goxo ta ohorezkoa
ikustea hertarrek zoin bihotzekoa
zaituzten, Mari-Luixa, beren artekoa;
zure bizia bedi orroitmenezkoa.

5

Orroitmen hori luzaz egon bedi Jatsun,
bazterretan hedatuz zer nahi oihartzun.
Ehun urtez jujatuz zer ikusi duzun,
eskaintzen derauzugu adixkidetasun,
gure artean luzaz balia dezazun.

6

Mari-Luixa maitea, bihotz bihotzetik
aipatua zaitut gaur guzien artetik,
merezi duzulakoz ororen gainetik;
goraintzi igortzen dut egun Aintziletik,
entzutekotan luzaz mintzo sukaldetik.

7

Erranen duzu: «Pertsu hauk nundik doatza?».
Erdi Jatsuarra dut odolaren klasa.
Hortako ditut eman gaur denbora pasa,
horko loreak sortuz hartua dut hatsa,
Aintzikoa baitaukat amaren arraza.

8

Bururatzera noa denen inguruan,
ustez ibilia naiz zuzena buruan.
Ahantziz egon bada zerbait desterruan,
barka zadazu otoi denen helburuan,
elgarrekin bake sar gaitezen zeruan.

31-1-84

Egilearen andreak idatzi kahierra
Herria, 1984-ko otsailaren 9-an

Felix Iriarte Bankakoari agur

Doinua: Ikusten duzu goizean.

1

Iriarteri pertsutan
pentsatzen nago batzutan
zer erran behar dautzutan.

Zuzen da orai ager dezatan egon gabean dolutan:
ez zauzkit hok urgulutan,
azkar zaudeno burutan
maixua zaude zu gutan.

4

Adin ederraz jabetu
ta dohainaz ez gabetu,
izpirituaz hobetu.

Hiru hogoi ta hamabi urte bizi az ditu beretu,
eta bihotzez loretu,
gazteak zinez maite tu,
hortakotz denak alde tu.

3

Sunbillan dago sortua
ta Alduden egotua,
Bankara esposatua.

Bersinantoine baserrian du geroztik hunat gostua;
behin betikotz hartua,
euskaldunen maitatua,
zaude benedikatua.

4

Zure izana bizirik,
bai eta zinez argirik,
berriki dut ikusirik.

Bidarrai hortan xapelgoa zen, zuk bezelako irrikik
nehork egin arazirik,
kausitu dea bihirik,
Felix, zu bezain handirik?

5

Badaukazu handitasun,
gogoz zaitugu guk entzun,
zer balioa daukazu!

Erakutsia daukuzu zinez lagunentzat maitetasun;
nola ager dezakezun
bihotz barnez anaitasun,
nun da hoinbeste ontasun?

6

Ontasun hori batetan
Jaunak eman Felixetan,
zure gogo bihotzetan,

egonen dena behin betikotz idaia eta obretan.
Segi zazu pertsuetan,
batzu ta besten onetan,
odola deno zainetan.

7

Zazpi pertsutan dut utzi,
nahi dautzut erakutsi
eta konpreni arazi:

gazte ta xahar elgar gabean ezin gintezkela bizi;
dezagun denek onetsi
behar direla goretsi
dauzkagun zazpi probintzi.

28-3-84 / Egilearen andreak idatzi kahierra
Herria, 1984-eko apirilaren 12-an.

Arrosan gertatu denari

Doinua: Andereño bat ikusi nuen.

1

Hauxet trixtezi lotsagarria Arrosan den gertatua,
aldi bat berriz gehiago da etsai lana obratua;
eskualdunari hola kentzeko dagon bizi sakratua,
horrek barnean berekin zaukan debru madarikatua.

2

Eskualduna gaur daukate denek kasik ezin ikusia,
gure lurretan kendu beharrez dabilta gure bizia;
arrotz gaixtoa, izan hadila lehen hiaur errautsia,
odola kenduz xurgatu aintzin gure izaite guzia.

3

Errespetuaz erabil bedi eskualdunen erreinua,
gure odolaz gorritu gabe lur gainaren eremua;
etsaia, hire bihotza onduz bizi utzak protsimua,
oren dorpean onets dezakan Jainkoaren estimua.

4

Ai nolakoa zaude beraz zu oraiko errepublika,
deszuzentasun hori nolaz den ez dezakena esplika;
bas ihiziak zonbait ez dira haizu hiltzerat aldika,
eta jendeak aldiz edozoin kolpez itzulipurdika.

5

Aita bat joan ospitalerat, mutil gaztea mundutik,
ereman dira horiek biak bihotz gaixto baten gatik;
ai, zu, Rafael, otoitz egizu, Jainkoa lagun zerutik,
Eskual Herria begira dadin berriz holako kasutik.

6

Eta, Jesus, zuk ere baituzu zure bizia hor uzter,
pena doblea emanen zuen familia eta bester;
bainan alaitu gira: bizirik zaude, Jainkoari esker;
denen desira litaik, Jesus, indartu zaitezen laster.

7

Huntan uzten dut ez joan nahiz arras de balde aintzina,
behar ez dena kausitu baita herraren minaz egina;
kriminal harek eginik ere nahi hanbat etsamina,
bizi guzikotz geldituko da kontzientzia zikina.

Egilearen andreak idatzi kahierra

Urte zaharraren orroitzapena

Doinua: Partitzeko tenorea.

1
Lau hogoi ta laueko urte zaharrari,
iragan hurran nago gibela behari,
zer gertatua dagon Eskual Herriari;
orai nahi nituzke kasetan ezarri.

2
Itsasun ta Arrosan gertakari aski
izan dela jendeak osoki badaki;
herriko lana nahiz suaren erraki,
sutan eman dituzte “Denek eta Alki”.

3
Lege gizon etxe bat berriz Lekunberrin
bonbatua izan da lurreratu zadin;
hola ari bagira gaur gure Euskadin,
geroko onik deus e ezin daike egin.

4
Berriz ez bedi izan holako erorik,
barnean daukatenik gaizkiko asmorik;
urte berriak izan bat hobeagorik,
ekar dezala bake laño ta gozorik.

5
Orroitzapenez dator sendimendu hitza,
ene bihotzarentzat arras baita hitsa;
protsimoa ez daike horrela zerbitza,
idaia eta obrez gaizki baigabiltza.

Egilearen andreak idatzi kahierra

Hirugarren haurrari agur

Doinua: Mutil koxkor bat.

1

Mila bedatzi ehun lau hogoi eta bosteko urtean,
berriz atsegin oso gozo bat gure bihotzen artean
sartu izan da Urrietako San Lukas egun maitean:
hirugarren haur, bigarren seme, sortu zauku arlotean,
lehen alabak maite zaituzte gaur bi anaiak batean.

2

Bernadeta, zu lehena zaude, geroztik Peio ta Migel,
Jainkoak berak zakien nola mundu huntarat zaizken hel.
Aitamentzat gaur zuek zarezte maitasun onaren sabel,
euskaldun zintzo bilaka zaizte gelditu gabe errebel,
pentze onekin doakon bazka ez dadien aurki uspel.

3

Jainkoak zaitu, Migel semea, zu gutarat ekarria,
aitamek zauzten hirugarren haur bihotzez maitagarria.
Guretzat izan zaite zu beti zorionen iturria,
zuk daukazuna gure odola, eskuararen hazkurria,
izan dadila nahi ginuken herriko salbagarria.

4

Ez naiz sobera barna sartuko zure idaien manatzen,
badakit noizbait hasiko zira gauzak ontsa esplikatzan.
Orduan zuhaur utziko zaitut zeure bidea hautatzen,
gutarik ukan odola zuk ez balinbaduzu ukatzen,
bizi naizeno aditu nahi zintuzket pertsu kantatzen.

5

Seme maitea, erranen dautzut orai solas beharrena:
Eskual Herrian klase frango da, horrek emaiten daut pena;
batzu sustenga eta besteak gain gaintekan kondena,
ardurenean eskualtzaletan hori da gertatzen dena,
galdatzen dautzut egin dezazun ahalik hobekiena.

6

Migel, dohainik kausitzen bada gogo bihotzen artean,
beti zintzoa ager zaite zu solas eta bertutean.
Segitu behar balinbazira zu aitaren izaitean,
pertsuz gorena egirik daukat adin gordin ta betean,
Peio ta Migel, ordaint zazute aita begiak hestean.

25-11-85

Egilearen andreak idatzi kahierra
Herria, 1985-ko abendoaren 26-koa

Platinazko ezteiak Ezterenzubín

Airea: Ume eder bat ikusi nuen.

1

Ai zer zorion xoragarritzko eguna jina zaukuna,
ohoratzeko hirugoi urtez iraun duen maitasuna!
Amodioa sanao baitzen zinezko garbitasuna,
erakusten du egungo huntan biek duten osasuna.

2

Maria, eta zu berriz, Bruno, elgarren maitasunean,
ahal bezala zuen bizian ari izanik lanean,
zazpi haurtxoak hazi zinuzten izaite ederrenean,
egun eskerrak beraz bieri omore hoberenean.

3

Eihalarre-Iribarnetik ta Ezterenzubirako,
aitatxi Brunok bidea daki bere bizi guzira;
ez zitzauzun, ez, hanbat luzea denbora goxo hartako,
horiek denak egin dituzu amatxi maite zelako.

4

Amatxi Mari maitia, sortu zarena Jakesenean,
mila bedatzi ehunetako urtetan bigarreanean;
aitatxi, berriz, zu sortu zinen hemeretzigarreanean,
oraino luzaz bizi zaitezte Jainkoaren aintzinean.

5

Mila bedatzi ehun ta hogoi eta seioko urtean,
elgarri hitza eman zinuten aldare aintzin batean;
maitasun osoz bien bihotza baitzagon bete betean,
ez du barkatu alaba on bat serora egin artean.

6

Xahar pollitak zarezte biak ainitz urteren buruan,
zuen bihotza ez da egona elgarrentzat desterruan;
ahalaz luzaz bizi zaitezte zazpi haurren inguruan,
Zeruko Aitak egin artean toki onena zeruan.

3-8-86

Egilearen andreak idatzi kahierra
Herria, 1986eko Irailaren 4-koa

Laugarren haur bigarren alaba

Doinua: Loreak udan ihintza bezala.

1

Jainko maitea, esker mila bat gure laugarren loreaz,
eskaini behar dautzut gaurkoan atseginarene ordrez.
Bat gehiago sortu delakotz gairi gabiltz omoreaz,
zeren obratu baituzu lehen egin duzuna pobrez.

2

Elixabeta, zorionean eman daukuzu bihotza,
artalde huntan ez pentsa gero nehoiz zarenik arrotza.
Anaiek eta ahizpak ere dautzute begi xorrotza,
zeren kendua daukatelakotz kondu makurraren lotsa.

3

Lenago hiru gintuen eta orai jina laugarrena,
Azaroaren hamazazpian argia kusi duena.
Aingerutxo, zaude gutako haurtxoetan ttipiena,
Jaunak igorri berria eta denetako garbiena.

4

Mundu hau dago bakotxarentzat zinez iturri gazia,
gauza ainitzez nasai da bainan fedeaz du eskasia.
Alaba, zuzen erabil zaite izan gabe nahasia,
argi onenaz argitu zaiten, Jauna, emozu grazia.

5

Mila beatzi ehun lau hogoi eta seiuko urtea,
guretzat hori sortu zitzaunkun zorion osoz betea.
Bi alabatxo eta bi seme familian ikustea
iduritzen zaut purgaturikan zerurat iragaitea.

6

Sortu berriaz aitamak gaude egun oroz behazale,
eta zu berriz maitasun osoz zaude gure argizale.
Iduriz beden, alabatxoa, ez zira sortu logale,
galdatzen dautzut agertu zaiten izaiteaz eskualtzale.

7

Elixabeta, Mariarentzat baitzinen lehen kusina,
ta izen hori segituko da beti hementik aintzina.
Bixtan da gure alaba ez da segurraz zure berdina,
bainan zorion handi ginuke hunen zaindari bazina.

Egilearen andreak idatzi kahierra
Herria, 1986-eko Abendoaren 11-koa

Iriarte pertsulariari

**Iriarte pertsularia zendu berrian eman zonbeit pertsu
radiotik**

Doinua: Ttiki ttikitik.

1

Berri trixte bat hedatu zauku orzantz ximixta bezala,
eskualdun baten ahotik eta bestenetara zoala:
Felix laguna zendu zerauku, oi arratsalde apala,
ilunduraren argia noizbait ber horrek eman dezala.

2

Bankan bezala Eskual Herrian denak gaude gu dolutan,
zoin argiduna zinen orroituz mundu huntako kargutan;
lan ainitz ere egin izana azken denboran pertsutan,
urrikiz nago lehen zertako ezagutu ez zaitutan.

3

Felix, kanturik ez dut emango bihar zure ehorzketan,
ahalgegarri kausi ez nadin bi begiak nigarretan;
sendimendua nagusi laike ene gogo bihotzetan,
hortakotz ditut egun kantatzen radioaren zintetan.

4

Lagun guziek anai bezala ainitz zintuguna maite,
zure itzaltze horrek ez gaitu pena handiz baizik bete;
zeruko borta ondoan zaude, otoi, Felix Iriarte,
zure pertsuko lagun guziak horrarat etorri arte.

Bankako Iriarte zenari eman bertsu bat ehorzketan:

5

Gizon zuzena eta gozoa izan ondoan munduan,
hanbat goizegi gure artetik Felix baitzerauku juan;
ene nahia laike, laguna, kausi gaitezen zeruan,
bake osozko bertsu kantari Jainkoaren inguruan.

17-2-87. Egilearen andreak idatzi kahierra

Irisarriko final erditik landa

Doinua: Oilanda gazte moko fier bat.

1

Jainko maitea, nolakoa dut barnean dutan itzala
Segetuan erran adazu otoi eni bereala;
Zuk eman dohain argiaz nabil kantatzen egin ahala,
eta halare kondenatua Judas bat banintz bezala.

2

Egon behar dut gizon idaiak nerabilaten menpean,
bizirik hila duten bihotza enetzat ez da trenpean;
ez dut galdatzen goratasunik nagon biziko epean,
bainan ez aipa egun batean sartu ondoan lurpean.

3

Bihotz barnean erakitzen zaut eskualdunaren odola,
bertsularitzan dohaina konda da egin eta eskola;
eskual gizonak zilatu arte zuzentasunaren zola,
juje onena orai badakit zero gainean dagola.

4

Eskual anaiak eta arrebak hain zinuztetanak maite,
zoin erranetaz egina izan ote derauzuet kalte?
Solas gaixtoen gaztigua gaur hori deraukata ote?
Lehen hupatu nauten gizonak lurperatua bainaute.

5

Bide guzia agertuko du egungo pertsu azkenak,
etxeko hauek haizatu eta hautatzen tugu bestenak;
bizi guzikotz orai badazkit juje hauen sendimenak,
denak anaiak gaudela bainan ez amaño berarenak.

31-3-87

Egilearen andreak idatzi kahierra

Antzileko kurutzea

Antzileko plazako kurutzearen mende betetzearen urte mugakari

Airea: Lurraren pean.

1

Oi kurutzea, zutaz daukagu askoz estimu merkea,
mundu guzirat heda zaguzu zure su onaren kea.
Alta jasaiten mundutarrentzat zaude pizu ta nekea,
ahalik badut zuri galdezka hori mana nezakea:
zure hegalk oso luzatuz heda dezazun bakea.

2

Ene pertsuak gaur, kurutzea, zuhauri buruz doatza,
zuk ez baituzu gaur ukatuko zurea duzun arraza.
Xuxena zira nola hariak berekin daukan orratza,
ezti ezti ezar aguzu biziak deraukan latza,
benedikatuz Aintzila herri eta hunekilan plaza.

3

Duela ehun urte xutikan eman zauzten kurutzea,
kasirik erran daiteke zaude herriaren baratzea.
Geroztik ainitz ikusi duzu gizartean itzaltzea,
eta bestalde aingerutxo frangoren munduratzea,
galdatzen dautzut zorionaren iguzkia zabaltzea.

4

Bihotz bihotzez hertar guziak zure oinetan baigaude,
gure galdea beti badakit ez da izanen debalde.
Guk gehiago behar ginuke errespetu zure alde,
bihotz erditik egiten dautzut herriaren partez galde,
zu izan zaiten behin betikotz Aintzildarrentzat errege.

5

Onharkitzu gaur bertsulariak egin dezazken kantuak,
ez dira beti xuxen ibili zure ganako botuak.
Haundiak dira gizarteak gaur derabilzkan espantuak,
gaurretik eta biharrera gu gaudela hauts bihurtuak,
horri behatuz barkazkigutzu egin tugun bekatuak.

6

Zure aldetik zonbat alditan ez gira bada pasatu:
batzuek agur egiten eta bestek baterez behatu.
Nola demuntre egitate hau behar duzu zuk sustatu?
Hartze duzunaz sekula santan nork ote zaitu goratu?
Batean saindu gabiltza eta bestean madarikatu.

7

Barkamendua agian dugu zutarik ardietsiko,
zure alderat egun batean baigirade itzuliko.
Nahaskeriak itzul ditela ilunbetik ta argiko,
mundu guzia zure menpean ikustea belauniko
atsegin nuke kausi baladi betiereko biziko.

8

Duela mende oso bat xutik eman zauzten gizoneri,
esker mila bat bihurtzen dut gaur batzuer eta besteri;
Jauna otoizten ikas ginezan utzirik ondokoeri,
Parabisuan zaizte agian galdatuz aingerueri,
osagarri on arimakoa begira Aintzildarreri.

9

Azken pertsua akabatzen dut bihotza nigarrez sutan,
zutaz orroitzen ene denbora eremaiten dut batzutan.
Behin betikotz aipatzen zaitut lehen ta azken pertsutan,
nigargarria izana baita eman zaitzaten kargutan,
orroituz Kristok Galbarioan nun pairatu duen zutan.

17.2.88 / Egilearen andreak idatzi kahierra
Herria, 1988-ko Urriaren 22-koa

Pertsutako lehen lagunari

Airea: Bettiri Uhartekoa.

1

Arrossagaray pertsularia Alkati errepostuka,
orain artean bazinakien ezin zintudala uka;
zinez lotua senditzen zaitut nola behiak buruka,
akulu xixtak igorri tuzu kasik erdia agurka.

2

Ez dakit norat doan, Ernest, zuk gaur daukazun pentsamena,
bainan goratik hartua duzu egun zure ahamena;
erran ditake Judasen gisa nindezakezu kondena,
bainan betitik agertuko naiz jenden artean naizena.

3

Hastapeneko pertsuetako dohain oneko laguna,
Mixel Elissald lagunaz kanpo, ez zintudan ezaguna;
zuhauk diozun bezala dago gu bien elgertasuna,
sekula santan nehork kenduko ahal ez deraukutena.

4

Laguna lagun izana gatik bertze alde da herria,
batzurendako xahar dagona enetzat dago berria;
ni xapelgotan berriz hasteko nahi nuke ageria
zuzentasuna sendoa dagon ala arrunt den eria.

5

Zuzentasuna nolakoa den mundu barnean banaki,
ene hurratsez ibil naiteke menturaz ainitz hobeki;
ez nago ixil, ez mututua, bainan izaitzez goxoki,
ene baitan den nortasun hori agertuko dut goraki.

6

Alkat laguna, zuretzat dago nehoiz konpreni ezina,
ez uste izan naizenik zentzuz zuk uste bezain arina;
ageri duzu ez dela zuri obrez izaitez egina,
Arrossagaray-k bere barnean senditzen deraukan mina.

7

Ez du balio temaka beti iragan dadin bizia,
gure Jainkoak sortzetik baitu bakotxarentzat hasia;
Eskual Herria zerbitzatzeko berriz badut gutizia,
bainan hargatik berexkunderik gabe nahi dut guzia.

8

Orroitzapenak onak baditut, alaitzen zeraut bihotza,
ezin dezaket erran ordua izana dela arrotza;
bertsutarako sorkunde hura izan delakotz zorrotza,
naiago nuke zabaldu dadin edo ni geldi hil otza.

9

Lagun maitea, erran ditake Eskual Herriko odola
zoriontsua soka beretaz estekaturik dagola;
ipar aldeko haize goxoak deraukan hatsaz diola
behin betikotz batera bedi dohain bereko eskola.

10

Denekin nago, zertako beraz enetzat gaurko dolua?
Mihia ere sortzetik daukat nor nahik bezain zalua;
nitarik urrun egon dadila herra tzarren urgulua,
akulu xixtak itzal ditela, neurekin dut akulua.

11

Arrossagaray-k mintzoa badu, nondik dago mututua?
Gezurrak daukan solasa nehoiz ez dadila aditua;
zabalduz geroz izan behar du idai benedikatua,
mundu huntako ponpa tzarrenek nehoiz ezin sontsitua.

Erdia irriz erran ditut gaur hemen zonbait pertsu berri,
barkamendua eskatzen deiet xixtatu dituztaneri;
urte berri on desiratzen dut bihotz barnetik deneri,
partikulazki trixtura minez dauden anai-arreberri.

26-12-89

Egilearen andreak idatzi kahierra
Herria, 1990-ko Urtarrilaren 11-koa.

Bertsuen ondotik argibide hauk ematen ditu *Herria*-k:

«Pertsu hok atera ditut ez batere gaitziduraz, bainan adituak aditu nik ere zerbait moldetaz mintzatu behar nuelakotz, Euskal Herriak entzun dezan ene mintzoa bere omorerik hoberenean, Araiz Alkati ez zaio gaitzitu tuko ene jazartzea; erraiteko on denak behar du entzuteko ere on izan.

Orai ikusiko du ene ahoan mihia arras bustirik dagola. Euskal Herria zerbitzatuko dugu zoin guhauren ahalaren arabera, elgar lagunduz bihotz onez, nehoiz buztarriko uhalik laxatu gabe; goazen aintzina elgarren mai-tasunean behin betikotz, baia erranez galdegiten gaituztenean. J. A.»

Eliza eta gizona

Airea: Ttiki ttikitik.

1

Jainko maitea, gaurko munduak nolakoa du dirdira?
Hurrats guziak ikusi eta bihotza jin zaut erdira;
eliz gizonak ta ezkonduak ikusiz nago begira
gure fedea ez ote doan orai lurraren azpira.

2

Lehengo arak gaur diotenaz zabiltzan bortitzegiak,
bainan zuzena nundik heldu den zabal dauzkagu begiak;
lehen gizonen artzain zeudenek mendian zaintzen ardiak,
indar geiago ez ote dauka egun zeruko argiak?

3

Zuzena denak ikusiko du gure barneko zikina,
behin beltzatuz geroz sekula santan argitu ezina;
ifernuan den Satan aingeru Jaunak haizatu biguina,
horri burua leher akozu, zeruko Ama Birjina.

4

Gure manera ikusi eta ez deraukazu atsegin,
bide txarretan gabiltza eta nekez daiteke aldegin;
Kristoren Ama, nahi naukezu errespetuaz galdegin
zaindu gaitzazu Satanen mutil nehoiz ez gaitezen egin.

5

Bekatoreak egiten dauku borta guzietan hela,
hurriskuaren gakoa bere dauka, ezin da bertzela;
iduritzen zaut otoitz kartsuez hori itzal ditakela,
gaizki eginen saritzat dago betiereko kartzela.

6

Bai ordenatu eta ezkondu denentzat tentamendua,
bekatuak du emeki egin nahi bere zimendua;
gaizki erori balinbagira otoi urrikalmendua,
Zeruko Aita, ukan zazu ta emazu barkamendua,

7

Munduko ainitz gorabehera egun ikusten ditut nik,
ez dut erraiten ni nihaur ere arrunt sanoa naizenik;
ene hitzetan ez dut emaiten protsimoari hobenik,
bainan goberna gaiten guziak ahalaz hobekienik.

8

Gaurko pertsutan gogoan naukan hau erran behar nuena,
ezin jasana daukat oraiko fedezko beherapena;
Zeruko Jaunak ez gaitzan otoi bortitzenetik kondena,
errespetatu behar ginuzke ezkontza eta ordena.

9

Ama Birjina, zeru gainetik guri begira dagona,
heda zaguzu gauden haurreri zure borondate ona;
mundu zabalak sendi baleza laike gure zoriona,
behin betikotz batera gaiten Eliza eta gizona.

10

Mila bedatzi ehun lau hogoi eta hamargarrenean,
pertsu berriak idatzi ditut orai Bazko egunean;
nahi badugu goxoki bizi, bai eta zorionean,
errespetuki goberna eta beti bide zuzenean.

15-4-90

Egilearen andreak idatzi kahierra
Herria, 1990-eko maiatzaren 10-ekoa

Magali Zubillagari

Doinua: Mutil koxkor bat.

1

Eskual Herriak sortu zaituen odol garbiko izarra,
lehen aldikotz etorri zira Garazin ene bixtara;
errexinola zauden xoria, sailduer zaizke konpara;
mundu huntako baratzearen lore goxoa zu zara,
hasia duzun lan urrezkotik nehoiz ez zaitela bara.

2

Leku ederrak sortu zaituen eskualdunen lurtiarra,
Frantzian eta Espainian zu onetan zaude bakarra;
zure medioz emendatzen da Eskual Herriko indarra,
Aldudek eta aitamek zuten senditzen zure beharra,
Magali, zaude hizkuntza eta herri maitale suharra.

3

Zure botzari egin izan dut errespetuz behakoa,
nasaiki badu eskual beharri guzien asetzekoa;
ez dut erranen dela zilarra, baina diot urrezkoa,
sortua dela zure gainerat merezi bezalakoa,
erran ditaite hori ez dela arrunt mundu huntakoa.

4

Ez nuen uste egina zela zure kaseta berririk,
zure bihotza kantuz entzunez gogoa daukat argirik;
Eskual Herriak ikusten baitut ez deraukala hoberik,
Aldudek zonbat ikusi du zu bezalako iguzkirik?
Premundo, Monlong zenduez kanpo ez dut ikusten besterik.

5

Magali, zure kaseta nuen beti erosi nahia,
egina zela haur xapelketan jakina nuen egia;
adin gordinez goratu zira, izpirituz ez nagia,
Eskual Herriak zerbitza beza zure barneko argia,
gerlarik gabe bake osoan denek dezagun balia.

6

Kaseta hori eskuratu dut diruaz pagatu gabe,
nola gertatu zautan kasua erranez ez naiz herabe:
alabak deraut eskuratua prima ttipi baten alde,
xapelketan da kausitu izan ezin ditaikena gorde,
ta Bernadetak egin izan nau, Magali, kazeta jabe.

7

Izen deituraz Zubillaga ta bataiokoaz Magali,
Eskual Herria sustengatzekotz kantuan zaite ibili;
arras gutixko ikusten ditut zure berdineko lili,
gure hizkuntza suntsitu nahiz dabilta zonbait herbaili,
egin ahala egizu beti hau ez dezaten uzkailei.

8

Pertsu berriak norenak diren galdezka zira hasiko,
azken lerroa irakurtu ta laster duzu ikasiko;
agur onena eskaintzen dautzut ene denbora guziko,
zure herritar nauzu erdia eta agian betiko,
Bentaberri naiz Aintzilen eta Alduden berriz Patxiko.

22-4-90

Egilearen andreak idatzi kahierra

Bortuaren egunean

Gure alaba Bernadetak kantatu dituen pertsuak bortuaren egunean Salbatoren, Buruilaren 16-an, 1990-ean

1

Kantuz artzera Salbatorera egungoan bainaiz jina,
orai haurtxoa izanik ere bidea ez dut ezina;
pertsutan ere kantatu nahi ez izanik e jakina,
eman nahia dutalakoan guzieri atsegina.

2

Bortu egun hau iragan bedi dena osoki fleitean,
artzainak ere goxa ditezen ez dagolakotz kaltean;
aire sanoa iresten dugu gaur gauden mendi maitean,
artzaintsa egin nahiago dut hirirat joan artean.

3

Ene agurra bihotz erditik eskaintzen dautzuet egun,
bihotz trixterik balinbadago ez dadien geldi ilun;
besta goxo hau guziek hemen ongi burura dezagun,
hementik goiti Bernadeta da zuen denendako lagun.

Egilearen andreak idatzi kahierra

Gerlari ohiek berriz elgar ikustea

Airea: Oilanda gazte moko fier bat.

1

Apirilaren hamalauean Donibane-Garaziri
gerlari eta presoek dugu egingo ongi etorri;
gerlan hileri otoitz bana ta biziek esku elgarri,
egun hau bedi bizi gelditu soldadoen orroitgarri.

2

Mila bedatzi ehun lau hogoi eta hamekagarrena,
gerlari izan soldadoekin ohoratuko dutena;
Apirilaren hamalauean da bestaren elgarmena,
Donibaneko Garazi huntan iragan beharra dena.

3

Tunisian ta Marrokan ere egonak ta Algerian,
etxeko goxo hartarikan gu ginaudenak miserian;
bizirik jinen ginelakorik deusik gabe agerian,
Jainkoak eman laguntzaz gaude bizirik Eskual Herrian.

4

Egun trixteak iragan dira, gaur zorionaren jabe,
egun goxo hau hobea dugu jendeak jendea hil orde;
Algeriako gerlaz aipamen hortaz beraz naiz herabe,
eskerrak, Jauna, itzuli gira han bizirik galdu gabe.

5

Anai zenduak, otoitz kartsu bat gaur daukagu zuendako,
zuen bizia utzi izana da erresumarendako;
sakrifizio ohorezkoa da zuen arimarendako,
bai eta ere gako handia salbamenduarendako.

6

Etsaia beti erabiltzen da uste ez dugun atean,
bakezaleak izan gaitela gure bihotzen betean;
gerla bideak suntsi ditela betikotz gure artean,
bake osoa gozatuz bizi gaitezen libertatean.

1991-ko Martxoaren 1-ean
Egilearen andreak idatzi kahierra

Jainkoaren maitasuna

Airea: Bertsularien bat.

1

Jainko maitea dezagun egun bihotzetikan adora,
gure izana Haren medioz erabiltzen baita gora;
Haren haurtxoak girelakoan fruitu hori laike lora,
sekula santan ez da luzegi Harekilako denbora.

2

Zeru gainetik erortzen baita atseginaren izarra,
gure denboran hori daukagu daukagun indar bakarra;
saindutasunak emaiten baitu zorionezko pindarra,
gure bizian hau da balios eta ainitzez beharra.

3

Zeruko Aita, atxik gaitzazu bihotz onaren menean,
bekatorosak izanen gira zutarako garenean;
miserikordi Zuk ukan zazu gure hatsen azkenean,
zure besoa balia bedi nere azken orenean.

4

Zeruko Aita, ni zure kontra mintzatzen bainaiz hain usu,
zure laguntzen behar orduan kausitzen naiz arduratsu;
zure bihotza enea dela ainitz gauzetan behartsu,
kexa moldetan aurkitzen bainaiz bihotzez maite zaitut Zu.

5

Bihotz guziak banatu eta jartzera noa serio,
gure biziko urrats onenek zer ote dute balio?
Elgar hastiro eta txarkeri horrek dauka ondorio,
gure zerua lurrean laike baginauka amodio.

1991-ko Maiatzaren 26-an
Egilearen andreak idatzi kahierra

Nafarroako xapelgo erdi kanporaketa

Donazarren

Airea: Oilanda gazte moko fier bat.

1

Mila bedatzi lau hogoi eta hamabiko urtekoa,
Donazarren Nafarroako xapelgoa zelakoa;
final erdia zagoen eta nintzan ezin arizkoa,
eritasuna etorri zeraut botzaren estaltzekoa.

2

Goizean pertsu kantatzen ari beharra nintzan elizan,
hortako ere ez dut atsegin desira nuenik izan;
Ama Birjina, lagun nezazu zure ahalen gerizan,
pertsu kantatzen geroan ere nahi bainuke arizan.

3

Jainkoa, ere aipatzen zaitut, gure nagusi maitea,
bertute eta ahal guziez gain gaineraino betea;
idek adazu ene gaitzaren sendamenduzko atea,
pena bainuke familia bat aitarik gabe uztea.

4

Behar ditudan sendagailuak gaur egunean nun dira?
Batean hau da bestean hori, deusikan ezin argira;
aurten segurik trantze txarrean erori izan baigira,
beste urtetan, Jainkoa, otoi holakotarik begira.

5

Gaixo bularrak, nola zarezten hori nihaurek ez jakin,
alta adina bera daukagu, sortu ginen elgarrekin;
burua eta gainerakoak segitzen dira enekin,
bainan ttipitik nauzkan hauskoak ahulño aire batekin.

6

Entzule diren jende guziek ene eskasa barkatu,
ez uste izan nik egun hartan ez dutan zuer pentsatu;
ofizioaz pertsulari naiz, beti hori dut maitatu,
dohaina ene barnean dabil, ezin dezaket kantatu.

7

Ezin kantatu izanak neri egin izan daut sarraski,
sendagileak eta esposak ene berriak badazki;
sendatuko naiz gaur nihaur ere konturatua naiz naski,
hiltzeko gaitzik ez naukan bainan gelditzeko nuen aski.

8-04-92

Egilearen andreak idatzi kahierra

Joni adixkideari

Doinua: Loreak udan ihintza bezala.

1

Joni laguna, zure pertsuak irakurturik kasetan,
zure ideiak agertu tuzu bihotz barnetik betbetan;
Ezterenzubin daukazulakotz hartu odola zainetan.
hortakotz, Joni, orroitzen zira zaudeno Ameriketean.

2

Orroitzen zira Aintzilen nola arizan ginen pertsutan,
herriko besta akabatzean, zikiro besta batetan;
zorion oso opatzen dautzut zure hurrats guzietan,
zuen bizia osagarritsu izan dadila denetan.

3

Nihauerek ere hori deraukat izan osoki jakina,
bainan hargatik hobe ginuke gu hurbilago bagina;
bertsularitza daukazu zinez ohoragarri ta fina,
bihotzez maite zautan laguna kantuz ikusi ezina.

4

Ene barnetik ateratzen zaut penagarritzko nigarra,
Ezterenzubik emana dautzu zainen barneko indarra;
herriz kanpoan zaude zu. Joni, nahiz ez ziren bakarra,
odola ukan duzun tokitik urrun higatu beharra.

5

Arrossagaray orroitzen zautzu, otoi ez zazula uka,
badakit beti maite izana duzu artzea pertsuka;
aita zaudena familiako beti lanari buruka,
Ama sailduak buhatzen dautzut zaitzatela benedika.

6

Ene baitan hau baita osoki gaztedanikan jakina,
hamabortz urte bete orduko lehen sasoina egina;
adin gaztean egin izan dut biziaren etsamina,
urrun delarik zonbat sendi den sortu herriaren mina!

7

Azken pertsuan igortzen dautzut goraintzi, adixkidea,
nahiz ez zauden adinez izan gertatu ene kidea;
Ameriketan zabaldu duzu pertsularien bidea,
besarkada bat eskaintzen dautzut, gure denen haurridea.

27-09-92

Egilearen andreak idatzi kahierra

Garaziko bi apez maitatueri

Airea: Lurraren pean.

1

Berriki ditu Garazik galdu bi apez maitagarriak:
Pettan Iratchet, Jean Irigoyen, fedezko mezulariak;
bat ala beste ziren ederrak elizan predikariak,
halaber botza xarmanta zuten eta biak kantariak,
holako mila urrezko lore sor bitza Eskual Herriak.

2

Hogoi eta bat urtez Alduden Pettan Iratchet egona,
erretor gisa lana eginez, bihotz oneko gizona;
hamasei urte gu esposatuz egin prediku sakona,
ene gogoan beti hori da bizi naizeno dagona,
hortakotz dautzut gogoz opatzen zerurako zoriona.

3

Jean Irigoyen xirularia, predikari ta kantari,
eskualdun zintzo zabilan beti segitua Elizari;
zaharrer bezain atxikia zen egungo gazteriari,
errespetuki segitua zen gogo barneko lanari,
Nagusi onak eman dezola bakea eginen sari.

4

Lauetan hogoi eta hamabi garai huntako urtean,
mundutik joan zarezte biak behar ordu bat betean;
deia apezak eskas dira ta hau da munduko kaltean,
lehenago ni usatua naiz, apezak, zuen artean,
zeruko bortan zaudezte beha Arrossagaray jitean.

5

Oso lagunak eta maiteak baitzinuztetanak biak,
zuen ahotik entzun izanak ditut ainitzez egiak;
beti zintzoki mintzo zinezten behatuz erne begiak,
zuer pentsatuz biziko gira lur huntan gauden ardiak,
noizbait zuekin gozatu gaitzan zorionaren argiak.

8-03-93

Egilearen andreak idatzi kahierra

Ikus arte, Lazkao-txiki

Doinua: Loreak udan ihintza bezala.

1

Agur, laguna, bihotz barneko beti zintudan maitea,
zure alderat betitik naukan gogoia argiz betea;
Eskual Herriak zure galtzeaz haundi izan du kaltea,
parabisuan izan zazula guretzat zabal atea.

2

Lazkao-txiki, ene pertsuko lagunetan maitatua,
zure bihotza baitzagon denen alderat zatikatua;
ona zinela eta Jainkoak gazterik zaitu hartua,
bere eskutan erabil beza Koxe Migel sakratua.

3

Zure izana nolakoa zen badakit neure partetik,
ezin kendua egonen zira nehoiz ene bihotzetik;
Arrossagaray ere badoa zuk egin bide beretik,
zeure lagunero otoizlari bat zaude zeruko gainetik.

4

Zurekin kantuz artzea zagon zinez ene zoriona,
beti omere ona zinaukan, barne oneko gizona;
zure pertsua goxoa zagon eta askotan sakona,
beso eskuina galdurik daukat, enetzat ez da gauz ona.

5

Mundu hunetan bat ginen biak, agian bestean berdin,
gu horrarako tenore hartan toki bat zazula egin;
bertsu goxoak kantaturikan baditugu elgarrekin,
anaitasuna geldi dadila behin betikotz gurekin.

6

Alaitasuna zurekin zagon eta izpirituz abil,
bazinakien jenden arteko izana nola erabil;
azantz handirik egin gabeen beti zinabiltzan umil,
zure gorputza joana gatik bihotza gutan ez da hil.

8-04-93

Egilearen emazteak idatzi kahierra

Erramun Martikorena adixkide maiteari

Airea: Loreak udan ihintza bezala.

1

Aspaldikoa baitzaitut beraz, oi ene adixkidea,
Eskual Herria zerbitzatzeko egin diozu bidea;
kanturateko ona baitago zure barneko moldea,
errespetuaz estimatzen dut zauden gure haurridea.

2

Haurride ona izana zira, Erramun, betidanitik,
zure barnea iluna utziz beti badoa argitik;
gizon sanoa zaudelakoa ageri baita begitik,
Eskual Herriko anai arrebek maite zauzte bihotzetik.

3

Zu maitekorra betitik zaude gaur, anai Martikorena,
kantuan orai egiten duzu Eskual Herriko gorena;
gure bihotzez estima daike zure obra ederrena,
behin betikotz estal baladi bihotzetik nuke pena.

4

Zure bihotzak ez ote dauka sendimenduzko indarririk?
Bizi goxo bat iragaiteko ez dea andren bularririk?
Sendimenduak garraitu eta ez dea deus e ondarririk,
gizon sano bat andrerik gabe bizitzekotan bakarrik?

5

Eskual Herria nolakoa den denek baitakigu egun,
gure alaba komunianta hortaz baitzinen ezagun;
bihotz bihotzez egin duzuna orai estima dezagun,
kausitu gabe zure eskaintzaz gaur esker mila, Erramun.

6

Xoramenezko dabila orai zuk daukazun talendua,
artzaintza eta kanturateko eginik mogimendua;
ez zen nortasun gabekoa gaur daukazun pentsamendua,
kantuan egin obra ederra nehoiz ez bedi zendua.

7

Eskual Herrian sortzetik haste denen gisa zira hezi,
nahi ala ez zonbait pirula behar gabeko iretsi;
bainan hargatik borondateaz aterik ez duzu hetsi,
Jainkoak berak ikusiko du zertsu daukazun merezi.

3-6-93

Egilearen emazteak idatzi kahierra

Eskual Herriaren agonia

Airea: Pertsularien bat.

1

Nola gabiltza lehenagoko aitama zintzoen haurrak?
Alta dakigu gure biziko urteak daudez laburrak;
Eskual Herria harturik dauka min gaixtoaren beldurrak,
gure herritan azia bada, nun ote dabilta lurrak?

2

Lurrak urruntzen behin betikotz penaz ikusiz geroztik,
maitasunaren ohandze hura eskapatzen da gogotik.
Zertako beraz ez gira lotzen neska goxoen besotik,
ala hitz onik ez da ixurtzen geiago gure ahotik?

3

Birazka behar litazken ainitz ikusten baitut bakarrik,
maitasun sano horrek ez ote dauka lehengo indarririk?
Ala geiago ez da gertatzen maita ditaken izarrik?
Zertaz haurtxoek ez dute maite beren amaren bularririk?

4

Ama Birjina, otoi has zaite gazten bihotzen argitzen,
hori gertatzen ohi da naski, fedea nun da senditzen?
Eskual Herriko mina barnarik hasi dadila mamitzen,
geroko izan trixteak baitu ezkila hutsa aditzen.

5

Oso galtzerat utzi artean hartze ditugun gakoak,
herria besten esku uzteko ez otoi izan flakoak;
bilakatzean trixteziatzko urratsak dira gaurkoak,
barka ahala izan dezake zeruko gure Jainkoak.

6

Egin izan dut Eskual Herriko bazterraren ingurua,
alde orotan ikusi baitut araberako modua;
lizunkeria hurbildu zauku eta urundu zerua,
hola segituz akabo dago gure lurreko mundua.

7

Uste dut orai miatu duztan bai azpia eta gaina,
hola pertsutan mintzatuz ere bestaldera doa baina;
ez naiz oraino mende huntako gazteriaren itzaina,
Eskual Herriko azia bedi sortu lurrean eraina.

8-06-93

Egilearen emazteak idatzi kahierra

Iparra eta pertsularitza

Airea: Pertsularien bat

1

Iguzki bero sano indarra nola ote zauku hoztu?
Usaia gozo maitagarriak bet betan dira arrotzu;
higuinkerien hortzak zertako hola zauzkigu zorrotzu?
Anaitasunak zauzkan erroak behingotzat dira moztu.

2

Pertsulariak zintzoa izan behar bailuke plazetan,
mihia ere garbi atxikiz jalitzen tuen eletan;
ixtorioak arruntak utziz beti mintzatuz onetan,
egun hobeak etor litazke hizkuntzaren fagoretan.

3

Ezpainez kantuz ari naiz bainan begian daukat nigarra,
ezin sendatuz ari delakotz gogo barneko sukarra;
zu zaude orai arrastiritik eguerdirat beharra,
guri sortzea eman daukuzun bihotz barneko iparra.

4

Pertsularitza lehen iguzkiz, ilunpean dago egun,
guhaurek ere ote dakigu zoin bidez huts egin dugun?
Luzaro gabe iduritzen zaut jaliko dela ezagun,
nor aurkituko zaukun zinezko behar gabezko hobendun.

5

Zertako bada joanak gira bekaizkeriz andarkoka?
Behin betikotz itzal dadila herra gaixtoen borroka;
bertsulariak zortzi baginen ipar aldean lerroka,
elgar ez maitez zertako eman lepo erditikan soka?

6

Ogi azitik hoberena zen gure artean eraina,
bainan uste dut iraka dela gaur ogiaren ordaina;
hiru zangoak moztuz geroztik lurrerat doha mahaina,
ipar maitea, senditzen dautzut hil hoztuaren usaina.

7

Ez nuke nahi izan sobera ene hitzetan zorrotza,
bainan egia argiratzeko egungoan ez naiz lotsa;
bertsularia entzule denak nehoiz ez baitu arrotza,
kanpoz arruntak izanik ere garbi daukagu bihotza.

8

Beste izar bat kusten dutana sofrituz ene partia,
iparrak ere baitu pagatzen Irulegi irratia.
Nun aditzen da ipar aldeko pertsularien zatia?
Egundik haste hobe ginuke hegotarrak izaitia.

9

Gaitzidurarik gabe gelditu zaizte, andre eta gizon,
ene gogoko sendimenduak agertu naia nindagon;
geroan ere denen anaia zintzo nahi baitut egon,
andrerri musu, gizoner esku, guzier urte berri on.

5-1-94

Egilearen emazteak idatzi kahierra

Irulegiko irratikoeri

Airea: Pertsularien bat.

1

Irulegiko irratia da zatitua bost kolorez,
bertsu batzuek egiten ditut oraino zuen amorez;
berri batzuek hedatzen dira zonbait alditan dolorez,
bainan nik beti maiteagoak zaituztet denak omorez.

2

Bertsulariez arduratzen da gutiz geienetan Pantxo,
gogoko berri zilatzen zuri ez ote zauzia gozo?
Galdezka jinez geroztik hitzik ezin daike egon preso,
erdizka deusik ez duzu nahi, bainan denak arras oso.

3

Neska gozoa irripartsua dugu gure Mari Agnes,
begitartea beztitua du betitik omore onez;
sekulan nehor ezin enoa ber horrekilan egonez,
bizi luze bat buhatzen dautzut beterikan zorionez.

4

Ta Bernadeta ezin dut utzi deusik argiratu gabe,
begiak zabal propitasunez, ez da nehoren herabe;
andre guzien gisa mintzatzen ere baita arras trebe,
zure mintzoa ez nuke nahi luzaz dadienik gorde.

5

Nola utzi deus erran gabean, guzien maite Pantxika?
Zuen artean hemen nabila ni artetan itzulika;
bihotz guziaz onhar zazu zuk egiten dutan zirika:
zure eskutan eror dadila eskualdun errepublika.

6

Barkatu otoi zu aipatzea azkenetarikan, Jojo,
zure begiak ez du beldurrik egoiteko nornairi so:
nahiz ikusten duzun aurrean ainitz jende gizagaizo,
denak zuzenki ibil ditezten otoi heda zazu beso.

7

Merezimendu frango duzue gauza zintzo guzietan,
erro onenak zuen medioz baitabiltza herrietan;
ardi deiztean arditegian, autoan berriz bidetan,
zuen botz hori xoragarri da aditzea sukaldetan.

8

Lan xoragarri ederra hartu zinuten horri lotzean,
ainitz alditan egoiten gira geiago entzun gosean;
atsegina da ipar aldeko hiru irrati botzean,
zuen maitasun onena dago egun gure bihotzean.

4-03-94

Egilearen emazteak idatzi kahierra

Laborarien kezak

Airea: Ttiki ttikitik.

1

Laborarien gaurko bizia zinez dugu peningarri,
goragokoek hartzen gaituzte ximple edo irringarri;
behin betikotz eginik gaude alfer daudenen hazgarri,
gure makurrik handiena du kausa txar horrek ekarri.

2

Kabalak ere dagotzi arras preziotan apalean,
zabaltasunak hertsatu dira gure indar hegalean;
lehen argitan zauden izanak orai larre utsalean,
laborantxa hau gora beharra bizi ezin ahalean.

3

Gobernu faltaz etorri dira horrelako zonbait modu,
gure kabalen prezio txarrek emaiten daukute gudu;
ararteko den izandunetak biltzen ditu ainitz pondu,
dirua eskas guk daukaguno komertsak sofrituko du.

4

Gauza on guti ikusten dugu beraz hemendik aintzina,
laboraria zapatze hori dago onetsi ezina;
ofizialeak sendituko du gure moltsaren arina,
mundu huntako bizia baita lurrari ezker egina.

26-03-94

Egilearen emazteak idatzi kahierra

Nafarroari

Airea: Ume eder bat.

1

Aurten Baigorriin egingo baita Nafarroaren eguna,
iguzkiaren distirak itzal beza herriko iluna;
behar ginuken izana laike guk elgarren maitasuna,
Nafarroa, zuk piztu zaguzu zinezko elgartasuna.

2

Erreka txarrak utzi ditzagun, begiak heda mendira,
gure arteko hinki ta hankak hola itzaliko dira;
Nafarroa, zu ainitzez maitez bainago zuri begira,
gure bihotza ekar aguzu gezurretik ta egira.

3

Nundik ikusi ahal ditaike zuzentasunaren zola,
oraino ere ikusten dugu arin airean dagola;
izanik ere dohain haundiez eskainia den odola,
eskuin ta ezker ibiliko da neherek ez jakin nola.

4

Nehork ez daki nolakoa den heldu zeraukun geroa,
eskualdun denak azkar atxiki behar bailuke erroa;
ez ahal dago nehor izanen zentzu arinez zorroa,
behin betikotz ukatzekotan Ama dugun Nafarroa.

18-04-94

Egilearen emazteak idatzi kahierra

Gaurko gazteria

Airea: Dama gazte xarmant bat.

1

Oraiko gazteriaz gogoetan nago,
denbora joanago eta trixteago;
xaharren partez balitz laguntza geiago,
gazten bizia laike ainitz hobeago.

2

Hobeago laikenaz gaur daude begira,
ez ote da joana lehengo dirdira;
ilunak utzi eta joan iguzkira,
kotsolamendu hobez ariko baitira.

3

Batzuk ekartzen duzte gazteak flakoak,
hoinen eskutan daude geroko gakoak;
ez izan sobera gu erran gaixtokoak,
horiek direlaketz gure ondokoak.

4

Miga bat ere ez da berehala hezi,
bainan sekulan ez da lanetik ihesi;
molde berri onak gaur beharrak onetsi,
ondokoek baitute laguntza merezi.

6-6-94

Egilearen emazteak idatzi kahierra

Mixel Garikoitz pastorala

Airea: Loreak udan ihintza bezala.

1

Uztailak daukan hogoi lauean egin baita pastorala,
Mixel Garikotz saildu handiaz, errana zuten bezala;
hau Donahaxtin muntatu dute zinez baitzuten ahala,
Xuberotarrek erranen dute urrun hedatuz doala.

2

Ustez berena zuten jokoa Baxenabarren da sartu,
denak anaiak gaudela hortaz behar ginuke ohartu;
azi sanoa dagon tokian betikotz bedi azkartu,
goizeko argi sanoa nehoiz ez dadin ilun nabartu.

3

Baxenabarrak egin dezake bere gisako lan ona,
alta ez luke nahi ebatsi Xuberaren zoriona;
izaite horri pentsatzen nago ainitz alditan egona,
Xuberan ala Baxenabarren gizona dago gizona.

4

Ez nuke nahi gaurkoan bota pertsutan solas idorrik,
ez erran otoi Baxenabarren ez dela jende kozkorrik;
ez da menturaz Xuberan bezain hardita eta bolborik,
Baxenabarrak indarra badu, nehoi ez dauka zorrik,

5

Mixel Garikotz saildu handiak ikusten baititu denak,
bihotz barnetik estimatzen tu denak haurride gaudenak;
pastoral eta eskual jestuak baiterauzka ederrenak,
agian orai ikusten ditu lehen utzi dituenak.

25-07-94

Egilearen emazteak idatzi kahierra

Beñat Detxepare

Beñat Detxepare zenaren kantuak Xabier Letek kantatzen Garazin.

Orroitmen hortara kantatu pertsuak.

Airea: Ttiki ttikitik.

1

Beñat Detxepare, gaur zure hitzak Leteren musikarekin
adiaraziz Garazi huni atsegin duzue egin;
lehen zenduen obra ederrak egun maite dira berdin,
erran nahi da Beñat bihotzez deraukagula gurekin.

2

Zure ondotik utzi daukuzu eskualdunaren odola,
eta geroztik segitzen dugu hori guhauk jakin nola;
gain behereak zinauzkan azkar, zinezko errexiñola,
Xabier Letek indar bertsuaz azkartu du ikastola.

3

«Euskara, jalgi hadi plazara» aditu dut hitz betetan,
bainan tronpatzen ez ote giren orai nago pentsaketan;
aditzen ditut, egiten diren berdin eskual urratsetan,
erdara dela gaur nagusitzen ainitz gure mihietan.

4

Eskuara tornu haundia dela ainitzek ezin jasana,
gure bihotza izan dadila hizkuntza horri emana,
Baionaraino joan orduko ainitz mihitan etzana,
eskualdun denak ez beza uka sortzetikako izana.

27-11-94

Egilearen andreak idatzi kahierra

San Pantzar

Airea: Xarmegarria zira.

1

Ihauterietan hau garaia dago ta,
araberen behar tut pertsu batzu bota;
arrunta dela diot horrelako lota,
San Pantzar igorriko dut buruan jo ta.

2

Gutartean bazabiltz dena debrukeri,
koloreak zuri ta iduria eri;
ezin konparatua batzu ta besteri,
zor handitan zabilta munduko jenderi.

3

Beti ihauterien zaude erregea,
presentziz ederra ta eskasa elea;
San Pantzar bezalako zarpilik badea?
Zu erre arazteko egin dut legea.

4

Egin duzulakoan desmasia kalte,
geiago nehork ere ez zaitugu maite;
zeure baitan deusikan ez baituzu uste,
alemanen labetan erreko zaituzte.

19-02-95

Egilearen andreak idatzi kahierra

Etxe leiho zerratua mintzo

Airea: Ttiki ttikitik aita t'amak.

1

Etxea mintzo naiz jendeeri: Nun ote zarezte denak?
Iguzkia den egun ederraz senditzen ditut auhenak;
ene barnean hazi zarezten xaharrak eta gaztenak,
nun zabiltzaten jakin gabean bihotzean dauzkat penak.

2

Ene barnean ezin egonez eta lur lanak utzirik,
nere lurretan ez ote zaiken erain behar zen azirik?
Egun osoan penatua naiz borta leihoak hetsirik,
iduritzen zaut ene gorputzak geiago ez du bizirik.

3

Ene barnetik eginak izan dira seriozki lanak,
geroztik dira beren nahirat ene gozotik juanak;
amentsetarik bezala daude oraiko ene izanak,
enekin beti atxiki nahiz auzokoeri emanak.

4

Auzokoeri emanak eta jabeak kanpo lanean,
jestu horiek ikusi eta ez naiz omore onean;
Eskual Herriak bere izana beti nahi du barnean,
irrisku txarrak izaiten dira etxea uzten denean.

5

Zertako hola utzi nauzue beherapen txar batekin?
Makurrik gabe enoatuak ote zinezten enekin?
Maite minduak alta ginauden lehenago elgarrekin,
iraupenikan ez ote dago etxe bat eta jendekin?

6

Jende maiteak, adi zazue erran gogo dutan hitza:
guhauren uzta sanao utziz ja bestenetan gabiltza;
kanpokoa da errexa eta etzekoa da bortitza,
nagusi txarrak utzi ditzagun eta gureak zerbitza.

7

Ene bortak ta leioak otoi zabal ditela maizago,
zaituztetanak zuen bihotzen aterbe zintzo bainago:
hastapenean ene beharra zindutenak lehenago,
iduritzen zaut errespetua hartze nuke gehiago.

8

Ezin dezaket ameti gisa huntako izan manera,
elgarretarik aparte egon gabe gaitezen batera;
bihotzez maite zaituztet eta ez otoi utz erortzera,
nahi nukena etor zaitetzte maizago ene barnera.

9-04-95

Egilearen andreak idatzi kahierra

Haurra amak ukatua

Airea: Loreak udan ihintza bezala.

1

Ama maitea, ukatu nauzu neure izan guzietan,
zure odola xurgatu izan ote daukat debaldetan?
Sortu orduko utzia nauzu maitasunaren gabetan,
ene lertzorik ez da gelditu horrela zure zainetan.

2

Dakizun azi batetik bainaiz mundu huntara sortua,
eta geroztik maitasun fina nolaz dago agortua?
Ni nago orai zure arbolak sortua nauen fruitua,
hobenik gabe herra trixteaz betikotzat ukatua.

3

Ene bizian jasan behar dut burraso gabezko zama,
Jainko maitea, ene biziak zoin aldetara nerama?
Hobenik gabe kondenatua, hori ezin diot asma,
aita krudela izatu bada, zertako zu berdin, ama?

4

Zure odola zainetan daukat, ama, behar duzu jakin,
gizona ez da zorionezko gaixtakeria batekin;
ene egile zarezten biak egon eta elgarrekin,
dirdira sano berokorrena izanen zaiken gurekin.

5

Argi goxo bat ikusia dut deraukatan mundu huntan,
noren ere ote nagoen pentsaketan naiz batzutan;
ene bihotza erakitzen zaut herra saminaren sutan,
amodioa hartze nuena bainago bertzen eskutan.

6

Bertze gauza bat etortzen zeraut bihotz gogoen barnera,
ama ta aita, ez nuke nahi zuentzat erran sobera;
tronpatu izan bazaizte biak nehor ezin da menpera,
kontent naiz utzi izan nauzue argiaren ikustera.

7

Azken hitzean jarri behar dut barne zuzenetik umil,
mundu biziaz deusik ez dakit, nolaz nindaiteke abil?
Zer heldu zautan ene gogo ta bihotz barnean badabil,
ez dakitala amodioa noren barnean erabil.

8

Maitasun gabe ene bihotza senditzen dut arras eri,
nola ez gaitu gure Jainkoak gu estekatu bateri?
Nik zuen arak segi banitza zer on litake ageri?
Nihauk ikasi ez balinbadut nola erakuts bertzeri?

9

Nor zagon aita, nor zagon ama, hori zen zuen tratua,
nahi ala ez ni nago orai zuek moldatu fruitua;
zure partetik, ama, bainauzu bihotz gabe ukatua,
hazi orduko barkatuko dut egin duzun bekatua.

15-04-95

Egilearen andreak idatzi kahierra

Bozkak

Airea: Ttiki ttikitik.

1

Aurten izana baitugu denek bozka denaren sasoina,
batzuek eta bestek daukagu gure ustez arrazoina;
elgarren kontra aririk ere ez da izaiten lehoina,
zertako beraz elgarri bota sugeak daukan pozoina?

2

Bi alderditan gauzak ikusiz arrazoin onak badira,
batzu barnean sartu nai eta batzu ezin erretira;
gazte ta zahar elgarrekilan anai osoak balira,
onak litazke juaiteko're nik uste mundu guzira.

3

Ez da aski gaur mihi barnetik etortzen zeraukun hitza,
uste izanak ez du eskaintzen ostia daukan kalitza;
gure Jainkoak benedikatu izan beza gure hitsa,
gure lana da bakean beti elgar lañoki zerbitza.

4

Bozkak iragan badira ere zinezko bide nekean,
elgar laguntza zertako daike batzu ta besten kaltean?
Tema kolpe bat iragan gatik zebi ezaren su-kean (*sic*),
eskutik esku lotu gaitezen behin betikotz bakean.

26-06-95

Egilearen andreak idatzi kahierra

Garaziren lur ikara

Airea: Ttiki ttikitik.

1

Ilun-nabarra ezin argituz beti geldituko dena
izanen zauku Martial auzo herritar Etcheverry-rena;
Lore aidor bat baratze huntan izan zaiken ederrena,
ohoinen pare gure artetik ereman izan dutena.

2

Laborarien hurrats onetan ere ez zinen nagia,
alde guzien ikustekotan erne zinaukan begia;
Kalifornian egin izanik laborantzako abia,
behin betikotz itzali zira behar ginuen argia.

3

Gozotasunez mintzo zinen ta errespetuaz talendu,
zure solasak bazaukan urrun juaiteko're zimendu;
bainan hargatik Jainkoak zaitu gure artetik ekendu,
zeru sanoak irabazia Garazi hunek galdu du.

4

Nola baratze batean lekak gazterik biltzen baitira,
Jainkoak hartu zaitu, Martial, hartze zinuen alkira;
gaur edo bihar zure ondotik gu horraratzen bagira,
eskuak zabal gu etortzean zaude zerutik begira.

29-07-95

Egilearen andreak idatzi kahierra

Gerlari ohier

Airea: Ttiki ttikitik.

1 *Agurra*

Egun goxo bat elgar artean pasatzeaz nintzan segur,
anai arrebak, espantatzeko egungoan ez naiz beldur;
Amodioa zuetaraino gogotik dezaket ixur,
elgarrekin gu goza gaitezen, bihotzetik dener agur.

2

Gerla trixtea izaten baita zinez odol ixurtzea,
hortaz orroituz gogoratzen zaut Olibetan baratzea;
zinez gogorra izaiten baita hori bere gain hartzea,
nola Jesusek ereman zuen hoben gabe kurutzea.

3

Gizona gizon balinbadago zertarako heriotza?
Maitetasuna behar bidean elgarri erakuts hortza;
mundu huntarik joaitea da denentzat gauza zorrotza,
herra samina estal dezagun, elgarri eskaint bihotza.

4

Horra zer dagon, jakin zazue gaur jakinean nagola;
elgar hiltzeko ez da kondatzen barne txarraren eskola;
bere burua salbatu nahiz etsaia suntsituz hola,
nun ote dugu gure zainetan Krixtok ixuri odola?

5

Mundu guziak baluke zinez hartze duen balioa,
arras zintzoak bagina eta izaiteaz serioa,
ez litaike gaur trixteziazko herraren ondorioa,
bihotz guziak banatu eta onhartuz amodioa.

21-09-95 / Egilearen andreak idatzi kahierra

Ossau-Iraty gasnaz

Airea: Dama gazte xarmant bat.

1
Mendiko bazkak dauka berekin indarra,
sanotasuna dauka, hura da bakarra;
aspaldian zagon hau agertu beharra:
eskualdunen mendiek daukaten bularra.

2
Ossau-Iraty gasna hiruko katean
publikatzen ikusiz joan den astean,
irriño bat jauzi zaut begien artean,
gure zerbait bederen dutela maitean.

3
Beste arramantzarik batzu ta bestetik
ez da aditzen baizik gaur telebixtatik;
Ossau-Iraty dugu guziz onenetik,
eskualdunak ez maitez jaten heienetik.

4
Eskualdunak egina bezain onik ez ta,
gasna onek badute beti errekesta;
jatea gauz ona da aintzinerat presta,
galdatzen dudana da: eskualdunak maita.

5
Beste alderat egun hartzen dut atsegin,
eskualdun bezain maite ditut zonbait berdin;
erdaldunak gantikan lagun on enekin,
gasna hau zuzen laike urrun joan dadin.

4-12-95

Egilearen andreak idatzi kahierra

Bihotz ostatua

Airea: Mutil koxkor bat.

1

Bihotz ostatu elkarte hori Coluche zenak sustaturik,
pobreen alde geroztik hunat daukagu ezaguturik;
protsimotasun hori gelditzen zauku beti zabaldurik,
karitatea egin behar da, idaia ez da galdurik,
geiago ere egin laike ez balitz beste enplegurik.

2

Egitekoak ainitz ikusten ditut jarrita begira,
handikan eta hementik ere galdeak heldu baitira;
handien batzu hobe litaike balitzate erretira,
jenden hiltzeko tresnak utzita zuzenagoak balira,
dirua nasai behar litake gosez daudenen tokira.

3

Nuklear frango egiten dira diruaren gastatzeko,
hamarretarik bederatzitan jenden bizia kentzeko;
handiak beti handi dabilta, nor gira gu erraiteko?
Ez jakin nola ontasunak jan gorenean bizitzeko,
pobre gaixoak aldiz aizina dauka gosez hiltzeko.

4

Laborariaz ere oraino gauzak baitira jakinak,
bakotzak berak senditzen ditu etortzen zeraizkon minak;
egin ahala eginen dugu moltsak izanik arinak,
laguntza egin nahian gaude, nun dira soberakinak,
arras heinean dabiltzalakotz kabalek eman mozkinak?

22-01-96

Egilearen andreak idatzi kahierra

Pertsularitza, norat zoaz?

Airea: Antton eta Maria

1

Hegoa aditu ta nauzu loriatu,
zonbat xoragarriki daukuten kantatu;
gaiak nahi bezala denak bururatu,
iparreko xoriak noizko hortaratu?
Behar ginuken ere ez naiz konturatu.

2

Bertsularitzan hegokoak azkar dira,
eta flakoak hantxe gu heier begira;
berokorra baitute iguzki distira,
ezin hupatuak gu handien alkira,
apezak hauek eta beretter gu gira.

3

Itzali delakoan entzulen sugarra,
bertsutan hortako da apaldu iparra;
aitamen ganik dago ahuldu indarra,
haurrak euskaraz mintzo aditu beharra,
erdara nagusituz hau da huts bakarra.

4

Lehen bertsulariak ainitz gehiago,
jenden artean zauden estimatuago;
autorik ere etzen, zauden hurbilago,
errestasuna ainitz gaurkoan badago
gazteak joaiteko beti urrunago.

5

Oraino zertan dugun guziek hutsegin,
hori behar ginuke elgarri galdegin:
bide xoragarria zerk daukun desegin?
Entzuler eskas eman badugu atsegin,
elgartuz dezagula batasun bat egin.

4-03-96

Egilearen andreak idatzi kahierr

Artzain gazten beharra

Airea: Lili bat ikusi dut.

1

Alferrak sustatu ta laneko kondena,
molde huntakoa da egungo ordena;
lagun baladi artzain nahia duena,
mendiarentzat laike bezti ederrena.

2

Laborari laguntzak artzainen bizira
nahi bezala noizko etorriko dira?
Ez utzi erortzera putzuen erdira,
laborari artzainak anaiak baitira.

3

Diru laguntza artzain gazte horieri
emana izan bedi batzu ta besteri;
frantsesen diru kutxa izan gatik eri,
zabal laneko dauden gizon emazteri.

4

Gaztea gostuko lan batera uztea
mirail eder bat laike bixtan ikustea;
aldiz xerkatzen bada idaien haustea,
hori laike gorputz bat arrunt buluztea.

9-04-96

Egilearen andreak idatzi kahierra

Argazkiak



Bentaberri, Aintzile, Joanes Arrossagaray-ren sort-etxea.



Aintzileko eliza.



Aintzileko plazako kurutzea.



Joannes Arrossagaray bere aitamekin 1961eko uztailaren 9an
bere komunione haundiko egunean




Joannes eta Mayiren ezkontza egunean, 1977-05-14-an.



Joannes Arrossagaray, bere ezkontza egunean, bere amarekin.



Joannes Arrossagaray (1949-1998).



Bentaberriko familia.



Elizabethen lehen Komunionea
Bataioko agintzen erreberritzea
Peio Arrossagaray
Maiatzaren 25an 1995 Donazarreko Elizan.

zein
A

Estual - Herriari ikus arte

Atrea = Loreak udan ihintza bezala

- 1) Estual - herria egin ahantziz hasten maiz egun pertsonen
jakin zazuen mola mabilen eta zer bizi modutara
lau ilabete jada badituk inak durdako lurretara
goizean goizik jekitzen eta berant etzanez atsetara
- 2) Utzi ihusten ari maiz eta ustez aberastekotara
Bainan ez zeraut iduri-nehoiz izaiterik pondu hortan
Lana maikatzen duenarentzat bada estualde orotan
Bainan gibelka dagonarentzat min egitea du estukotan
- 3) Laguna frango ihusten ditut garagarrak eta beste
ertean daukate hemen lanean artzeko behar dit gazte
Zeruko jaunak maiten badaukue dagon tokitik suete
Estual - herria maiz dugu gero aberastarunez bete
- 4) beste gauza bat erran behar dut zer aditu izan dudun
Laborariak eketik kanpo inolaz zabilizate udan
Luen ekeak ez dia marai emaiten orako modan
Lurrak aberats bazimintuzte ez zimintazkete durdan
- 5) Errepostua eman union ta segur dudarik gabe
Lasoan iteaz, lagun maitea, ez daukat gero herabe
Eke thpiak tiratzen batu estalgiak bere alde
Entseatzan den bat daite izan geroan zer baiten jabe
- 6) Atintz xaharrek diote gaztek ez dugula segidarik
Atise partitzen garela lurrak eta aitamak utzirik
Bainan konpreni zazuete otoi, mintzatu aintzin hortarick
Gure etxaldek izan duten nehoiz hokeko kargarick?

Egilearen emazteak idatzi kahierraren lehen orria.

- 7) Lagun maiteak, ez pentsa gero beti dugula atsegin
 Atsko mementoz badugu ere nun josta eta zer egin
 Behar denian dirurik aski izan baladi euskadin
 Ez gintzagke Lurdako hotel hauen esku makiltzat jin
- 8) Bizjina ona hemen zaitugu estualdian ta denen ama
 Sortuz geroztik entzun izandut inola deraukagun fama
 Mirakuluak iten tuzula beti zabilan omena =
 Enbaltu bat duzu berriki ~~sizian~~ ^{zinen} gainean emana
- 9) Leku ederra hautatu duzu agertu zinen tokia
 Egun guziez zure otoizten grotan dabila jendia
 Ene partetik, ama Bizjina, egiten daitzut galdia
 Estual - herrian heda dezagun egun oroko bakia
- 10) Kurri gabiltza gaztean ~~nahiz~~ gero hori segurtatu
 Ez pentsa gero sortu-lekua mahi dugula kitatu
 Estual - herrian landaretzea = horrek iparrikanez tu
 Etskan piztu bihotza mahi nuke hor dadin gelditu
- 11) Bertsu hauetan ez dut agian inehor sobera kolpatzen
 Bainan egiak bide zuzena baizik ez dauku agertzen
 Entas morbaiti nik erran hitz hok bazariko hanbat gaitziz
 Errepostua eman dezadan, gogotik dakot galdatzen L - en
- 12) Azken pertsona emanez orai hontan beharko dut utzi
 Bertsu moldetan bizi zarente stintzila eta Garazi?
 A part izana gatik ez pentsa gero zaituztedala ahantzi
 Xius. arto daitzuet eta bihotz erditik goraintzi
 Jean Atrossagaray

Aurkibidea

Joanes Arrossagaray, ene espos lagun zena Arrossagaray... herriaren maitez

Bertsuak	45
Jaun apezpikuari	47
Herioaren orena	48
Sukreriatik Eskual Herria maitez	50
Xalbadorri agur bat	52
Alkat lagunari agur bat	54
Luis Mariano kantari zenari	56
Pertsulari gazte baten gogoetak Alkat lagunari errepostu ...	58
Aintzileko Ama Birjinari ohore	61
Eskual Herriari ikus arte	63
Mattinen omenaldia	66
Pertsulari laguneri	68
Kolorado-ri mintzo	70
Gizonaren laur sasoinak	72
Bokazione galdez	74
Amodioaren ederra	76
Maitasun tronpakorra	78
Sukre-egileak	80
Klasako lagun zenduari	85
Etienne Salaberry jaun kalonjeari	87
Bas-herriak husten ari	88
Ilobak bere osebari	90
Sort-etxeari	92
Gizonaren azken egunak	94
Begitik daukat nigarra	96
Lore maitea ihesi	98
Maite izanari	101
Lau mixterioak	103
Bidarraiko basurdea	105
Amen bestakari	107

Emazte zenari	109
Xalbador zenari	111
Amodio hutsegina	113
Partarrieu erretor ohiari	115
Artzaineri	118
Apez ordenatu berriari	120
Bi anaiak	122
Artzainen Galbarioa	123
Bernadette Bordari	125
Itxaro Bordak Jean Arrosagarai-ri	127
Urrezko ezteieri ohore	130
Maite dena ezin ukan	132
Urrezko ezteiak	134
Apendizitari adio	136
Arbolari kantuz	138
San Frantses Jatsukoari	140
Gaizki mintzo direneri	141
Ene kusi bati	143
Donibaneko elizan kantatu pertsuak	144
Ene lagun Mendibururi	145
Urte berria xaharraren anaia	146
Zakurra eta gata	148
Alaba sortu berriari	150
Mattin lagun zenduari	152
Urtzoaren pasaia	155
Aintzila sort-herriari	157
Panpilliri agur bat	160
Zakur handia ttipiaren beldur	161
Larramendy zenari	163
Zuzentasun gosea	165
Garaziri agur	167
Emaztea	169
Seme sortu berriari	171
Mai-Luixa Sorhouet Jatsuarren 100 urte	173
Felix Iriarte Bankakoari agur	175
Arrosan gertatu denari	177
Urte xaharraren orroitzapena	179
Hirugarren haurrari agur	180

Platinazko ezteiak Ezterenzubin	182
Laugarren haur bigarren alaba	184
Iriarte pertsulariari	186
Irisarriko final erditik landa	188
Antzileko kurutzea	189
Pertsutako lehen lagunari	191
Eliza eta gizona	194
Magali Zubillagari	196
Bortuaren egunean	198
Gerlari ohiek berriz elgar ikustea	199
Jainkoaren maitasuna	201
Nafarroako xapelgo erdi kanporaketa Donazaharren	202
Joni adixkideari	204
Garaziko bi apez maitatuari	206
Ikus arte, Lazkao-txiki	208
Erramun Martikorena adixkide maiteari	210
Eskual Herriaren agonia	212
Iparra eta pertsularitza	214
Irulegiko irratikoeri	216
Laborarien kezak	218
Nafarroari	219
Gaurko gazteria	220
Mixel Garikoitz pastorala	221
Beñat Detxepare	222
San Pantzar	223
Etxe leiho zerratua mintzo	224
Haurra amak ukatua	226
Bozkak	228
Garaziren lur ikara	229
Gerlari ohier	230
Ossau-Iraty gasnaz	231
<i>Bihotz</i> ostatua	232
Bertsularitza, norat zoaz?	233
Artzain gazten beharra	235
Argazkiak	237

